

Colección
MENDAUR
bilduma

VIII



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Sakanako euskara. Burundako hizkera
Koldo Zuazo Zelaieta



Colección **MENDAUR** bilduma

VIII

Sakanako euskara. Burundako hizkera

Koldo Zuazo Zelaieta



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Colección **MENDAUR** bilduma

VIII

Sakanako euskara. Burundako hizkera

Koldo Zuazo Zelaieta



**Nafarroako
Gobernua**



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

Zuazo Zelaieta, Koldo (1956-)

Sakanako euskara : Burundako hizkera / Koldo Zuazo Zelaieta. – Iruña : Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua ; Bilbo : Euskaltzaindia, 2010. -- (Mendaur; 8)

orr. ; cm

L.G. NA. 193-2010

ISBN 978-84-235-3204-9

I. Nafarroa (Foru Komunitatea). Hezkuntza Departamentua. II. Euskaltzaindia. III. Mendaur (Euskaltzaindia)

Liburuaren izenburua: Sakanako euskara. Burundako hizkera

Liburuaren egilea: Koldo Zuazo Zelaieta

© **Nafarroako Gobernua**. Hezkuntza Departamentua

© **Euskaltzaindia / R.A.L.V.**

Taiuketa eta moldaketa: Euskaltzaindia / R.A.L.V.
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

Diseño/Azala: Iñaki Cabodevilla / CAB

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.
C/ Particular de Costa, 12-14
48010 Bilbo

Inprimategia: GRAPHICEMS, Gráficas CEMS, S.L.
San Miguel industriagunea
31132 Villatuerta
Nafarroa / Navarra

ISBN: 978-84-235-3204-9

Lege gordailua: NA-193-2010

Nafarroako Gobernua

Hezkuntza Departamentua

Sustatzaileak eta banatzaileak:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa
Navas de Tolosa kalea, 21
31002 IRUÑA
Tf.: 848427121
Faxa: 848427123
fondo.publicaciones@navarra.es
www.cfnavarra.es/publicaciones

Euskaltzaindia / R.A.L.V.

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Tel.: 94 415 81 55
Faxa: 94 415 81 44
info@euskaltzaindia.net
www.euskaltzaindia.net

*Eskual Herri osuen ibili eta gio,
Burundako eskueria bilatu dot apartekuen.
Niaure eskerrik zintzuena
hizkera harrigarri hori yakusi duazain danoiri.*

AURKIBIDEA

Atarikoak	13
Burunda. Zenbait argibide	19
Burundako hizkeraren ezaugarriak	29
Fonologia	35
I. Bokalak	37
1. <i>u</i> eta <i>i</i> bokalek eraginda <i>a</i> → <i>e</i> egitea	37
2. Partizipioen bukaerako <i>-i</i> galtzea	39
3. Bokal biltzeak: hiatoak	40
4. Diptongoetako bilakaerak	50
5. Bokal luzeak	54
6. Garatu gabeko arauak	54
7. Aldaerak	58
II. Kontsonanteak	61
1. Asimilazio bustidura eza	61
2. [x] ahoskera	63
3. /f/ ondo gordetzea	64
4. Txistukariak ondo bereiztea	65
5. <i>-n-</i> → <i>-nd-</i> egitea	65
6. Herskariak eta dardarkariak	66
7. Kontsonante multzoak	68

8. Garatu gabeko arauak	70
9. Aldaerak	73
Morfologia	75
I. Izenaren morfologia	77
1. Deklinabidea	77
2. Deklinabide taulak	84
3. Deklinabide atzizkien zenbait erabilera berezi	100
4. Artikulua	101
5. Erakusleak	103
6. <i>BERA</i> eta <i>BERAK</i>	106
7. Leku adberbioak	107
8. Izenordainak	108
9. -ONA eta -IONA bukaerak	112
10. Atzizkiak, aurrizkiak eta artizkiak	112
11. Postposizioak	117
II. Aditzaren morfologia	123
1. Aditzen osagai bereziak	123
2. Aditzen erabilera bereziak	127
3. Aditz laguntzaileak	131
4. Aditz trinkoak	146
Hitanoa	161
1. Ezaugarri orokorrak	163
2. Aditz laguntzaileak	165
3. Aditz trinkoak	170
Sintaxia	177
1. Perpauk hautakariak	179
2. Aurkaritza	179

3. EZ EZE... ERE emendiozkoa.	180
4. EZPA ‘izan ezik’	180
5. Kausazko perpausak	180
6. Kontzesio perpausak.	182
7. Perpaus osagarriak	183
8. Denborazko perpausak	184
9. Moduzko perpausak	185
10. Baldintza perpausak	185
11. Konparazio perpausak	186
12. Galdera perpausak	187
13. BI zenbatzailea	187
14. EGIN indartzailea.	187
Dialektologia.	189
1. Burunda, euskalkien bilgunea.	191
2. Burundako euskara ikertzaileen begietan.	193
3. Burundako euskararen batasuna.	195
4. Burundako hizkeraren bereizgarriak.	199
5. Mendebaleko ezaugarriak Burundan	205
6. Gipuzkoako ezaugarriak	208
7. Mendebaleko eta erdialdeko ezaugarriak Sakanan.	210
8. Ekialdeko ezaugarriak Burundan	213
9. Nafarroako ezaugarriak Burundan	214
10. Burundaren nortasuna Sakana barruan.	215
11. Sakanako hizkeren batasuna.	218
12. Sakanako euskararen kokagunea	219
Bibliografia.	221

MAPEN AURKIBIDEA

1. Burunda.	21
2. Sakana.	23
3. <i>u</i> eta <i>i</i> bokalek eraginda $a \rightarrow e$	39
4. /i + a, e, o/ bokalen arteko epentesia.	45
5. Ergatibo pluraleko -AK	77
6. Asimilazio bustidura	202
7. NOR-NORI-NORK erroa	203
8. 2. eta 3. pertsona pluraleko -TE.	204
9. $-a + a \rightarrow -ea / -ia / -ie$	205
10. NOR morfema hitanoko adizkietan	206
11. [x] ahoskera euskal hitzen hasieran	208
12. JOAN-en <i>dijoa</i> gisako adizkiak	209
13. Mendebala eta Erdialdea vs Iparraldea eta euskara nafarra.	211
14. Kausazko BAIT-.	217
15. Euskara nafarra	220

ATARIKOAK

1990 aldera ezagutu nuen Burundako euskara. Ezustean gertatu zen eta ezusteko galanta hartu nuen hizkera hau ezagututa. Bonaparteren esanetan, euskara giputza egiten zen alderdi honetan, baina bertatik bertara adituta, ikuspegi hori ez zela zuzena konturatu nintzen. Izan ere, Goierriko hizkerak aditu eta gero heldu nintzen Burundara, eta Zegama, Segura, Idiazabal eta Ataungoekin alderatuta, nabarmen ezberdina gertatu zitzaidan hemengoa. Bide batez, orduan ohartu nintzen Bonapartek 1869an egindako euskalki sailkapena berrikusi eta gaurkotu beharra egon zitekeela.

Beste gertakari batez konturatzeko ere balio izan zidan Burundako hizkera ezagutzeak. Bonaparterengandik zetorkigun tradizioaren arabera, lerro bakarrez bereizten genituen hizkeren arteko mugak, eta Burundan ezin zen horrela jokatu: hemengo hizkerak Nafarroako, Gipuzkoako eta mendebaleko euskalkiekin dauka lotura; hiru euskalki horien «tartekoa» da.

«Tarteko hizkera» kontzeptua ohikoa izan da nazioarteko dialektologian, baina ez Euskal Herrikoan. Burundako hizkera ezagutzean ekarri nuen kontzeptu hori gure artera eta, harrezkero, beste hizkera batzuk sailkatzeko ere maiz erabili dut: Elgoibar-Mendaro-Mutriku alderdikoa, Oiartzun-Hondarribia-Irun herrietakoa, Larraun-Basaburua-Imotz ibarretakoa, Baztan-Urdazubi-Zugarramurdi eskualdekkoa...

Burundako hizkeran ageri zen eragin hirukoitza arrazoitu eta erakutsi ahal izateko, bestalde, gauza bakoitza nondik hartu duen zehaztu beharra zegoen eta, horretarako, euskalki bakoitzak zer sortu eta zer aldatu duen argitu beharra neukan. Jokabide hori ere ohikoa zen nazioarteko dialektologian, baina ez Euskal Herrikoan. 1990 arteko euskararen gaineko ikerketetan ez zen batere ohikoa azaltzea zein ote ziren euskalki bakoitzak egindako berrikuntzak eta aldakuntzak.

Burundako hizkeraren izaera nabarra ahalik eta argien adierazi nahiak, gainera, *arauak* eta *aldaerak* edo, beste era batera esateko, gauza «larriak» eta gauza «txikiak», gertakari esanguratsuak eta huskeriak ondo bereizi beharra eskatzen zuen. Bestela, hainbeste gertakari, denak bata bestearen ondoren maila berean jarrita, irakurlea zorabiatzeko eta galtzeko arriskua zegoen. Horrelako bereizketak egitea ere ez zen ohikoa 1990 arteko euskararen gaineko dialektologia ikerketetan eta, beraz, arlo horretan ere izan nuen zertaz arduratua.

Beste gertakari batez ere jabetu nintzen Burundako eta Sakanako hizkerak ezagututa. Hainbat gauza zeuden Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan modu batera, eta Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian beste modu batera esaten zirenak. Horretaz ere ez zen ezer esaten 1990 arteko euskal dialektologian. Ez zen ezer esaten ohiko euskalkien eremuekin bat ez zetozen gertakarien gainean. Urteak aurrera joan ahala, horrelako gauza asko daudela konturatu naiz, eta oso silueta bereziak osatzen dituztela. Gertakari batzuk Ipar Euskal Herrikoak dira, beste batzuk Hego Euskal Herrikoak, beste batzuk Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Nafarroan gauzatzen dira, beste batzuk, berriz, ekialdeko eremu zabalean, Zuberoan, Nafarroa Beherean, Lapurdiko alderdi batean, Erronkarin eta Zaraitzun... Euskal dialektologian, beraz, aztertu beharreko lan-esparru zabal eta ezezagun bat agertzen zen.

Eta azkenean, Burundako hizkera ezagutu eta gero egindako ikerketa eta gogoeta horien emaitza 1994an plazaratu nuen, *Burundako hizkera* izeneko saioan. Jakina, nik ere ez nuen gauza guztietan asmatu eta zuzen jokatu. Dialektologian hasiberria nintzen eta Burundako hizkera berezia egoki azaltzea ez zen hasiberri batendako zeregin samurra. Harrezkero, hain zuzen, askotan eduki dut gauzak aldatzeko eta hobetzeko gogoia eta oraintxe heldu zait gogo hori asetzeko aukera.

2007 eta 2008 urte bitartean bi egonaldi luze egin ahal izan ditut Urdiainen. Eskualde honetako hizkera bertatik bertara, den bezala, ezagutzeko eta ikasteko beta hartu dut eta, oraingo honetan, ikasitako hori zuzenago eta hobeto erakutsiko dudalakoan nago.

Burundako hizkerarekin izan dudan bigarren hartu-emanak, gainera, beste gertakari batez jabetzeko aukera eman dit. Ezaguna zen, Bonapartek berak ere ikusitakoa, eskualde honetako hizkerak mendebalekoarekin, hau da, Araba eta Bizkai aldekoarekin daukan lotura. Bonapartek, ordea, ez zituen lotura horren zergatiak azaldu eta beste inor ere ez da haren ondoren

arazo horretaz arduratu. Burundatik begiratuta, Gasteizen ikusten dut kidetasunen gakoa. Hura izan zen mendebaleko hirigune nagusia antzina eta, ziu-renera, han sortu eta handik zabaldu ziren hizkuntza-modak eta berrikuntzak inguruetera: Bizkaira, Errioxako eta Burgosko alderdi batzuetara, Gipuzkoako Goierriara eta Deba ibarrera, eta Nafarroako Burunda, Ameskoa eta Lana eskualdeetara. Zaila da, bestela, hizkuntza-modak Bizkaitik Burundara etortzea; askozaz errazagoa Gasteiztik heltzea.

Burundako hizkeraren egitura aintzakotzat hartuta, hain zuzen, badauzkagu arrazoiak gaur egungo euskalkien lehenbiziko sorguneak Gasteiz eta Iruñea izan zitezkeela esateko. Bietatik elikatu zen Burunda, eta bietatik elikatu zen Arabako ekialdea, alderdi horretako hizkera eta gaur egun Burundan egiten dena antzekoak izan direla ematen du eta. Dirudienez, ge-roagokoa da hirugarren gune berritzailea, Gipuzkoakoa. Jakina, haren mugan egonda, handik ere elikatu da Burunda.

Burundako eta, azken batean, Sakanako euskara dakart, beraz, plazara, eta hori nekez lortuko nukeen hemengo bizilagunek euren hizkera erakutsi ez balidate. Laguntzeko prest agertu dira aldioro eta jarrera hori bihotz-bihotzez eskertzen dut. Barruan gordeta daukadan sentimena hitzez nahi dut hemen adierazi. Urdiainen, gainera, izan dira, euren hizkera irakaste aldera, nirekin hitz egiteko elkartu direnak. Julian Etxeberriarekin, Mariano Galarzarekin eta Juan Migel Zufiaurrerekin gehienbat, hizketaldi mamitsuak eta atseginak egin ditut.

Gazteen hizkera ere nahi izan dut aztertu, eta ea jende heldua —«jende jarria» esan ohi da Urdiainen— eta jende gaztea zertan bereizten diren ikusi. Horretarako ere ez dut zailtasunik eduki, eta Aitor Irigoien, Dabid Irigoien eta Alex Lopez Goikoetxea «mintzalagun» bikain gertatu dira. Esan dezadan, honen harira, adin tarte guztietako hitzuneekin jardun dudala lanean: 90 urtekoa izan da adinik handienekoa, Luzio Zubiria, eta 14 urtekoa gazteena, Alex Lopez Goikoetxea. Batzuek eta besteek erabiltzen duten hizkera erakusten ahalegindu naiz, eta batzuen hizkerak eta besteak bat etorri ez direnean, aldeak zein diren azaldu dut.

Aipatu ditudan lagunez gainera, beste burundar hauekin egin ditut grabazio saioak: Gabriel Aldaz, Maria Luisa Bengoetxea, Irantzu Etxeberria, Fermin Gabirondo, Belen Galartza, Jazinto Galartza, Junkal Galartza, Katxo Galartza, Lidia Galartza, Maritxu Galartza, Perfekto Galartza, Oihana Gallo, Antonio Goikoetxea, Elbira Goikoetxea, Iñigo Goikoetxea, Luisita Goikoe-

txea, Luziano Goikoetxea, Segunda Goikoetxea, Zelestino Goikoetxea, Montxo Irigoien, Pedro Migel Kintana, Andrea Lopez Goikoetxea, Felix Lopez Goikoetxea, Jesus Lopez Goikoetxea, Marili San Roman, Ageda Selba eta Oihane Zufiaurrerakin.

Oso lagungarri gertatu zait, era berean, Urdiaingo «Tintiniturri» Elkarteko ateak zabalik izatea. Urdiaindarren lagunarteko hizkera entzuteko eta ikasteko aukera eman dit eta, beraz, neure esker ona erakutsi nahi diet Elkarteko kideei.

Horretaz guztiaz gainera, gramatika gaiak lantzeko taldetxo bat antolatu zen Urdiainen. Deklinabide eta aditz taulak osatu eta egiaztatu genituen elkarrekin. Mikel Agirre, Maribi Galartza, Mikel Galartza, Oihana Gallo, Iñigo Goikoetxea eta Xabier Zelaia izan ziren taldekideak eta, jakina, plazara dakardan liburuak asko zor die lagun horiei.

Bestalde, Oihane Zufiaurre urdiaindarrak bere herriko hizkeraren gainean egindako lan bat utzi zidan, eta Altsasuko hizkeraren gainean egindako beste bat Izaskun Etxeberriak. Bigarren honek, gainera, herri horretako euskaldunei 1985-86 bitartean egindako grabazioak utzi zizkidan.

Grabazioak direla eta, hain zuzen, gaur egun euskalkia galduta dagoen herri guztietakoak erabili ahal izan ditut. Bitoriano Gabirondoren bidez eskuratu nituen Iturmendikoak, Edurne Lopez Goikoetxearen bidez Adelaida Kintanak 1987-92 bitartean Olatzagutian egindakoak, eta Rafa Blancok utzi zidan Patxi Gonzalezi, Ziordiko azken euskaldunari egin ziona. Amaia Oiarbidek, berriz, eskuzabal eman zidan Altsasun egindako beste grabazio bat. Gainera, Maria Jesus Agirreri esker lortu nuen Nafarroako Mediatekan dauden Burundako hizkeren grabazioen kopia eta, oraindik orain, Imanol Arratibelek eta Castillo Suarezek Sakanako Mankomunitatearen eta *Bierrik!* Elkartearen babesean *Sakanako Ahozko Tradizioa* egitasmoaren barruan egin dituztenak ere baliatu ditut. Jakina, bitarteko horiei esker, Burundako hizkeren gaineko argibide ugari ezagutu ditut.

Esan dezadan, azkenik, herritarrak ezagutzen eta hartu-emanak sortzen erabateko laguntza eman didatela Mikel Galartza, Katxo Galartza eta Txaro Eskisabel urdiaindarrek, Beñat Goikoetxea altsasuarrak eta Edurne Lopez Goikoetxea olaztiarrak. Eskatu ahala laguntza eman dit, era berean, Elbira Lizeagak, Sakanako Mankomunitateko euskara teknikariak. Eurek jarri dute, azken batean, lan honen oinarria eta eurei eman nahi diet neure eskerrik beroena. Bestalde, Burundako albisteez gainera, Sakana guztikoak ere erakutsi

ditut saioan barrena. Liburuetan jaso dut hango berri ugari (ikus Bibliografia), baina zenbait zalantza argitze aldera, bertako hiztunengana jo dut laguntza eta argibide bila: Jabier Navarro, Iñaki Mundiñano, Gorka Ovejero, Iñaki Uriz eta Oihana Zubeldia izan ditut berriemaile.

Eta behin lanaren oinarriak eta nondik norakoak aipatuta, hitz egin dezagun plazara dakardan liburuaren gainean. Bi atal nagusi dauzka: a) Burundako hizkeraren ezaugarriak, eta b) Dialektologia.

Lehenbiziko atalean Burundako hizkeraren egitura aurkeztu da: fonologia, morfologia eta sintaxia. Alde batera utzi da lexikoa, beste batean sako-nago lantzekotan. Dena dela, arlo hori lehenago ere jorratuta dago: Juan Garbizuren hitz bilduma (Nikolas Altzolak 1962an argitaratua) eta bilduma horri Koldo Mitxelena (1962) egindako oharra, Francisco Ondarrarenak (1965 eta 2005), Kandido Izagirrerena (1967), Rafael Karasatorrerena (1993) eta Jose Luis Erdoziarena (2004) dauzkagu dagoeneko eskura.

Azentua ere alde batera utzi dut. Alde batetik, Burundan ez dago azentu bereizgarririk. Azentuak ez du, esate baterako, hitzen singularra eta plurala bereizteko balio. Burundan ez dago, beste alderdi batzuetan bezala, *etxéak dauka* (singularra) eta *étxeak daukate* (plurala) bereizten duen azenturik. Esanahi desberdineko hitz bikoteak bereizteko ere ez du balio. Burundan ez dira *basóa* ‘oihana’ eta *básoa* ‘edalontzia’, edo *eltzéa* ‘lapikoa’ eta *héltxea* ‘iristea’ azentuaren bidez bereizten. Azentu markatuko hitzik ere ez du ematen dagoenik, hau da, ez dago azentua leku berezi batean, eta beti bertan, daukan hitzik, beste alderdi batzuetako *átzeko*, *áurretik*, *gáinera*, *béstearekin*, *árrautzekin*, *bátzarrerako*, *égia*, *érdaragatik*, *éuskararendako*, *ín-txaurrak*, *lándarea*, *lékura*, *tókitik*... bezalakorik. Burundan, hain zuzen, azentua ez dago beti silaba jakin batean: silaba batean baino gehiagotan ager daiteke hitz berean.

Jakina, ez dut horrekin esan nahi Burundako azentuaren gainean ezer esatekorik ez dagoenik, baina gertakari horiek aztertzeak lan honi jarri dizkiodan mugak gaintzen ditu eta hori ere, beraz, beste baterako utzi dut.


Liburuaren bigarren atalari «Dialektologia» deitu diot eta bertan Burundako hizkeran zer sortu den, zer gorde den, eta besteetatik zer hartu den aztertu dut, eta, hartu dena, nondik etorri den zehazten ahalegindu naiz. Berezia eta aberatsa da Burundako hizkera; dialektologia saioa egiteko ezin egokiagoa.

Liburua antolatzea dela-eta ere badut eskerrak nori eman. Inprentan sartu aurretik beste lagun batzuek begira zezaten nahi izan dut. Mikel Agirre irakasle urdiaindarrak, Jose Mari Arakama hizkuntza teknikari altsasuarrak, eta Irantzu Epelde, Jose Ignazio Hualde, Jesus Mari Makazaga eta Patxi Salaberri Zaratiegi hizkuntzalariek osatu eta hobetu dute nik egindako lana. Mapak, berriz, Andoni Elorduik marraztu dizkit. Esan dezadan, azkenik, neure ikerketak aurrera ateratzeko, Espainiako Ministerio de Educación y Ciencia erakundeak lagundu nauela, FFI 2008-01844 egitasmoaren barruan. Auzolanean egin da, beraz, plazara dakardan liburua eta zinez poztuko nintzateke plaza horretan dabiltzanei mesede eta onuraren bat ekarriko balie.

Urdiainen, 2008ko lastailean

BURUNDA. ZENBAIT ARGIBIDE

Nafarroako mendebaleko ertz batean dago Burunda, Gipuzkoaren eta Arabaren mugan. Sei herrik osatzen dute eta, mendebaletik ekialdera goazela, haek dira euren izenak eta 2007. urtean bakoitzak zituen bizilagunak: Ziordia (329), Olatzagutia —bertakoek «Olazti» esaten diote— (1.739), Altsasu (7.527), Urdiain —bertakoek «Urdin» esaten diote— (605), Iturmendi (380) eta Bakaiku (338). Guztira, beraz, 10.918 bizilagun inguru daude eta erdia baino gehiago Altsasun bizi da. Altsasu da, hain zuzen, Burundako hiriburua eta bertan daude denda, ikastetxe eta zerbitzu gehienak.



Altsasu da, era berean, Sakana guztiko herri nagusia eta eskualde horren zatia da Burunda. Sakanaren mugak ez dira beti berberak izan, baina gaur egun Ziordia eta Irurtzun bitarteko alderdia sartzen da eremu barruan. Beste era batera esateko, Aralar-Aizkorri eta Andia-Urbasa-Entzia mendien artean dagoen ibar luze eta meharra.

Mendiartearen badago ere, Sakana ez da sekula egon baztertuta. Alderantziz, betidanik izan da iraganbide esanguratsua. Erromatarren garaian, esate baterako, handik zihoan Bordele eta Astorga lotzen zituen galtzada, eta gaur egun ere handik doaz Iruñea eta Gasteiz batzen dituzten errepidea eta trenbidea. Araba eta Gipuzkoa aspalditik elkartu dituen bideetako batek ere Burunda zeharkatu du Etxegaraten barrena eta gaur egun, era berean, inguru horretatik doaz Madril eta Irun lotzen dituzten trenbidea eta N-I errepidea. Gipuzkoa Nafarroarekin harremanetan jarri duen beste errepideetako batek ere Sakana zeharkatzen du, Ataundik abiatuta, Lizarrustin barrena.

Lizarrustin gora datorren bide horrek Ataun —eta Gipuzkoa— Lizarrarekin lotzen ditu, baina lehenagotik ere bazen Ataunen hasi, Urbasa zeharkatu eta Ameskoara zihoan galtzada: Burundatik, Iturmendin zehar pasatzen zen. Ameskoa eskualdearekin, hain zuzen, hartu-eman estua eduki dute burundarrek iraganean. Gaur egun Olatzagutian hartzen da Ameskoara doan errepidea.

Sakanaren kokagunea dela eta, basoa, abeltzaintza eta nekazaritzaz gainera, merkataritza ere lanbide esanguratsua gertatu da eskualdeko ekonomian. Burundan eta Ergoienean, gehienbat, mandazain eta merkataritza ugari egon da aspaldiko garaietan. Ángel García-Sanz Marcoteguiaren esanetan (1985: 80), 135 lagun ari omen ziren Burundan zeregin horretan 1817an: 3 Bakaikun, 15 Iturmendin, 30 Urdiainen, 28 Altsasun, 30 Olatzagutian eta 29 Ziordian. Gatza eta ardoa garraiatzen omen zuten batez ere, baina baita azukrea, kakaoa, bakailaoa eta balea koipea ere. García-Sanz Marcoteguiaren arabera (1985: 83), euskal hiri nagusienekin egiten zuten lana: Bilbo, Donostia, Baiona, Iruñea, Tutera... eta baita Zaragoza eta Madrilekin ere. Merkataritza sare sendoa zegoen, beraz, Burundan eta Ergoienean eta ordukoak dira, esate baterako, Burundan dauden etxe galantetako gehienak.

Industria, berriz, berandu abiatu zen, XIX. mendearen erdialdean. Orduan ekin zitzaion lehenbiziko meategiak eta burdinolak ustiatzeari eta 1860-70 hamarkadan gertatu zen egiazko aldakuntza, Madril-Irun trenbide lanak

Burundako zatian egin zirenean. 1878an, gainera, Altsasu eta Iruñea bitarteko zatia egin zen. Hiru ondorio nagusi ekarri zituen trenbidea egiteak:

- a) Alde batetik, kanpoko jende ugari etorri zen Burundara. Erdaldunak ziren gehienak eta eurekin sartu zen gaztelania Burundan.
- b) Etorri berri horietako gehienek Altsasun egin zuten bizilekua eta ordukoa da Altsasuren erabateko nagusitasuna.
- c) Trenbide sarea eraikitzeak, azkenik, mandazainen lanbidearen gainbehera ekarri zuen eta, handik lasterrera, guztiz galdu zen.

Burundaren bilakaeran, era berean, oso esanguratsua gertatu zen *Portland* zementu fabrika sortzea Olatzagutian. 1903an izan zen eta ibar osoko gizonezko asko joan zen hara lanera. Beste lantegi txikiago batzuk ere sortu ziren Altsasun eta Olatzagutian xx. mende hasieran; gehienbat teilagintzakoak, upelgintzakoak, txarolgintzakoak eta zerrategiak. Zerrategien artean Olatzagutiko *Etxabarri* izan zen ezagunena; trenbideetako trebesak egin ohi ziren bertan. Dena dela, 1898an Altsasun eraikitako *FASA* labe garaiak dira lantegi guztien artean nabarmendu beharrekoak.

Burundarrek ere, ordea, kanpora atera beharra eduki dute lan bila. XIX. mendeko egoera gaiztoak behartuta, Ameriketara jo zuen burundar ugari; Argentinara, gehienbat. XX. mendearen erdialdeaz gero Gipuzkoara joan dira; Goierriera gehienak, eta horietako asko Zumarragako *Orbegozo* eta *Irimo* lantegietara eta Legazpiko *Patricio Etxeberria*-ra. Eibar, Elgoibar eta Arrasate aldera ere joan dira banaka batzuk. 60ko hamarkadan Frantziara eta Suitzara ere jo zuten basolanetan jardutera. Andrazkoak ere atera dira lan bila kanpora, neskame aritzera ia beti: Bilbo, Donostia, Bartzelona eta Larraungo Lekunberri izan dira gehien jomuga.

1960-70eko hamarkadaz gero, asko gutxitu da kanporako isuria; Burundan bertan egin du industriak gora. Ibarreko industriagunea sortu zen Altsasun, eta Ziordia eta Urdiain bitarte guztian eraiki ziren lantegiak. Altsasuko *Sunsundegi* izan zen esanguratsuena. Trenendako bagoiak egiten hasi zen eta gaur egun batez ere autobusak egiten ditu. Beste lantegi batzuk ere eraiki ziren Altsasun: *Igartex*, latexezko eskularruena, *Isphording*, tresna elektrikoena, eta *ARFE*, kutxa gotor eta postontziena. Urdiainen *Magotteaux* siderometalurgia alorrekoa eta *Viscofan* kimikakoa daude. Olatzagutian, berriaz, *Gamesa* taldeko *Apoyos Metálicos* eta *Quesos La Vasco-Navarra* dira nabarmenenak. Bakaikun, azkenik, garabiak egiten dituen *Gerra* lantegia kokatu da.

Lantegi horiek gorabehera, gaur egun ere badira Burundatik kanpora doazen langileak. Sakanan —Etxarri Aranatzen eta Lakuntzan, gehienbat— eta Iruñerrian egiten dute lana, baina horietako asko Burundan bertan bizi dira eta egunero egiten dute joan-etorria.

Burundako industriaren gorakadak kanpoko jendea ere ekarri du bertara. 60ko hamarkadan heldu zen lehenbiziko uholdea. Extremaduratik etorri ziren gehienak, eta Andaluziatik eta Gaztelatik ere bai banaka batzuk. Gaur egun ere ez dauka etorkinen emanak etenik: Espainiako probintzietatik ez eze, Hego Ameriketatik, Europako ekialdetik eta Afrikatik ere ari dira heletzen Burundara.

Euskara Burundan

Gauza gutxi dakigu Burundako euskararen iraganaz, baina adineko bizilagunek, behinik behin, ondo gogoan daukate 1936ko gerra ondoren luzea. Alderdi guztietatik begiratuta izan omen zen gogorra, baita euskara eta Euskal Herriaren gainerako ezaugarriak desagiteko eta desagerrarazteko eginahalak egin zirelako ere. Dena dela, Ziordian, Olatzagutian eta Altsasun lehenago hasi zen euskararen gainbehera, xx. mendearen hasieran. Iturmendin ere gerra baino lehen omen zeukan erdarak indarra.

Bakaikun, ordea, gerra ondorenean galdu da eta errepresioa eta zigorra izan dira gainbeheraren arrazoia. Zehatza da Francisco Ondarra fraide kaputxino bakaikuarraren lekukotasuna (Ondarra 2005: 482-483). 1925ean jaio zela zioen, eta orduko umeak denak zirela euskaldunak. 1964an, berriaz, Txilen egon eta gero herrira itzuli zenean, egoera hauxe aurkitu omen zuen:

Eskolan debekaturik, elizan irakasten zenean kristau ikasbidea, euskarazko eta erdarazko taldeak antolatzen ziren (...). Elizkizunak euskaraz egiten ziren (...). Klean erdal giro handia zegoen.

Eliza zen, beraz, euskarari eusten zion erakunde bakarra; baztertuta eta debekaturik zegoen bestela. Ondarrak ondo gogoan zeukan Bakaikuko tren geltokiko itxaron-gelan zintzilikaturik zegoen oharra: «Se prohíbe hablar el vasco en esta oficina».

Gauza da, Urdiainen ez beste herrietan, euskara erabateko heriotzatik gertu jarri zela 1970 aldera, eta ordukoa da, hain zuzen, Pedro Irizarrek eus-

kararen egoeraren berri jakiteko egindako azterketa. Euskal Herrian zeuden euskaldunak zenbatu zituen eta kopuru hauek atera ziren Burundan (Irizar 1973 [1981-1]: 190):

Herria	Euskaldunak
Urdiain	690
Altsasu	150
Olatzagutia	140
Bakaiku	120
Iturmendi	60
Ziordia	10
Guztira	1.170

Nabarmenezkoa da, dena dela, Urdiain zela egiazko herri euskalduna. Gainerakoetan, adinekoak ziren euskaldunak eta gazteek erdaraz egiten zuten. Etenda zegoen guraso eta seme-alaben arteko transmisioa. Baina euskara hiltzerian zegoen unean, susperraldia etorri zen. Ikastolak agertu ziren eta, 1969an, «Iñigo Aritza» eraiki zen Altsasun. Urtebete lehenago, 1968an, Etxarri Aranazkoa sortu zen eta bi ikastola horietara jo zuten Burundako gazteek.

80ko hamarkadan beste urrats bat egin zen: euskara eskola publikoetan sartu zen. Harrezkeroko urteetan sendotuz eta indartuz joan da euskara ardatz duen eredu eta bera da gaur egun erabat nagusi Burunda guztiko ikastetxeetan.

Irakaskuntzan egin den lan erraldoiari beste esparru batzuetan egindakoa gehitu zaio. 1994an, esate baterako, *Guaixe* aldizkaria sortu zen Sakana guztirako eta, aldi berean, *Bierrik!* Elkartea antolatu zen egitasmoa egoki bideratzeko. 1999an, hain zuzen, *Beleixe* irratia etorri zen. *Guaixe* aldizkariak gehienbat, leku zabala bereganatu du Sakanako bizimoduan eta oinarri sendoa gertatzen ari da euskararen zabalkundearen.

Ahalegin horien guztion ondorioz, euskararen gainbehera gelditu eta zertxobait indartu da. Hona hemen, horren lekuko, Burundako herrietan 1991-2001 hamarkadan euskarak egin duen bidea:

HERRIA	1991			2001		
	Euskal-dunak	Bizilagunak	%	Euskal-dunak	Bizilagunak	%
Altsasu	891	6.614	13.47	1.502	6.965	21.56
Urdiain	557	648	85.95	488	653	74.73
Olatzagutia	218	1.665	13.09	342	1.624	21.05
Bakaiku	162	314	51.59	174	344	50.58
Iturmendi	83	334	24.85	98	345	28.40
Ziordia	38	331	11.48	90	345	26.08
BURUNDA	1.949	9.906	19.67	2.694	10.276	26.21

Nabarmentzekoa da Burundako herririk hazienetan, Altsasun eta Olatzagutian, euskarak egin duen gorakada, baina nabarmentzekoa da, era berean, Urdiainen egin duen atzerakada. Izan ere, Urdiaingo zenbait bizilagun ez da zekiena eta zeukana gordetzen ahalegindu eta, euskara alde batera utzita, erdara aukeratu du.

**BURUNDAKO HIZKERAREN
EZAUGARRIAK**

Burundako euskara ikaste aldera, Urdiainen egin dut lanik gehiena eta begi-bistakoa da horren arrazoia: hura da Burundako egiatzko herri euskalduna. Iturmendin eta Bakaikun ere ibili naiz eta gainerako herrietako grabazioak ere aditu ditut, baina horko albisteak Urdiaingoetatik bereizten direnean baizik ez ditut aipatu. Dena dela, Burundako herri guztietako hizkera egitura berekoa da eta batetik bestera dauden aldeak ez dira ez oso ugariak ez oso larriak.

Bestalde, plazara dakardan liburua ahalik eta irakurle eta erabiltzaile multzo zabalenarendako egiten ahalegindu naiz, ez bakarrik hizkuntza gaietan adituak direnendako, eta azalpen gutxi batzuk eman nahi ditut irakurle horiendako.

Fonologia izan ohi da arlorik zailena eta nahasiena, eta Burundan gertatzen dena ahalik eta argien azaltzeko, eta gauza handiak eta txikiak denak batera ez jartzeko, hiru maila bereizi ditut: a) arauak, b) garatu gabeko arauak, eta c) aldaerak. Ikus dezagun zer den horietako bakoitza.

1. Arauak

Erabat eta sistematikoki gauzatzen diren gertakariak dira. Burundan, esate baterako, *e* bokala *a*, *e* eta *o* bokalekin elkartzen denean, *i* bihurtzen da: *semea* → *semia*, *semeekin* → *semiekin*, *semeok* → *semiok*. Ezin konta ahala hitzetan elkartzen dira bokal horiek eta, beraz, Burundako hizkera azaltzeko orduan, arau hori nahitaez aipatu behar da.

Arauak, gainera, *emankorrek* edo *ihartuak* izan ohi dira. Bizirik daudenak dira emankorrek, bai hiztun zaharrek eta bai gazteek gauzatzen dituztenak, eta hitz zaharretan nola berrietan betetzen direnak. Urdiaindar guztiek aldatzen dute *semea* → *semia* eta, aspaldiko hitz horretan bezala, hitzik berrienetan ere aldatzen da: *derramea* → *derramia*, *entxufe* → *entxufia*, *kutrea* → *kutria*, *tabikea* → *tabikia*...

Arau ihartuek, ordea, ez dute dagoeneko indarrik. Ez dira gauzatzen erdaratik edo euskara batutik hartzen diren hitz berrietan. Burundan, esate baterako, gaztelaniako *ll* → *il* eta *ñ* → *in* aldatzeko joera egon da: *silla* → *silia*, *daño* → *dainua*. Baina joera horren indarra asko moteldu da eta gaztelaniatik azkenaldian hartu diren *muelle* eta *señal* hitzak, adibidez, euskaraz ere horrelaxe esaten dira.

2. Garatu gabeko arauak

Bi ezaugarri dituzte multzo honetan sartu diren gertakariak. Alde bate-tik, ihartutako arauak dira, gaur egun galduta daudenak, eta, bestetik, bizirik zeudenean ere ez zeukaten indar handirik. Beste era batera esateko, hitz gutxi eta jakin batzuetan gertatzen dira eta hitz horiek, gainera, aspaldikoak dira.

Adibide batekin ulertuko da esan nahi dudana. Dardarkari azkarraren (*rr*) aurrean *e* → *a* aldatzen da zenbait hitzetan. Guztira hamar bildu ditut Urdiainen: *baztar* ‘bazter’, *eguardi* ‘eguerdi’, *hasarratu* ‘haserretu’, *ifarnu* ‘infernu’, *izardi* ‘izerdi’, *iztar* ‘izter’, *maiztar* ‘maizter’, *muskar* ‘musker’, *pitxar* ‘pitxer’ eta *uzkar* ‘puzker’. Besteren bat ere izango da beharbada, baina, dena dela, txikia da zerrenda. Erdaratik hartzen diren hitz berrietan, gainera, ez da gertatzen aldakuntzarik: *alergia*, *hernia*, *Internet*, *kanzer*, *ner-bioso*, *poster*... esaten da.

Jakina, gisa horretako gertakariak badute euren balioa, baina ezin dira egiazko «arauen» maila berean ezarri. Bigarren maila batean, egiazko «arauen» menpean kokatu ditut eta «garatu gabeko arau» deitu diet.

3. Aldaerak

Honako hauek hitz bakartietan gauzatzen dira. Burundan, esate baterako, *esan* erabiltzen da; *ez erran*. Edo *autzi*; *ez utzi*. Edo *bekela* (eta *bezela*); *ez bezala*. Horiek ere badute euren balioa, baina horiek ere bigarren maila batean jarri behar dira. Ezin konta ahala hitzetan gertatzen dena, eta hitz bakarrean gertatzen dena, ezin dira maila berean kokatu. Aldaeren artean ere, gainera, *zaharrak* eta *berriak* daude eta hori ere ondo kontuan eduki behar da.

Aldaera zaharrak eremu zabaletan erabiltzen dira maiz edo, behintzat, eremu zabaletan erabili ohi ziren antzina. Oso zabala da, esate baterako, *esan*

aldaeraren eremua eta oso zabala izan da *bekela* aldaeraren eremua, gaur egun Burundan eta Ergoienean baizik bizirik irauten ez badu ere. Hori dela eta, oso kontuan eduki ditut gisa horretako aldaerak.

Beste aldaera batzuek, ordea, berri samarrak dirudite. Ez dira agertzen izkribu zaharretan eta txikia da euren eremua. Horrelakoak, gainera, hiztun guzti-guztiek ere ez dituzte erabiltzen askotan. Urdiainen, esate baterako, *baretz* ‘baietz’, *lera* ‘era [modua]’, *mangulu* ‘makulu’ edo *sardai* ‘sarde’ esaten da, baina horrelako gauza txikietan ez dut arreta handiegirik jarri.

Saio hau ahalik eta jende gehienak erositasunez erabili ahal dezan, bestalde, *h*-ak idatzi ditut. Gauza jakina da Burundan ez dela *h*-a ahoskatzen eta berez ez luke gisa honetako lan batean agertu behar. Gaur egun, ordea, *hau*, *hori*, *behi*, *suhi* irakurtzera ohitu gara eta ulergaitz eta deseroso gertatzen zaizkigu *au*, *oi*, *bei*, *sui* itxurapean ikusita.

Bi bokal berdinen arteko *h*-ak ere idaztea erabaki dut: *mahats*, esate baterako. Oker ulerturik egon ez dadin, esan dezadan gisa horretako hitzak bokal bakarrarekin ahoskatzen direla Burundan: *al* ‘ahal’, *aztu* ‘ahaztu’, *beko* ‘beheko’, *leno* ‘lehenago’, *lertu* ‘lehertu’, *mai* ‘mahai’, *mats* ‘mahats’, *me* ‘mehe’, *mi* ‘mihi’, *nastu* ‘nahastu’, *txal* ‘txahal’, *txe* ‘zehe’, *zagi* ‘zahagi’, *zar* ‘zahar’, *zur* ‘zuhur’...

FONOLOGIA

I. BOKALAK

Ondorengo hauek dira Burundako euskaran bokalen sailean gertatzen diren gauzarik nabarmenenak.

1. *u* eta *i* bokalek eraginda $a \rightarrow e$ egitea

Hego Euskal Herriko beste hizkera askotan bezala, *u* eta *i* bokalek eraginda, haien ondorengo $a \rightarrow e$ egiten da. Burundan, dena dela, joera hori oso makala da. Urdiainen *a* artikulua denean gertatzen da gehienbat:

eskuak \rightarrow *eskuek*

mendian \rightarrow *mendien*

Gainera, *u* eta *i* horiek jatorriz *o* eta *e* izanagatik ere betetzen da araua:

basoak \rightarrow *basuak* \rightarrow *basuek*

etxean \rightarrow *etxian* \rightarrow *etxien*

Baina araua beteko bada, *a* bokala *u* eta *i* horien ondo-ondoan egon behar da. Tartean kontsonanteren bat baldin badago, ez da $a \rightarrow e$ egiten. Beraz, *lagunak* (ez *lagunek*), *mutilak* (ez *mutilek*) esaten da.

Esanguratsuagoa den beste debeku bat ere badago Urdiainen: ez da gauzatzen hitz bukaeran. Beraz, *eskuek*, *mendien*, *basuek*, *etxien* esaten da, alde batetik, eta *eskua*, *mendia*, *basua*, *etxia*, bestetik. Jose Ignazio Hualde (1991: 40) izan zen debeku berezi horretaz konturatzen lehena, Arbizuko euskara aztergai zuela. Harrezkero, Sakanan barrena beste zein herritan gertatzen den zehaztu du Jose Luis Erdoziak (2001a: 97): Ergoieneko Dorrao eta Unanu herrietan, Arbizun eta Arruazun. Lau herri horiei, beraz, Urdiain gehitu behar zaie.

Hitz barruan, artikulua ez denean, nekez egiten da $a \rightarrow e$, baina badira zenbait adibide. Hauexek bildu ditut Urdiainen:

behatz ‘mehatz [bakan]’ \rightarrow *bihets* (eta *behatzu* ‘bakandu’ \rightarrow *bihestu*)

bihar \rightarrow *biher*

ikaratu \rightarrow *ikeatu*

ipar \rightarrow *iper* (eta *ipar*) (*iper falsua* [haize mota bat])

irakin \rightarrow *iekin*

maiatzean \rightarrow *maietzien*

sirats ‘zingira’ \rightarrow *siets*

Hitanoko adizki batzuetan ere gertatzen da:

diat \rightarrow *diet*

jituat ‘ditiat’ \rightarrow *jituet*

noak / noan \rightarrow *nuek / nuen*

jakiat ‘zakiat’ \rightarrow *jakiet*

Oihane Zufiaurreri (2001) esker jakin dut beste ingurune batean ere gauzaten dela $a \rightarrow e$ araua: ‘-TXO atzizki txikigarria + BAT zenbatzailea’ bil-tzen direnean. Adibide hauek aipatzen ditu Zufiaurrek:

katutxo bat \rightarrow *katutxuet*

liburutxo bat \rightarrow *libutxuet*


txikitxo bat \rightarrow *txikitxuet*

Bilakaera hori erabatekoa da Urdiain eta Bakaiku artean: *bajutxo bat* \rightarrow *bajutxuet*, *bidetxo bat* \rightarrow *bidetxuet*, *etxetxo bat* \rightarrow *etxetxuet*, *gitaratxo bat* \rightarrow *gitarratxuet*, *iturritxo bat* \rightarrow *iturritxuet*...

Laburbilduz, Burundan $a \rightarrow e$ bilakaera ez da Euskal Herriko beste alderdi batzuetan bezain indartsua. Alde nabarmena dago honetan Burunda eta Sakanako gainerako herrien artean. Dirudienez, Altsasu egon da Burundako beste herrietatik bereizita, $a \rightarrow e$ maizago gertatzen zelako herri horretan. Kandido Izagirrek (1967) bildutako lanabesetan, esate baterako, *behintzat* \rightarrow *beintzet*, *bidaldu* \rightarrow *bieldu*, *buztan* \rightarrow *buzten*, *eguraldi* \rightarrow *egueldi*, *guraso* \rightarrow

gueso, ikatz → *iketx*, *indar* → *inder*, *lizar* → *lizer*, *oilasko* → *oilesko*, *ostirala* → *ostiela*, *sukalde* → *sukelde*... agertzen dira.

Baina Altsasu eta, neurri txikiagoan, Urdiain alde batera utzita, *a* → *e* bilakaerak ez du Burundan indarririk hartu; ia batere ez Ziordian, Olatzagutian, Iturmendin eta Bakaikun. Ziurrenera, gertakari berri samarra izatea da horren arrazoia. Bonapartek (1862: 53), behinik behin, ez zuen XIX. mendearen erdian horren lekukotasunik jaso: *alabia*, *semia*, *begiya*, *ollua*, *buruba*, *aita*, *luma*, *izar*, *bular*, *etorri da*, *jaun bat* aipatu zituen Burundako adibidetako. Euskaltzaindia 1923an Euskal Herri osoan egiten hasi zen galdekizunean ere (Etxaide 1984), *a* bere horretan agertzen da Burundako erantzunetan.



2. Partizipioen bukaerako -i galtzea

Euskal Herriko beste hainbat lekutan bezala, bi silabatik gorako partizipioetan bukaerako -i galtzeko joera dago Sakana osoan. Adibide hauek bildu ditut Urdiainen:

erosi dituk → *yos tuk*

ekarri dituei ‘ekarri dituzte’ → *ekar tuei*

erakusi deat ‘erakutsi diot’ → *yakus deat*

etorri ziran ‘etorri ziren’ → *etor zian*

ibili dira → *ibil dia*

ikasi neuen ‘ikasi nuen’ → *ikas nen*

ikusi dezut ‘ikusi dizut’ → *ikus dezut*

irabazi ditut → *ibaz tut*

Adibideek erakusten dutenez, *-i* bokala galduko bada, aurretik *l, r, s* edo *z* egon behar da; ez da galtzen bestela: *erabaki dai* ‘erabaki dute’ edo *yaitzi zaira* ‘iritzi zait [iruditu zait]’ esaten da; ez **erabak dai*, **yaitz zaira*. Gainera, partizipioa bi silabakoa bada, *-i* ez da galtzen sekula: *bizi naiz*, *hasi da*, *hazi ga* ‘hazi gara’, *hezi dot* ‘hezi dut’, *jarri da...* esaten da, ez da aditzen **jar naiz* gisakorik.

Geroaldiko *-ko* morfemaren aurrean ere maiz galtzen da *-i* bokala:

etorriko → *etorko*

ibiliko → *ibilko*

ikasiko → *ikasko*

ikusiko → *ikusko*

irabaziko → *ibazko*

Baina, nabarmendu dezadan, *-i* galtzea «joera» dela; ez beti eta erabat gauzatzen den araua.

3. Bokal biltzeak: hiatoak

Euskaraz ohikoak eta esanguratsuak dira bokalak biltzerakoan gertatzen diren aldakuntzak eta Bonapartek, hain zuzen, oso kontu handiz aztertu zituen XIX. mendearen erdialdean. Hauek aurkitu zituen Burundan (Bonaparte 1862: 53): *alabia*, *semia*, *begiya*, *ollua* eta *buruba*. Beraz, bokal biltze guztietan zeuden aldakuntzak: hitza *-a* batekin bukatu eta artikuluekin biltzen zenean, *a*

→ *e* → *i* egiten zen (*alaba* + *a* → *alabea* → *alabia*), *e* → *i* eta *o* → *u* bilakatzen ziren (*semea* → *semia* eta *oiloa* → *oilua*) eta, *i* eta *u* bokalen ondoren, -*y*- eta -*b*- tartekatzen ziren (*begia* → *begiya* eta *burua* → *buruba*). Ordutik hona, ordea, gorabehera zenbait izan dira eta haxe da gaur egungo egoera.

3.1. /e + a, e, o/ → i egitea

Euskal Herri osoko hizkera askotan bezala, *e* bokala *a*, *e* edo *o* bokalekin biltzen denean, *e* → *i* egiteko joera dago eta, dirudienez, gainera, Burundan eta Sakanan barrena Euskal Herrian beste inon baino biziagoa da. Hasteko, eta ohikoa denez, hitzak artikulatu eta erakusleekin elkartzen direnean gertatzen da:

berde hau → *berdiau*

etxe hori → *etxioi*

bide hura → *bidiua*

alde horretan → *aldiortan*

larre hartara → *larriarta*

Hitz barruan ere gertatzen da adibide gutxi eta jakin batzuetan:

behatz → *bihatx*

behor → *bihor*

eho → *iyo*

lehor → *lihor*

mehatz ‘bakan’ → *bihets* (eta *mehaztu* ‘bakandu’ → *bihestu*)

Orain arte aipatu direnak gertakari arruntak dira, Euskal Herriko edozein bazterretan agertzen dira. Burundan eta Sakanako beste zenbait herritan, ordea, gauza bereziagoak aurkitu ditut. Alde batetik, hitz hasieran, bokal arteko kontsonanteren bat galdu eta bi bokalak biltzen direnean, *e* → *i* egiten da. Bitxiak dira, esate baterako, Urdiaingo ondorengo bilakaerok:

edan / *eroan* ‘eraman’ → *ean* → *yan*

edozein → *eozein* → *yozein*

egon → *eon* → *yon*

eguzki → *euzki* → *yuzki*
erakusi ‘erakutsi’ → *eakusi* → *yakusi*
erantzi → *eantzi* → *yantzi*
erantzun → *eantzun* → *yantzun*
erautsina ‘erauntsia’ → *eautsina* → *yutsina*
eraztun → *eaztun* → *yaztun*
erein → *eain* → *yain*
ereitzi ‘iritzi’ → *eaitzi* → *yaitzi*
erosi / *egosi* → *eosi* → *yosi*
hereinegun ‘herenegun’ → *eaineun* → *yainun*

Adin handiko hiztunek beste bi hitz hauetan ere egiten dute:

eragotzi → *eagotzi* → *yotzi*
eralki → *ealki* → *ialki* → *ielki* → *yelki*

Bilakaera hori dela eta, kanpotarrendako harrigarriak diren hitz bikoteak sortzen dira; esate baterako, *yan* ‘edan / eroan’ eta *jan*, *yantzi* ‘erantzi’ eta *jantzi*, *yosi* ‘erosi / egosi’ eta *josi*. Dena dela, *e* → *y* egitea ez da erabatekoa eta *e* eta *y* bata bestearekin lehian egon ohi dira: *eakusi* / *yakusi*, *ean* / *yan*, *eon* / *yon*, *eosi* / *yosi*... Adinak zerikusia dauka bata edo bestea aukeratzeko orduan: gazte jendearen artean ohikoagoak dira *yan* gisako aldaerak. Hizkeraren lastertasunak ere badauka eragina: hizkera patxadatsuan baino errazago gertatzen dira hizkera lasterrean.

Hitz hasieran ez eze, hitz barruko kontsonanteren bat galdu ondoren ere egiten da *e* → *i* aldian behin. Bilakaera hori Sakanako erdigunean da indartsua, baina urdiaindar batzuen jardunean ere gauzatzen da; gazte jendearen hizkeran gehienbat:

aberats → *abeats* → *abiats*
bera ‘hura’ → *bea* → *bia*
berandu → *beandu* → *biandu*
berar ‘belar’ → *bear* → *biar*

berotu → *beotu* → *biotu*
erderaz → *erdeaz* → *erdiaz*
euskeraz → *euskeaz* → *euskiaz*
zera → *zea* → *zia*

Erdaratik hartutako hitz jakin batzuetan ere gertatzen da:

bezperan → *bezpean* → *bezpian*
enteratu ‘jakin’ → *enteatu* → *entiatu*
esperatu ‘itxaron’ → *espeatu* → *espiatu*
patera ‘platera’ → *patea* → *patia*
papera → *papea* → *papia*

Ohikoagoa da deklinabideko NORA / NORAKO / ZERTARA kasuetan:

aurrera → *aurrea* → *aurria*
etxera → *etxea* → *etxia*
gainera → *gainea* → *gainia*
Tourrera [Frantziako lasterketa] → *Turrea* → *Turria*
lurperatu → *lurpeatu* → *lurpiatu*
biderako → *bideako* → *bidiako*
lanerako → *laneako* → *laniako*
ekartzera → *ekartzea* → *ekartzia*
jatera → *jatea* → *jatia*

Bilakaera horiek direla eta, *-e* batekin bukatzen diren hitzetan emaitza bera gertatzen da ZER eta NORA kasuetan: *etxea* / *etxera* → *etxia* /e.txjál/. Era berean, *jatea* / *jatera* → *jatia* /ja.tjál/.

-ERO atzizkia ere *-IO* egiten da maiz:

astero → *asteo* → *astio*
arratsaldero → *atsaldeo* → *atsaldio*

egunero → *eguneo* → *egunio*

larunbatero → *lanbateo* → *lanbatio*

urtero → *urteo* → *urtio*

Antzeko egoeran *gero* → *geo* → *gio* gertatzen da. Baita, jakina, *ezkero* → *ezkeo* → *ezkio* ere.

Ibilbide bera egin du konparazio perpausetako -AGO atzizkiak:

erreago → *erreo* → *errio*

hezeago → *hezeo* → *hezio*

merkeago → *merkeo* → *merkio*

Bukatzeko, esan dezadan /e + a, e, o/ → *i* egitea arau emankorra dela. Bizi-bizi dago eta erdaratik sartzen ari diren hitz berrietan ere gauzatzen da: *diretoria*, *entxufia*, *gerentia*, *hintxantia*, *kabilia*, *kutria*, *tabikia*...

3.2. /o + a, e, o/ → *u* egitea

Euskal Herri osoko hizkera askotan bezala, *o* bokala *a*, *e* edo *o* bokalekin biltzen denean, *o* → *u* egiteko joera dago. Honako hau ere bizi-bizia da Burundan eta Sakana osoan. Aurrekoan bezala, erakusleek ere eragiten dute aldakuntza:

laino hau → *lainuau*

gaixo hori → *gaixuoi*

beso horrena → *besuorrena*

Deklinabideko NORA / NORAKO / NORAINO kasuetan ere gertatzen da:

basora → *basoa* → *basua*

itsasorako → *itxasoako* → *itxasuako*

goratu → *goatu* → *guatu*

noraino → *noaino* → *nuaindo*

Oraingo honetan ere -*o* batekin bukatzen diren hitzetan emaitza bera gertatu da ZER eta NORA kasuetan: *basoa* / *basora* → *basua* /ba.swá/ edo *kanpoa* / *kanpora* → *kanpua* /kan.pwá/.

Aldian behin bokal arteko kontsonantea galdu ondoren ere gertatzen da, baina ez da ohikoa. Honako adibide hauek entzun ditut Urdiainen:


denbora → *denboa* → *denbua*

orai ‘orain’ → *oai* → *uai* → *guai*

Arau emankorra da /o + a, e, o/ → u egitea. Erdaratik oraintsu samar sartutako hitz hauek dira lekuko: *esplotaziuen*, *grupuek*, *kupua*, *mariskuek*, *mekanikua*, *patetikuek*, *patiuen*, *poligonua*, *subenziua*, *tipikua*...

3.3. /i + a, e, o/ → -y- tartekatzea

Gipuzkoako eta Bizkaiko alderdi batzuetan gehienbat, *i* eta *a*, *e* edo *o* bokalen artean -y- edo horren antzeko hotsen bat tartekatzen da. Sakana guztian izan da joera hori, baina Burundan gaur egun oso galduta dago. Urdiainen, esate baterako, adin handiko hiztunek sartzten dute noizean behin hots hori: *egiya*, *haundiya*, *herriyen*, *izugarriya*... entzun ditut tarteka-marteka bertan. Kandido Izagirrek 1960-70eko hamarkadan Altsasun jasotako hizkeran, ordea, indartsu ageri da. Baita Francisco Ondarrak garai berean Bakaikun jasotakoan ere.



Bada, dena dela, salbuespen jakin bat: INOR saileko izenordainak. Bokal arteko *-n-* galdu eta *-y-* garatu da, eta gaur egungo Urdaingo hizkeran ere bizi-bizi dago *-y-* hori: *iyuere* ‘inor ere’, *iyuerke* ‘inork ere’, *iyuare* ‘inora ere’, *iyundike* ‘inondik ere’... Beste hitz jakin batzuetan ere agertzen da: *iyesi* (eta *iesi*) ‘ihesi’, *iyetsi* (eta *ietsi*) ‘irentsi’, *iyo* ‘eho / igo’, *iyortzi* ‘igurtzi’...

3.4. /u + a, e, o/ → -b- tartekatzea

u eta *a*, *e* edo *o* bokalen artean *-b-* sartzeko joera indartsua zen XIX. mendean erdialdean, Bonaparteren garaian: *burua* → *buruba*, *eskuetan* → *eskubetan*, *duen* → *duben*, *zituen* → *zituben*. Gipuzkoako iparraldean, Bizkaiko ekialdean, Nafarroako mendebaleko alderdi batzuetan eta Lapurdiko itsasbaterrean omen zegoen joera hori (Bonaparte: *Phon*). Atzerakada handia egin du harrezkero eta, hain zuzen, Sakana izan da alderdirik gordeztaileenetako bat. Hango hiru herritan, gainera, ahoskera gogorra hartu du; hitz hasieran daukanaren antzekoa. Arbizu, Lakuntza eta Arruazu dira herri horiek (Hualde 1996: 50-53).

Burundan gaur egun arrotza da bertako bizilagun gehienen jardunean, baina bizirik eta indartsu dago 80 urte ingurutik gorako hitzunen artean. Honako adibide hauek entzun ditut horrelako urdiaindar batzuen hizketan:

neguan → *neguben*

orduan → *orduben*

peligruak → *peligrubek*

seinalatuak → *señalatubek*

lauak → *laubek*

Adizkietan ere agertzen da:

tuei ‘dituzte’ → *tubei*

genduen ‘genuen’ → *genduben* / *ginduben*

zituen → *zituben*

Jatorriz *o* zena *u* egin ondoren ere sartzen da inoiz *-b-* hori; JOAN-en adizkietan, esate baterako:

banoa → *banua* → *banuba*

doa → *dua* → *duba*

Beste bi hitz berezi ere badira. Alde batetik, *hura* erakuslea *hua* egin da bokal arteko *-r-* galduta eta, ondoren, *-b-* tartekatu eta *huba* gertatu da. Era berean, *loa* → *lua* → *luba* egin da. Kandido Izagirrek (1967) ere bildu zituen gisa horretako adibide batzuk Altsasun: *txintxuba* ‘zintzoa’, *uba* ‘hoa’, *zeguban* ‘zegoen’... Baina esan den bezala, gertakari horiek adin handiko hiztunen artean baizik ez dira aditzen; gainerakoek ez dute *-b-* hori (ia) sekula sartzen.

3.5. Hitz bukaerako *-a + au, ori, ura / a* → *i* egitea

Mendebaleko euskararen ezaugarriarik esanguratsuenetako bat da *-a* batekin bukatzen diren hitzak *au, ori, a / ura* singularreko artikulua eta erakusleekin elkartzen direnean, *a* → *e* egitea. Burundan beste urrats bat egin eta *e* → *i* gertatu da. Horren lekuko dira ondorengo adibideak:

taberna + au → *taberniau*

taberna + ori → *tabernioi*

taberna + ura → *taberniua*

taberna + a → *tabernia*

Oso eremu zabalean gauzatzen da araua: Bizkaian, Deba ibarrean, Urolaldeko hizkera batzuetan, Goierrin eta Burundan eta, jakina, Araban ere bazen antzina. Horra hor Burundako hizkera mendebaleko euskararekin lotzen duen gertakarietako bat, eta horra hor, era berean, Burundako hizkera Sakanako eta Nafarroako gainerako guztietatik bereizten duen ezaugarrietako bat. Dena dela, Ameskoa eta Lana eskualdeetan ere bazen antzina (Salaberri Zaratiegi 1998: 52).

Deklinabide singularrean gauzatzen da, lekuzko kasuetan ez besteetan. Hauda, NON, NONDIK, NONGO, NORA, NORAINO eta NORAKO kasuetan ez da gertatzen. Urdiainen, adibidez, *tabernia* ‘taberna’, *taberniek* ‘tabernak’, *taberniai* ‘tabernari’, *tabernien* ‘tabernaren’, *taberniekin* ‘tabernarekin’, *taberniengeiti(k)* ‘tabernarengatik’, *taberniendako* ‘tabernarendako’ aldaera bereziak esaten dira, baina baita *tabernan*, *tabernati(k)*, *tabernako* ‘taber-

nako / tabernarako', *taberna* 'tabernara', *tabernaindo* 'tabernaraino' aldaera orokorrak ere.

Arau emankorra da eta hitz berrietan ere gauzatzen da. Urdiainen, esate baterako, *anekdotia*, *balbulia*, *bentosia*, *bronkia*, *granjia*, *klabikulia*, *kokainia*, *kokakolia*, *inkubadoria*, *labadoria*, *ludotekia*, *pelukia*, *tortillia*, *sidia* 'HIESA', *silia* (gaztelaniaz 'silla') 'aulkia', *telegramia*, *txupia* 'jantzi mota'... jaso ditut. Senidetasuna adierazten duten bi hitz daude arautik kanpora: *aita* (ez *aitia*) eta *ama* (ez *amia*).

Gazte jendearen hizkeran indarra galtzen ari da. Erdaratik edo euskara batutik hartzen diren hitzetan ez da beti gauzatzen:

etortzen da txaranga eta gustoa

hoi izan da bilakaera

Beraz, *txaranga* eta *bilakaera*; ez *txarangia* eta *bilakaeria*.

Aipatu dugun arauaren ondorioz, beste bi gertakari sortzen dira. Alde batetik, *-e* bukaera duten zenbait hitz *-a* balute bezala hartzen dira eta, bestetik, hitzunek ondo bereizten dituzte bukaeran *-a* daukaten hitzak eta ez daukatenak. Ikus ditzagun bi gertakari horiek sakonago eta xeheago.

3.5.1. Hitz bukaerako *-e* → *-a* egitea

Gauza da *andre* + *a* → *andria* egiten den bezala, *alaba* + *a* → *alabia* egiten dela, eta *alabia* hori *alaba* hitzetik heldu denez, *andria* ere *andra* hitzetik heldu dela uste da; oker, jakina. Azken batean, berez bukaeran *-e* zeukaten zenbait hitz *-a* edukitzera aldatu dira. Nahasketa, dena dela, ez da *-e* bukaera duten hitz guztietan gertatzen; banaka batzuetan baizik ez. Hauexek aldatu dira Urdiainen:

andre → *andra*

bare (gaztelaniaz 'limaco') → *bara*

basurde → *basurda*

bele → *bela*

erbinude → *ergunera*

joare → *fara*

golde → *golda*

giltze ‘iltze’ → *giltza*

gurutze → *kutza*

lore → *lora*

ote ‘landarea’ → *ota*

udare ‘madaria’ → *udara*

zizare → *txistara*

zume → *zuma*

Nahasketa gertatzen da -KUME eta -UNE osagaia duten hitz elkartuetan ere: -KUMA eta -UNA bilakatzen dira. Hori dela eta, *antxuma*, *arkuma*, *erlaku-ma*, *otsokuma*, *txerrikuma*, *txorikuma*, *begirakuna*, *bihurguna*, *elurguna*, *hutsuna* / *husguna*, *uguna* ‘urgune’... esaten da.

3.5.2. Hitz bukaeran -a daukaten hitzak zuzen erabiltzea

Bigarren ondorio bat ere badauka *-a + a* → *-ia* egiteak: gehienetan ondo bereizten dira *-a* berezkoa duten hitzak eta ez dutenak. Aldiz, Euskal Herriko erdiguneko euskalkietan hitzunek ez daukate argi zein hitzek duen eta zeinek ez bukaerako *-a*. Hori dela eta, *-a* behar ez denean jarri eta behar denean kendu egiten da maiz. Alde batetik, *zelaia bat*, *lantegia bat*, *bi ahuntza*, *laguna batzuk*... tankerakoak entzuten dira, eta bestetik, berriz, *gauz bat*, *eliz bat*, *txorakeri bat*, *makilkada*, *ez dauka ajolik*... gisakoak. Burundan ez dira ohikoak horrelako adibideak, baina bai Burundaren mugan, Etxarri Aranatzen hasita ekialdera. Dena dela, Burundan bertan ere *-ia* bukaerako hitz gutxi batzuk *-i* bilakatu dira:

egia → *egi*

fiztia ‘piztia’ → *fixti*

kafia ‘habia’ → *kafi*

Baina salbuespen horiek gorabehera, *anaia* (eta *anai*), *animalia* (eta *animali*), *familia*, *feia* ‘feria’... esaten da, eta -KERIA atzizkia duten hitzetan

ere *-a* ondo gordetzen da gehienetan: *gaiztakeia haundia, txerrikeia galanta, zikinkeiaz beteik...* Baita *-ERIA* eta *-TURIA* atzizkietan ere: *zaborreia asko, jakinduia naurri baikua* ‘jakituria neurri gabekoa’.

4. Diptongoetako bilakaerak

Sail honetan hiru gertakari aipatuko ditut. Lehenbizi, goranzko diptongoen ugaritasuna. Bigarrenik, *-ei-* eta *-ai-* diptongoak bata bestearekin nahasteko joera eta, hirugarrenik, *-eu-* → *-au-* bihurtzeko erraztasuna. Ikus ditzagun banan-banan.

4.1. Goranzko diptongoak

Euskalki guztietan daude «beheranzko diptongo» deitu ohi direnak, hau da, *-au-*, *-eu-*, *-ai-*, *-ei-* eta *-oi-*: *gaur, euli, gai, sei, goi*. Aldiz, Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako bereizgarria da goranzko diptongoen ugaritasuna. Eredu horrekin egiten du Sakana osoak bat eta maiztasun handiz gertatzen dira *-wa-*, *-we-*, *-ja-*, *-je-*, *-jo-* diptongoak. Urdiainen, esate baterako, arauzkoa da goranzko diptongoak sortzea /-a + a/, /e + a, e, o/ eta /o + a, e, o/ bilguneetan:

izarea ‘izara [maindirea]’ → *i.za.rjá*

neskea ‘neska’ → *nes.kjá*

bidea → *bi.djá*

etxea → *e.txjá*

arkakusoa → *ar.ka.ku.swá*

kutxiloa ‘labana’ → *ku.txi.lwá*

mariskoak → *ma.ris.kwék*

niyoa ‘noa’ → *ni.ywá*

Bokal biltzeak berriak izanagatik ere gertatzen dira, hau da, bokal artean zegoen kontsonantea galdu eta gero sortutako diptongo berrietan. Ohikoak dira, esate baterako, NORA kasuan:

etxera → *etxea* → *e.txjá*

kanpora → *kanpoa* → *kan.pwá*

Aldiz, /i + a, e, o/ eta /u + a, e, o/ bilguneetan ez da sortzen diptongo-rik:

iturria → *i.tu.rrí.a*

itsua → *i.tsu.a*

Gogora dezagun oraintsu arte *-y-* eta *-b-* hotsak tartekatu direla bokal horien artean: *iturriya*, *itsuba*. Hain zuzen, horrexegatik ez da egiten diptongoa.

4.2. *-ai-* / *-ei-* arteko nahasketa

Jatorriz *-ei-* den diptongoa *-ai-* egiteko joera dago Burundan. Hona hemen Urdiaingo zenbait adibide:

ahalegina → *ahalaina*

erein → *eain* → *yain*

ereitzi ‘iritzi’ → *eaitzi* → *yaitzi*

eztei → *eztai*

gehiago → *gahio* (eta *gehiegi* → *gahiai*, *gehien* → *gahien*)

geinu ‘keinu’ → *gainu*

hareitz ‘haritz’ → *haraitz*

hereinegun ‘herenegun’ → *eainun* → *yainun*

igerikan ‘igeri’ → *iraikan*

keixa ‘gerezia’ → *kaixa*

leiho → *laiho*

Ohikoa da *-TEGI* → *-TEI* → *-TAI* bilakatzea:

artegia → *arteia* → *artaia*

erlategia → *erlateia* → *erlataia*

lantegia → *lanteia* → *lantaia*

putzutegia → *putzuteia* → *putzutaia*

sutegia → *suteia* → *sutaia*

Baita -EGI → -EI → -AI egitea ere:

beranduegi → *beranduei* → *beranduai*

goizegi → *goizei* → *goizai*

ilunegi → *ilunei* → *ilunai*

isilegi → *ixilei* → *ixilai*

luzeegi → *luziei* → *luziai*

politegi → *politei* → *politai*

Jatorriz *-ai-* dena *-ei-* egitea ere gertatzen da noizbehinka, baina Burundan ez da, inondik inora, Sakanako gainerako herrietan bezain indartsua:

erraina → *erreinia*

eskaini → *eskeini*

ezpaina → *ezpeina*

zerengaiti(k) → *zengeiti(k)*

Dena dela, *-ai-* eta *-ei-* lehian egotea da ohikoena. Hona hemen Urdiaingo bikote zenbait:

azeri → *axei* / *axai*

bageko ‘gabeko’ → *baiko* / *beiko*

baino → *baindo* / *beindo*

gainean → *gainien* / *geinien*

gaizki → *gaizki* / *geizki*

gaiztoa → *gaiztua* / *geiztua*

jaregin ‘askatu’ → *jarein* / *jarain*

larrain → *larrain* / *larrein*

leitu ‘irakurri’ → *leitu* / *laitu*

materia ‘zornea’ → *mateia* / *mataia*

oilategia → *oilateia* / *oilataia*

Adizkietan ere maiz agertzen da lehia: *tuai* / *tuei* ‘dituzte’, *zenduain* / *zenduein* ‘zenuten’, *zain* / *zein* ‘zuten’, *zenduzain* / *zenduzein* ‘zenituzten’, *zituain* / *zitudein* ‘zituzten’, *duai* / *duei* ‘didate’, *duatziai* / *duatziei* ‘dizkidate’, *zuain* / *zuein* ‘zidaten’, *laike* / *leike* ‘daiteke’... Lehia erabatekoa da IBILI-ren adizkietan: *gaitza* / *geitza* ‘gabiltza’, *zaitza* / *zeitza* ‘zabiltza’, *daitza* / *deitza* ‘dabiltza’...

Lehia dago beste ingurune batzuetan ere: *-airi* / *-eiri* aldaerak erabiltzen dira NORI pluralean (*gizonairi* / *gizoneiri* ‘gizonei’), *-ain* / *-ein* NOREN pluralean (*gizonain* / *gizonein* ‘gizonen’), eta *-gaiti(k)* / *-geiti(k)* ZERGATIK kasuan (*gizonangaiti(k)* / *gizonangeiti(k)* ‘gizonarengatik’).

Era berean, lehia daukagu beste hiru atzizki hauetan: *-bait* / *-beit* (*zerbait* / *zerbeit*), *-egi* (> *-ei* / *-ai*) (*ixilei* / *ixilai* ‘isilegi’) eta *-gai* / *-gei* (*senargai* / *senargei*).

Geroaldian, azkenik, *-ain* / *-ein* aditzen dira adineko lagunen hizketan: *emain* / *emein* ‘emanen’, *izain* / *izein* ‘izanen’, *jain* / *jein* ‘janen’, *yain* / *yein* ‘edanan / eroanen [eramanen]’...

4.3. *-eu-* → *-au-* egiteko joera

Sakana osoan dago *-eu-* → *-au-* egiteko joera. Urdiaingoak dira adibi-deak:

euli → *yauli*

huri → *yauri*

etsi → *autsi*

utzi ‘utzi’ → *autzi*

neurri → *aurri*

Bilakaera hori *EDUN-en ondorengo adizkietan ere gertatzen da:

baneu ‘banu’ → *banau*

baleu ‘balu’ → *balau*

leuke ‘luke’ → *lauke*

Dena dela, arau hori ez da dagoeneko emankorra: *euro*, *eutanasia*, *neumatiko*, *neurona*... esaten da; ez da aditzen *auro*, *autanasia*, *naumatiko*, *naurona* gisakorik.

5. Bokal luzeak

Sakanako erdigunean maiz aditzen dira bokal luzeak. Burundan ez dira horren ohikoak eta betiere adin handiko lagunen hizkeran agertzen dira. Bi egoeratan gertatzen dira. Alde batetik, bokal arteko kontsonanteren bat galdu denean; /b, d, g, r/ gehienbat: *badaezpada* → *baazpada*, *bota arazi* → *botaaazi*, *ere* → *ee*, *kurutza* ‘gurutzea’ → *kuutza*, *nere* ‘nire’ → *nee*, *pixka bat* → *pixkaat*...

Balio adierazgarriarekin erabiltzen ditu maiz jende nagusiak, zerbait indartu nahi duenean: *aaasko* ‘asko’, *baaarre* ‘barre handiak’, *beeero* ‘bero handia’, *beeeti* ‘oso behetik’, *daaana* ‘den-dena’, *daaanok* ‘den-denok’, *eederra* ‘eder-ederra’, *fueertia* ‘oso gogorra’, *gaaahio* ‘askozaz gehiago’, *gaaarrasiz* ‘garrasi handiak eginez’, *geeeiztua* ‘oso gaiztoa’, *gooora* ‘oso gora’, *gooorra* ‘oso gogorra’, *gooozua* ‘gozo-gozoa’, *guuustua* ‘oso gustura’, *hauuundia* ‘oso handia’, *hoooi* ‘hori berori’, *ikeaaarrizko* ‘ikaragarritziko’, *iiiruti* ‘oso urruti’, *iiizugarri* ‘izugarria zinez’, *kooorrikan* ‘ziztu bizian’, *leheertu* ‘erabat lehertu’, *looodiek* ‘lodi-lodiak’, *loootan* ‘erabat lo’, *maaajua* ‘oso ederra’, *oona* ‘on-ona’, *oosoo* ‘oso’, *peeenia* ‘pena handia’, *poolita* ‘oso polita’, *pooozik* ‘poz-pozik’, *txaaarra* ‘txar-txarra’...

6. Garatu gabeko arauak

6.1. Bokal galtzeak: aferesiak eta sinkopak

Partizipioetan *-i* galtzeko joera alde batera utzita, gainerako bokal galtzeak ez dira ohikoak Burundan. Aldiz, gertakari hori oso arrunta da euskara nafarrean, bai hitz hasieran eta bai hitz barruan. Hitz hasieran *ekarri* → *karri*, *eman* → *man*, *etorri* → *torri*, *iturri* → *turri*, *izan* → *zan* / *zandu*... tanke-rakoak entzuten dira Nafarroan barrena, eta hitz barruan, berriz, *aberats* →

abrats, abere → *abre*, *abisatu* → *abistu*, *arratsean* → *artsian*, *atera* → *atra*, *batere* → *batre*, *harrapatu* → *harpatu...* gisakoak. Burundan oso adibide gutxi eta jakin batzuetan baizik ez dira gertatzen bokal galtzeak. Hona hemen Urdiaingoak:

andere → *andra*

bederatzi → *bedratzi*

hanka hutsetan ‘oinutsik’ → *hankustan* (eta *manga hutsetan* → *mankustan*)

ijito → *jito*

korrala (gaztelaniaz ‘corral’) ‘ardiendako itxitura’ → *korlia* (eta *korrelia*)

lehenbiziko → *lehenbizko* (eta *lehenbiziko*)

pezeta [aspaldiko diru unitatea] → *pezta*

txerrizai → *txerzai*

Garai batean *izeko* ‘izeba’ → *izko* ere egiten omen zen Urdiainen, baina gaur egun gaztelaniako *tia* erabiltzen da.

Sakana osoan ere ez dira ohikoak hitz hasierako eta hitz barruko bokal galtzeak, baina ekialdera egin ahala —Uhartan eta Irañetan— maizago gertatzen da (Erdozia 2001a: 120-121).

6.2. *e* → *a* egitea dardarkari azkarraren aurrean

Hitz jakin batzuetan *e* → *a* egiteko joera dago dardarkari azkarraren (*rr*) aurrean. Hauexek bildu ditut Urdiainen:

bazter → *baztar*

eguerdi → *eguardi* (eta *eguerdi*)

haserre → *hasarre*

infernu → *ifarnu*

izerdi → *izardi*

izter → *iztar*

maizter → *maiztar*

musker → *muskar*

pitxer → *pitxar*

uzker ‘puzker’ → *uzkar*

Burundatik ekialdera, Sakanan barrena, *baztar* eta *hasarre* hitzetan baikik ez dut bilakaera hori aditu, baina Lizarragan (Ergoiena), behinik behin, *ear* ‘eder’ eta *eguardi* ‘eguerdi’ ere esaten omen dira (Navarro, Navarro eta Andueza 2008).

6.3. *o* → *u* egitea

Gehienbat *n* eta *r* kontsonanteen aurrean, *o* → *u* egiten da zenbait hitzetan:

amorratu → *amurratu*

eskopeta → *eskupeta*

hondatu → *hundatu*

izorratu → *izurratu*

lanbroa → *lanburra*

ontzi → *untzi* (eta *ontzi*)

tronko ‘enborra’ → *trunku*

Erabatekoa da *nun* ‘non’ izenordainean eta haren eratorrietan: *nunbait*, *nundi(k)*, *nungo*... INOR izenordainaren eratorrietan ere gertatzen da: *iyuere* ‘inor ere’, *iyuerke* ‘inork ere’, *iyuare* ‘inora ere’, *iyundike* ‘inondik ere’, *iyurkekine* ‘inorekin ere’...

Burunda osoko grabazioetan *attuna* ‘aitona’ aditu dut, baina gaur egun gaztelaniako *abuelo* nagusitu da. Dena dela, *attundu* erabiltzen da ‘zahartu’ esanahiarekin. Garai batean, era berean, *aita puntako* eta *ama puntako* (< *aita ponteko* / *ama ponteko*) ‘aitabitxi / amabitxi’ esaten zen, baina oraingo

honetan ere gaztelaniako *padrino* eta *madrina* nagusitu dira. Adineko lagunen hizketan, azkenik, *muxila* aditzen da (gaztelaniaz ‘mochila’).

Esan dezadan, honen harira, *o* → *u* gertatu den adibide horiekin batera, alderantzizko bidea egin duen *nagosi* ‘nagusi’ aldaera erabiltzen dela Burundan. Era berean, *iyortzi* ‘igurtzi’ esaten da Sakanan.

6.4. *i* eta *u* bokalen arteko asimilazioak eta disimilazioak

Bi silabatik gorako hitzetan ohikoak dira *i* eta *u* bokalen arteko asimilazio eta disimilazioak (Mitxelena 1961 [1977]: 79-81). Ondorengo hauek aurkitu ditut Burundan:

giltzurrun → *bultzurrun*

ukitu → *ikutu*

urruti → *irruiti*

biluzgorri → *biliskorri* (> Urdiainen *piliskorri*)

Garai batean *unide* ‘inude’ ere esaten zen, baina gaur egun galduta dago hitza. Euskal Herriko ekialdean esaten den aldaera horrek zaharra ematen du (**ume* + *ide* → *unide*) eta berria, aldiz, erdialdeko *inude* aldaerak.

6.5. Hitz bukaerako *-un*

Hitz bukaeran *-un* dago Burundan, eta ez *-uin* / *-in*, ondorengo lau hitzotan: *asun*, *bi(g)un*, *lurrun*, *mun*. Bakaikun, hala ere, *lurrin* entzun dut.

6.6. Diptongoetan *-ai-* → *-i-* eta *-au-* → *-a-* / *-o-* / *-u-* egitea

Diptongo soilte jakin batzuk gertatu dira. Gehienbat, *-ai-* → *-i-* eta *-au-* → *-a-* / *-o-* / *-u-* egin dira, Euskal Herri osoan bezala. Adibide hauek jasotutakoak Urdiainen:

apaiz → *apiz* (Altsasun *apaiz*)

gaztaina → *gaztina*

lirain → *lirin*

Urdiain → *Urdin* (eta *Urduindik*, *Urduingo*, *Urdinea* ‘Urdiainera’,
urdintar...)

aulki → *alki*

jaungoiko → *jangoiko*

larunbata → *launbata* → *lanbata*

laurogei → *larogei*

arrautza → *arrantza*

inaute → *diote*

intxaur → *intxor*

basaurde → *basurda*

erautsina ‘erauntsia’ → *yutsina*

ziraun → *ziun* (Altsasun *zirin*)

Bestalde, Ziordia eta Urdiain bitarteko hizkeretan erabatekoa izan da *-au-* → *-u-* egitea EDUKI-ren adizkietan: *dukat* ‘daukat’, *dukazu* ‘daukazu’, *duka* ‘dauka’, *dukai* ‘daukate’...

6.7. *i* bokala erantsi eta diptongo berriak sortzea

Hiru hitzetan ikusi dut gertakari hori:

azken → *aizken* (eta Urdiainen *azkeinekua* ‘azkenekoa’)

laster → *laister*

herenegun → *hereinegun* → *eainun* → *yainun*

7. Aldaerak

Hitz jakin batzuek itxura berezia erakusten dute Burundan. Hona hemen zein diren:

7.1. Diptongo zahar zenbait gorde dira:

eutzi ‘utzi’ → *autzi**hamaika* (ez *hameka*, *hamaka*)*hareitz* ‘haritz’ → *haraitz**ereitzi* ‘iritzi [ustea]’ → *yaitzi*7.2. Sakana osoan erabiltzen dira diptongorik gabeko bi aldaera: *fiesta* eta *leize* esaten da; ez *fiesta*, *leize*.7.3. Euskal Herriko beste bazter askotan bezala, *handi* → *haundi* egin da Sakanan eta, ohikoaenez, *paso* ‘urratsa’ → *pauso*. Era berean, *antzu* → *auntzu* (eta *antzutu* → *auntzutu*) aldatzen da.

7.4. Asimilazio edo bokal berdintze hauek gertatu dira Burundan:

ageri → *agiri* → *agi**apika* ‘nonbait’ → *apiki**atera* → *atara* → *ata**behar* → *ber**bekala* → *bekela* (eta *bezala* → *bezela*)*gisugile* ‘igeltsero’ → *kisibile* (eta *kisubile*)*omen* → *emen* (eta *omen*)*zuek* → *zek* (eta *zuei* → *zeiri*, *zuen* → *zen*, *zuekin* → *zekin*, *zuen-dako* → *zendako*...)*zuldar* ‘abereen larruko gaitza’ → *zuldur**zuztar* → *zuztur* (eta *azazuztur*, *ointozuztur* ‘onddozuztar’...)7.5. Metatesi edo bokalen leku aldatze adibideak dira ondorengoak: *beinke* (gaztelaniaz ‘bien que’), *eskuaz* ‘euskaraz’ (eta *eskualdun* ‘euskaldun’), bai-na baita *euskiaz* ere.

7.6. Hona hemen Burundako beste zenbait aldaera esanguratsu:

alkar ‘elkar’*apiz* / *apaiz* Altsasun (ez *apez*)

bildur ‘beldur’

burruka ‘borroka’

erruki (ez *urriki*)

etzin ‘etzan’

itxi (ez *hetsi*, *hertsi*)

izu(garri) (ez *izigarri*)

tintin ‘tanta’

Esan dezadan, bukatzeko, Burundan eta Sakanako beste hizkera batzuetan *negar* erabiltzen dela; ez *nigar*. Urdiainen, dena dela, *ñear* (eta *ñear-guria*) esaten da.

II. KONTSONANTEAK

1. Asimilazio bustidura eza

Asimilazio bustidura eza da Burundako ezaugarririk esanguratsuenetako bat, hau da, *i* bokalak ondorengo kontsonanteetan eraginik ez izatea. Aldiz, Euskal Herriko alderdi askotan honako aldakuntzok sortu ohi dira: $i + l \rightarrow ill$ (*mutila* \rightarrow *mutilla*), $i + n \rightarrow i\tilde{n}$ (*irina* \rightarrow *iriña*), $i + t \rightarrow itt$ (*ditu* \rightarrow *dittu*), $i + ld \rightarrow illdd$ (*bildu* \rightarrow *billddu*), $i + lt \rightarrow illtt$ (*ibiltzen* ‘ibiltzen’ \rightarrow *ibilltten*), $i + nd \rightarrow i\tilde{ndd}$ (*indar* \rightarrow *iñddar*), $i + nt \rightarrow i\tilde{ntt}$ (*gintuen* \rightarrow *giñttuen*)... Indartsuago edo makalago, Euskal Herri gehiengan egiten da bustidura. Eskualde hauek gelditu dira eremutik kanpora: Lapurdi eta Nafarroa Behere gehiena, Erronkari, Aezkoa eta Burunda (argibideak, Zuazo 2008: 243-247).

Harritzekoa da Burundakoa, bere inguru guztiko hizkeretan indartsua delako bustidura: Etxarri Aranatzen bertan hasi eta Sakana osoan barrena, eta iparraldean daukan Goierri eskualde gipuzkoarrean. Burundan, hain zuzen, egoerarik egokienetan ere saihestu egiten da bustidura. Alde batetik, *l* eta *n* dira errazen bustitzen diren kontsonanteak eta, bestetik, bi kontsonante horiek *j* bokalardiaren eta beste bokal baten artean daudenean gertatzen da lasterren. Egoera horretan egonda ere, Urdiainen *ailubi* ‘marrubi’, *gailur*, *maila*, *mailu*, *otsaila*, *zaila*, *bekaina*, *erreinia* ‘erraina’, *eskeini* ‘eskaini’, *ezpeina* ‘ezpaina’, *gainien* ‘gainean’, *laino*, *larraina*, *oinez*, *soina*, *soinu*, *yozeinek* ‘edozeinek’, *zaina*... esaten da. Era berean, -T(Z)AILE atzikia bere horretan esaten da: *hartzaile*, *laguntzaile*, *yakustaile* ‘erakustaile’, *yostaile* ‘erostaile’...

Baina bustidura ez egiteaz gainera, erdaratik hartu eta erdaraz -*ll*- eta -*ñ*- daukaten hitz zenbaitetan ere $ll \rightarrow il$ eta $\tilde{n} \rightarrow in$ egin da Burundan. Horren lekuko dira Urdiaingo adibide hauek:

allegar ‘heldu’ \rightarrow *ailatu*

botella \rightarrow *botila* (eta *botella*)

caño ‘hodia’ \rightarrow *kainu*

castaña ‘gaztaina’ \rightarrow *gatzina*

cepillo ‘elizako diru ontzia’ \rightarrow *zepilu*

cuadrilla ‘taldea’ \rightarrow *kuadrila* (baina gazteek *kuadrilla*)

cuchillo ‘ganibeta’ → *kutxilo*

cuñada / cuñado ‘koinata / koinatua’ → *goinata / goinatu*

daño ‘mina’ → *dainu*

estaño → *eztainu*

guiño ‘keinua’ → *gainu*

grulla (?) → *kurrilo*

ladrillo ‘adreilua’ → *ladrilu*

parrilla → *parrila*

pollo (?) → *oilo* (eta *oilar*, *oilagor*, *basoilar*, *oilasko*, *oilanda*)

portillo ‘mendatea’ → *portilo*

silla ‘aulkia’ → *sila*

toquilla → *tokila*

Latineko *tegula*, era berean, *tella* egin zen erromantzean, eta *teila* (eta *teilatu*) itxurarekin egokitu da Burundan. Francisco Ondarrak (2005), gainera, *manzelina* (gaztelaniaz ‘manzanilla’) ‘kamamila’ jaso zuen Bakaikun. Nabarmentzekoa da *l* eta *n* kontsonanteek euren lekuak aldatu dituztela, Euskal Herriko beste alderdi askotan gertatzen den bezala. Aipa dezadan, honen harira, Euskal Herriko hizkera askotan *onddo* / *ontto* esaten dena, Burundan *ointo* dela. Era berean, *mila*, *subandila* ‘sugandila’ gisakoak esaten dira, betiere busti gabe.

Gaur egun gaztelaniatik hartzen diren hitzetan ez da erabat emankorra *ll* → *il* eta *ñ* → *in* aldatzea eta ohikoak dira *bonbilla*, *deskansillo*, *gindilla*, *hornillo*, *makillaje*, *manilla*, *maskarilla*, *muelle*, *pasillo*, *señal*, *toalla*, *tortilla*, *trilladora*... ahoskerak. Dena dela, mailegu berri batzuetan busti gabeko aldaerak ere esaten dira: *pastila* (eta *pastilla*) eta *zepiladoria* (gaztelaniaz ‘cepilladora’), esate baterako. Baita euskara batutik hartutako hitzetan ere: *bilera*, *ekaina*, *iraila*...

Esanak esan, *i + s* → *ix* eta *i + ts* → *itx* bustidurak Burundan ere gertatzen dira. Urdiainen entzundakoak dira ondorengoak:

adiskide → *aixkide*

bista → *bixta* (eta *bista*)
fiztia ‘piztia’ → *fixti*
fistu ‘ziztu’ → *fixtu* (eta *fistu*)
gisa → *kixa*
irristatu → *irrixatu*
isila → *ixila*
kiskali → *kixkali*
txisa ‘pixa’ → *txixa* (eta *txisa*)
itsaso → *itxaso*
jaitxi → *jaitxi*

Bereziki nabarmentzekoak dira, gainera, *aitxur* ‘aitzur’ eta *kaixa* ‘ge-zezia’ aldaerak; horietan *tz* eta *z* busti dira.

2. [x] ahoskera

Gipuzkoan, Bizkaiko ekialdean eta Nafarroako mendebaleko hizkera batzuetan [x] ahoskera nagusitu da euskal hitzen hasieran, idatzian <j> bidez adierazi ohi dena. Sakana osoak egin du aldakuntza horrekin bat. Hona hemen Urdiaingo zenbait adibide: *jabe*, *jagi* ‘jaiki’, *jai*, *jainko*, *jaio*, *jaitxi*, *jakin*, *jan*, *jangoiko* ‘jaungoiko’, *jantzi*, *jarein* ‘askatu’, *jarri*, *jator*, *jaso*, *jaun*, *jo*, *jolas*, *jorratu*, *josi*, *jostai* ‘trumoia, ostotsa’... Erdaratik hartutako hitzetan ere, jakina, ahoskera horixe dago, baita mailegu zaharretan ere: *jende*, *joko*..., baina *txara* (gaztelaniaz ‘jara’) eta *txunga* (gaztelaniaz ‘junco’) ‘ihia’ esaten da.

Burundan, bestalde, *sagona* ‘xaboia’ esaten da. Latineko *sapone* da horren jatorria, eta halaxe esaten da zenbait hizkuntza erromantzetan: frantsesez *savon*, portugesez *sabão*... Jose Ignazio Hualde irakasleak ohartarazi didanez, XIV-XV. mende inguruetan aldatu zen hasierako hotsa gaztelaniaz eta, beharbada, aldaketa hori gertatu aurretik, XV. mendea baino lehen sartu zen hitz hori euskarara.

Hitz barruan ere [x] ahoskera dago *aje*, *ajola* — baina Altsasun *ajola* eta *afola* —, *etxajua* ‘suziria’ — Altsasun *etxafua* — eta *gizajo* hitzetan. Urdiainen

itajun ‘itogina’ esaten da eta Altsasun ere *itojin* esan izan da. Bakaikun *j / f* lehia dago: *itajura / itujara / itufara*. Olatzagutian ere *-f-* zegoen: *itofin*. Nabarmentzekoa da *-y-* egotea JOAN-en adizkietan: *niyua* ‘noa’ eta *diyua* ‘doa’, euskara giputzeko *nijua*, *dijua* tankerakoen ordez.

Bestalde, hitz hasieran **joa-* → *fa-* bilakatu da *fan* ‘joan’ eta *fara* ‘joare’ hitzetan. Pertsona izenetan ere *Fan* ‘Juan’ eta *Fakina* ‘Joaquina’ izan omen dira, baina gaur egun aldatu gabe esaten dira. Iturmendin eta Bakaikun, gainera, *forratu* ‘jorratu’ esaten da, Sakanako beste alderdi batzuetan bezala.

Aipa dezadan, era berean, Sakana guztiko *jaunka* ‘(txakur) zaunka’ aldaera. Urdiainen —baina Lizarragan ere, behinik behin, bada (Navarro, Navarro eta Andueza 2008)— *lijitua* (gaztelaniaz ‘lícito’) esaten da. Aldiz, *saski* orokorra esaten da Urdiainen, baina *jaski / jeski* Burundako gainerako herrietan eta Sakanan barrena. Burundan, azkenik, *zajau* (latinez ‘sabanum’) aditzen da ‘ahozapi’ esanahiarekin. Bizkaian ere erabili izan da hitz hori, *zamau* itxurapean, ‘ahozapia’ nahiz ‘mahai-zapia’ esateko.

Esan dezadan, sail hau bukatzeko, hitz hasieran *j-* → *k-* egin dela Urdiainen *Kazinto* (eta *Jazto*) ‘Jazinto’ eta *kikara* (gaztelaniaz ‘jícara’) hitzetan, baina *jikara* eta *jikera* aditu ditut Bakaikun. Sakanan barrena ere ezaguna da aldaera zahar hori.

3. /f/ ondo gordetzea

Gutxi gorabehera hitz hasierako [x] ahoskera nagusitu den eremu berdintsuan, *f* → *p* egiteko joera zabaldu zen antzina, baina gaur egun ihartutako araua da; ez dauka dagoeneko bizitasunik. Burundara, dena dela, ez zen berrikuntza hori heldu, eta ezta Sakanako gainerako alderdietara ere. Hona hemen Urdiaingo zenbait adibide: *afizio*, *desafio*, *falso*, *falta*, *familia*, *fanfarron*, *farol*, *fede*, *feia* ‘feria’, *ferra* (eta *ferratoki*, *ferratzaile*), *festa*, *fosforo*, *fraile*, *franko* ‘asko’, *fresko*, *furi-furien* (gaztelaniaz ‘furia’) ‘puri-purian’, *ifarnu* ‘infernua’, *konfesatu*, *konfiantza*, *konforme*, *ofizio*... Beste hitz hauetan ere /f/ dago Burundan: *afai* ‘afari’, *alfer*, *fixti* ‘piztia’, *kafi* ‘habia’, *nafarreia* ‘elgorria’ esanahiarekin. Altsasun, gainera, *safai* ‘sabai’ ere bazen (Izagirre 1967).

Burundan *pantalona* hitza baliatzen da, ez mendebaleko *praka*; ‘brageta’ esateko, ordea, *frakatokia* erabiltzen da. Burundako deituetan, gainera, ohikoa da *Zufiaurre* ‘Zubiaurre’, baina gaur egungo jardunean *zui* ‘zubi’

esaten da, Sakanako beste alderdi batzuetan bezala. Beste aldaera honetan ere *f-* dago: *fixtu* ‘ziztu’.

Dena dela, *p* duten adibide gutxi batzuk ere badira. Hauexek bildu ditut Urdiainen: *ipar* (eta *iper*), *pago*, *pattal* (gaztelaniaz ‘fatal’), *paxo* (gaztelaniaz ‘fajo’) ‘sorta’ (*dirupaxo*, *lorapaxo*...) eta *piku*.

4. Txistukariak ondo bereiztea

Burundan ondo bereizten dira lau txistukariak. Gehienbat *p*, *k* eta, batez ere, *t* kontsonanteen aurrean egon ohi da $z \rightarrow s$ egiteko joera, baina ingurune horietan ere *z* zuzen ahoskatzen da: *aguztu*, *ahaztu*, *baztar* ‘bazter’, *buztan*, *buztin*, *eztai* ‘eztei’, *eztainu* (gaztelaniaz ‘estaño’), *eztarri*, *ezti*, *eztul*, *gaipto*, *gaztai* ‘gazta’, *gaztanbera*, *gazte*, *gaztina* ‘gaztaina’, *guzti*, *orraztu*, *poztu*, *uztai* eta *uztarri* entzun ditut Urdiainen. EZ partikula hasieran *d-* duten adizkiekin biltzen denean ere garbia da ahoskera hori: *eztaki* ‘ez daki’, *eztot* ‘ez dut’, *eztau* ‘ez du’...

Hitz bikoteak ere argiro bereizten dira: *esker* / *ezker*, *hasi* / *hazi*, *hesi* / *hezi*, *su* / *zu*, *atso* / *atzo*, *autsi* ‘eutsi’ / *autzi* ‘utzi’, *etsi* / *etzi*... Nahasketa gertatu den bi adibide aurkitu ditut, dena dela: *bihets* ‘mehatz [bakan]’ (eta *bihestu* ‘mehaztu [bakandu]’) eta *piliskorri* ‘biluzgorri’.

5. *-n-* → *-nd-* egitea

Burundako bereizgarria da *-n-* → *-nd-* egitea zenbait hitzetan; *baino* → *baindo*, esate baterako. Halaxe da IZAN-en adizki hauetan ere:

ginan ‘ginen’ → *gindan*

zinan ‘zinen’ → *zindan*

zinain ‘zineten’ → *zindain*

Deklinabidean *-RAINDO* esaten da Burundan, baina Rudolf de Rijk (1992: 707-708) hizkuntzalariaren iritziz, kasu horretan *-nd-* zaharragoa da *-n-* baino:

noraino → *nuaindo*

etxeraino → *etxiaindo*

heldu dan urteraino ‘heldu den urtea arte’ → *heldu’an urtiaindo*

Urdiainen eta Iturmendin, gainera, *domeka* ‘igandea’ → *donbeka* bihurtzen da hitzun batzuen jardunean.

6. Herskariak eta dardarkariak

/b, d, g, p, t, k/ kontsonante herskariaren jokabidea oso aldakorra da Euskal Herrian barrena. Burundako aukerak ikusiko ditugu eta, horretarako, kontsonante horiek hitz hasieran edo hitz barruan dauden hartuko dugu kontuan.

Hitz batzuen hasieran herskari ahostunak (*b-, d-, g-*) erabiltzen dira Urdiainen: *bake, barkatu, barre, danbor* (eta *danbolin*), *dermio* (gaztelaniaz ‘término’) ‘arloa’, *dolestu / dolostatu* ‘tolestu’, *dorre, gainu* ‘keinu’, *galtza* (gazt. ‘calza’), *galtzada* (gazt. ‘calzada’), *ganbara, ganbio* (eta *ganbiatu*), *garraxi, garzela* (gazt. ‘cárcel’), *garesti* (> *gasti*) (gazt. ‘cares-tía’), *gatzelu, gatzina* ‘gaztaina’, *girten* ‘kirten’, *goinatu* eta *goinata* (gazt. ‘cuñado’ / ‘cuñada’), *gonbestazio* (gazt. ‘conversación’), *gonbiatu* (gazt. ‘convidado’), *gonbinaziua* (gazt. ‘combinación’), *gorputz, gostatu* (gazt. ‘costar’)...

Oso aldaera bereziak ere badaude: *galte* ‘kalte’ —gaur egun Burundan baizik ez da erabiltzen, baina Bizkaian eta Araban ere bazen antzina— eta *gata* ‘katea’ —Ipar Euskal Herriko alderdi batzuetan ere bada. Urdiaingo adinekoen hizketan beste bi hauek ere entzun ditut: *dalo* ‘talo’ (eta *dalobur-ni, dalola*) eta *goru* ‘elizako korua’.

Beste hitz batzuetan, berriz, herskari ahoskabeak (*p-, t-, k-*) erabiltzen dira. Nabarmentzekoa da, gainera, erdaraz ahostuna duten hitz batzuek ahoskabea hartu dutela Burundako euskaran: *kaixa* ‘gerezia’, *katilu, katu* (gazt. ‘gato’), *kisu* ‘gisu [igeltsua]’, *kixa* ‘gisa’, *koilara, kolko, korotz* ‘gorotz’, *kosti* ‘gorosti’, *kupitu* ‘gupitu’, *kurrilo* (gazt. ‘grulla’), *kutza* ‘gurutze’, *pago, paltsa* (gazt. ‘balsa’), *partz* ‘bartz’, *pazko, pekatu* ‘bekatu’, *pertz, piliskorri* ‘biluzgorri’, *piper, pits* ‘bits [aparra]’, *pitxia* ‘bitxia’, *piztu* (eta *pixkor*), *polsa* (gazt. ‘bolsa’ / ‘bolsillo’), *portu* ‘mendatea’, *poto* (gazt. ‘bote’), *poz, titara* (gazt. ‘dedal’), *titi, tresondagarri* ‘desondagarri’... Ahoskabe eta ahostunaren arteko lehia dago *galbaiyo / kalbaiyo* hitzean (gazt. ‘calvario’).

Oso ohikoak izaten dira herskari ahostunen (*b*, *d*, *g*) eta *r* konsonantearen arteko nahasketak. Hauexek esaten dira Urdiainen: *babatxui* ‘baratxuri’, *bageko* ‘gabeko’ (> *baiko* / *beiko*), *bultzurrun* ‘giltzurrun’, *er-gunera* ‘erbinude’, *eroki* ‘egoki’, *kisibile* ‘gisugile’, *nago* ‘nabo [arbia]’, *odoldio* ‘goroldio’, *sagona* ‘xaboia’, *sube* (eta *suge*), *subandila* ‘sugandila’. Altsasun eta Bakaikun, gainera, *abuztu* ‘agosto’ (*aguztu* Urdiainen), *buexak* ‘guraizeak’ (*buexak* eta *guexak* Urdiainen), *sugur* ‘sudur’ (*sur* Urdiainen), eta *ubazaita* eta *ubazama* ‘ugazaita’ / ‘ugazama’ esan izan da. Ohikoa ez den arren, ahoskabeak ere bata bestearekin alda daitezke: *aitatu* ‘aipatu’ esaten da Burundan. Horrekin batera, Burundako hizkera batzuetan eta mendebaleko euskaran gorde den *kipula* ‘tipula’ aldaera zaharra nabarmendu behar da.

Ohikoa da antzinako hasperenaren ordeztu *g* edo *b* esatea. Horren lekuko dira Urdiaingo *ago* ‘aho’, *agotz* ‘ahotz’, *egun* ‘ehun’ eta *ubal* ‘uhale’. Izaskun Etxeberriak (1986), gainera, *egunzale* ‘ehulea’, *igesi* ‘ihesi’, *ubalde* ‘uholde’ eta *Uberte* ‘Uharte Arakil’ jaso zituen Altsasun. Esan dezadan, bide batez, *-g-* tartekatu dela *legun* ‘leun’ hitzean.

Euskal Herri osoan gertatzen da bokal arteko herskari ahostunak (*b*, *d*, *g*) eta *r* galtzea. Galtze batzuk aukerakoak dira: hizkera lasterrean galdu eta patxadatsuan gorde egiten dira. Beste batzuetan, ordea, galtze horiek erabatekoak dira. Urdiainen, esate baterako, bilakaera hauek gauzatu dira: *aditu* → *aitu*, *atera* → *ata*, *bidaldu* → *bialdu*, *egin* → *ein* / *in*, *egon* → *eon* / *yon*, *eguzki* → *yuzki*, *erosi* / *egosi* → *eosi* / *yosi*, *ezagutu* → *ezautu*, *gorosti* → *kosti*, *gurutze* → *kutza*, *irabazi* → *ibazi*, *irina* → *ina*, *orai* ‘orain’ → *uai* → *guai*, *sagar* → *sar*... Erabatekoa da *-b-* galtzea IBILI-ren adizkietan: *nail*, *zaitza*, *daile*... Bada, gainera, aldaera berezi bat: *zui* ‘zubi’ esaten da Sakanan. Esan dezadan, honen harira, herskaririk gabeko *odoldio* (ez *goroldio*), *okotz* (ez *kokots*) eta *uzkar* (ez *puzker*) erabiltzen direla Sakanan.

Dardarkari azkarra (*rr*) ez da galtzen, baina Euskal Herriko beste leku askotan bezala, *atsalde* ‘arratsalde’ esaten da Sakana osoan. Burundan, gainera, erabat galtzen da EKARRI-ren adizkietan: *dekat*, *dekazu*, *deka*, *dekagu*, *nekan*, *zekan*, *gendekan*... gisakoak esaten dira. Adibide horiekin batera, ordea, *berriz* erabiltzen da, nahiz eta Burunda ondoko Goierriko eta Sakanako beste hizkera batzuetan *beiz* / *beix* bilakatu den. Bada, gainera, *r* → *rr* egin den hitz bat: *perrejilia* (gaztelaniaz ‘perejil’).

7. Kontsonante multzoak

7.1. *l*, *n* eta *r* ondoren *z*

Euskal Herri gehiengan dago *l*, *n* eta *r* ondoren $z \rightarrow tz$ egiteko joera hitzak elkartzen direnean: *egin zuen* \rightarrow *eintzuen*. Burundako euskara berrikuntza horretatik kanpo gelditu da eta, mendebaleko euskalkian bezala, *z* esaten da: *han zon* ‘han zegoen’, *eman zeaun* ‘eman zigun’, *esan zuan* ‘esan zidan’, *ezin zan* ‘ezin zen’, *fan zaigu* ‘joan zaigu’, *hil zan* ‘hil zen’, *zer zan* ‘zer zen’... Berdin gertatzen da Sakanako gainerako alderdietan, baina Jose Luis Erdoziaren (2001a: 150) esanetan, Arbizun eta Ergoienean *tz* ere ahoskatzen da aldian behin. Halaxe da Lizarragan (Ergoiena), oraindik orain bildutako albisteen arabera: ikus Navarro, Navarro eta Andueza 2008.

7.2. EZ + adizkiak

EZ partikula adizkiekin elkartzen denean, gainerako euskalkietan bezalatsu jokatzen da gehienetan, baina sail honetan ere badira gertakari bereziak:

7.2.1. EZ + *b*-, *d*- elkartzen direnean, $b \rightarrow p$ eta $d \rightarrow t$ egiteko joera dago Sakanan. Hona hemen Urdiango lekukotasuna:

ez da \rightarrow *ezta*

ez dakit \rightarrow *eztakit*

ez dot ‘ez dut’ \rightarrow *eztot*

ez baginda ‘ez bagina’ \rightarrow *ezpaginda*

ez balau ‘ez balu’ \rightarrow *ezpalau*

EZ + *g*- biltzen denean, ordea, *g* bere horretan gordetzen da Sakanan. Halaxe da Urdiainen ere:

ez gara \rightarrow *ez ga*

ez genduen ‘ez genuen’ \rightarrow *ez genduen*

ez geunden \rightarrow *ez genden*

7.2.2. EZ + *h-* / *y-*, *l-*, *n-* elkartzen direnean, *z* → ∅ egiteko joera dago Sakanan. Urdiaingoak dira adibideak:

ez habil → *ehabil*

ez hago → *ehago*

ez hintzan ‘ez hintzen’ → *ehitzan*

ez yua ‘ez hoa’ → *eyua*

ez yeuen ‘ez huen’ → *eyen*

ez leuke ‘ez luke’ → *elauke*

ez legoke → *eloke*

ez naiz → *enai*

ez neuen ‘ez nuen’ → *enen*

7.2.3. EZ + *z-* elkartzen denean, bereizi egiten da jokabide nagusitik. Euskal Herri gehienean *tz* egiteko joera dago. Sakanan, ordea, ez da aldakuntza hori gauzatzen eta *z* esaten da. Halaxe da Urdiainen ere:

ez zara → *eza*

ez zan ‘ez zen’ → *ezan*

ez zain ‘ez zuten’ → *ezain*

ez zindan ‘ez zinen’ → *ezindan*

ez zegoen → *ezon*

7.2.4. EZ + **j-* → *tx*. Geroago ikusiko denez, Burundan badira *j-* duten hita-noko adizkiak. Adizki horiek EZ partikularekin elkartzen direnean, *tx* gertatzen da, mendebaleko euskalkian bezala:

ez jakiat ‘ez zakiat’ → *etxakiet*

ez jok ‘ez zagok’ → *etxok*

ez jukat ‘ez zaukat’ → *etxukat*

8. Garatu gabeko arauak

8.1. *-st-* kontsonante multzoa

Mendebaleko eta erdialdeko euskalkietan bezala, *-st-* kontsonante multzoa dago Burundan; ez Nafarroa, Nafarroa Behere eta Lapurdiko alderdi batzuetako *-rtz-*: *beste*, *bost*, *heste*, *ostegun*, *ostiral*. Halaxe da Sakanako gainerako hizkeretan ere, Uharte bitartean.

8.2. *-r-* (> *-d-* / *-ø-*) gordetzea

Mendebaleko euskaran bezala, *-r-* zaharra gorde da, baina inoiz *-d-* edo *-ø-* itxurapean: *berar* (> *bear* / *biar*) ‘belar’ (baina Bakaikun eta Sakanan barrena *belar*), *irar* ‘ilar’ (Altsasun eta Bakaikun *idar*), *irargi* ‘ilargi’ (Bakaikun *idargi* eta Altsasun *idergi*) eta *zidar* ‘zilar’. Aldiz, *elur* (ez *edur*) esaten da hizkera hauetan guztietan. Esan dezadan Sakana guztia dela gorde-tzailea, baina, Irañetan hasita ekialdera, *-l-* erabili izan da.

8.3. Hitz hasieran *z-* → *tx-*

Hitz hasieran *z-* → *tx-* egiten da zenbait hitzetan. Gutxi-asko Euskal Herri osoan dago bustidura mota hori eta ondorengo adibideak eman ditu Urdiainen:

zabal → *txabal* (eta *zabal*)

zehe → *txe*

zekor → *txekor* (eta *zekor*)

zelai → *txelai* (eta *zelai*)

zimel → *tximel* (eta *zimel*)

zimur → *tximur* (eta *zimur*)

zintzilika → *txintxilika*

zintzo → *txintxo* (eta *zintzo*)

zintzur → *txintzur*

zizare → *txistara*

zoko → *txoko* (eta *zoko*)

zoratu → *txoratu*

zorrotz → *txorrotx* (eta *zorrotz*)

zotz → *txotx* (eta *zotz*)

zulo → *txulo* (eta *zulo*)

zuri → *txui* (eta *zui*)

zutik → *txutik* (eta *zutik*)

zurrut → *txurrut* (eta *zurrut*)

zuzen → *txuxen* (eta *zuzen*)

8.4. Hitz hasierako *n-* / *l-*

Hitz hasieran *n-* dago Burundan *narru* ‘larru’ hitzean, mendebalean bezala. Baita *naurri* ‘neurri’ hitzean ere. Bakaikun hasi eta Irañeta bitartean, ordea, *larru* orokorraz gainera, *laurri* berria erabiltzen da. Sakanan, era berean, *l-* daukan *lazka* ‘nazka’ sortu da, eta Burundara ere zabaldu da: *lazkarrria* ‘nazkagarria’ esaten da Urdiainen. Esan dezadan, honen harira, *lasai* erabiltzen dela Sakanan; arrotza da *nasai*.

8.5. Hitz hasierako *y-*

Urdiainen *y-* eransteke joera dago *-eu-* diptongoarekin hasten diren ondorengo bi hitzotan: *euli* → *yauli* eta *huri* → *yauri*.

8.6. Hitz hasierako *g-* / *ø-*

Hitz hasieran *g-* daukagu *galtzairu* ‘altzairu’ eta *giltza* ‘iltze’ hitzetan. Burundan, gainera, *guai* ‘orain’ (eta *guaindo* ‘oraindik’) esaten da, baina *ohia* ‘ohea’ betiere; ez euskara nafarreko eta Sakanako gainerako alderdie-

tako *guatze*. Ezin jakin Burundan *goartu* aldaera nafarra ala *ohartu* esaten ote den, arrotza delako hitza: *konturatu* esaten da.

8.7. Hitz hasierako *m-* / *b-*

Euskal Herri osokoa da hitz hasieran *m-* eta *b-* bata bestearekin nahasteko joera. Burundari dagokionez, aldaera hauek dira horren adibide: *bendua* (gaztelaniaz ‘merienda’) ‘askaria’ (eta *bendatu* ‘askaldu’) eta *bihets* ‘mehatz [bakan]’ (eta *bihestu* ‘mehatzu [bakandu]’). Burundako aldaera bereziak dira, berriz, *m-* daukaten bi hauek: *mentzai* ‘berantzagi [orantza, legamia]’ eta *musti* ‘busti’. Jakina, *m-* dago *mendebal* hitzean (gaztelaniaz ‘vendabal’). Bakaikun *mirigarro* ‘birigarro’ jaso zuen Francisco Ondarrak (1965), baina *bigarrua* esaten da Urdiainen. Era berean, *bakalaua* aditu dut Urdiainen.

8.8. Hitz bukaeran **-ani* eta **-ana* → *-ai* egitea

Hitz bukaeran, antzina, ustez, **-ani* zena *-ai* egin da Gipuzkoan eta Nafarroa gehiengan. Baita Sakanan ere. Adibide hauek entzun ditut Urdiainen: *arrai* ‘arrain’ (eta *amurrai* ‘amuarrain’), *usai* ‘usain’ eta *zai* ‘zain’ (eta *ahuntzai*, *artzai*, *astozai*, *basozai*, *behizai*, *haurtzai*, *txerzai* ‘txerrizain’, *zaitu*...). Era berean, antzina, ustez, **-ana* zen bukaeratik *-ai* gertatu da Burundan *gaztai* ‘gazta’ hitzean, mendebalean bezala.

8.9. Hitz bukaerako *-n* / *-ø*

Hitz bukaeran *-n* gabeko aldaera hauek erabiltzen dira: *guai* ‘orain’ (baina *guaindo* ‘oraindik’) eta *iyo* ‘igo’ (ez *igan*, *igon*).

8.10. Kontsonante multzoak desagitea

Burundarrek ez dituzte zenbait kontsonante multzo gogoko eta bokala sartzen dute desagiteko. Nafarroako beste hizkera batzuetan bezala, *esne* → *esene* eta *esnatu* ‘iratzarri’ → *esenatu* egin dira. Horiekin batera, (latinez) *april* → *apiribil* (> *apibil*), *armario* → *arramaio*, *ernari* → *errenai* eta *sarna*

→ *sarrenia* esaten dira. Antzekoa da beste hitz honetan gertatu dena, baina tartekatu den bokala hitzaren beste leku batetik ekarri da: *lanbroa* → *lanbrua* → *lanburra*. Beste hitz honetan, azkenik, bi kontsonanteetako bata kendu egin da: *platera* (gaztelania zaharrean ‘platel’) → *patea* (→ Urdiainen *patia*). Jose Mari Arakamak ohartarazi didanez, Altsasun *txipi-txapa* esan izan zaio umeen jolasari; ez *txipli-txapla*.

9. Aldaerak

Hona hemen Burundako beste zenbait aldaera esanguratsu:

ailubi / *aulubi* Altsasun eta Bakaikun ‘marrubi’

arrantza ‘arrautza’

baia / *bea* gehienbat Urdiainen ‘baina’

be ‘gabe’ (eta *beiko* / *baiko* ‘gabeko’, baina *gabe* hitz elkartu gutxi eta jakin batzuetan: *nahigabe*, *paregabe* eta *ustekabe*)

belarri (ez *beharri*, *beharri*)

bulkatu ‘bultzatu’

burni ‘burdina’

dal-dal / *tal-tal* Altsasun ‘dar-dar’

esan (ez *erran*)

eskubi ‘eskuin’

eskutur ‘eskumutur’

girten ‘kirten’ (ez *gider* / *kider*)

gutxi (ez *guti* / *gutti*)

guzti (eta inoiz *guzi*; bigarren haxe Altsasun, Iturmendin eta Bakaikun)

iretsi (> *ietsi*) ‘irentsi’

itain ‘izain’

masail (baina *matrailezurra*)

opo ‘orpo’

tapilo ‘korapilo’

txiki nahiz *ttiki* (eta (*behatz*) *txinger*)

tximu ‘tximino’

txindurri / *txingurri* Bakaikun ‘inurri’

txixa ‘pixa’

zapaldu / *zapatu* Izagirrek (1967) Altsasun

Bada bereziki nabarmendu behar den aldaera bat: Urdiainen oraindik ere bizi-bizi dago *bekela* (eta *bezela*) ‘bezala’. Nafarroako beste alderdi batzuetan ere bazen aldaera hori antzina.

MORFOLOGIA


I. IZENAREN MORFOLOGIA

1. Deklinabidea

Hitzen deklinabidean hauexek dira Burundako gertakaririk esanguratsuenak.

1.1. Ergatiboa (NORK)

Hego Euskal Herriko alderdi zabalean bezala, morfema berbera erabiltzen da NORK kasu singularrean eta pluralean Sakana osoan: -AK. Beraz, *gizo-*



nak in dau ‘gizonak egin du’ singularrean eta *gizonak in dai* ‘gizonek egin dute’ pluralean esaten da Urdiainen. Jakina, aurreko silabako *u* eta *i* bokalen eraginez, -AK → -EK egiten da: *basuek duka* ‘basoak dauka’ singularrean eta *basuek dukai* ‘basoek daukate’ pluralean.

Gogora dezagun Sakanan azentuak ez duela hitzen singularra eta plurala bereizten eta, horrenbestean, aditzak edo testuinguruak argitzen du bata edo bestea noiz den.

1.2. Datiboa (NORI)

NORI kasuan -AI da singularreko morfema, Euskal Herriko beste leku askotan bezala: *gaztiai* ‘gazteari’. Burundan pluralekoa da berezia: -EIRI / -AIRI egiten da. Hona Urdiaingo adibideak:

herriko txikienairi ‘herriko txikienei’

langilieiri eztaiz sueldoik eman ‘langileei ez diete soldatarik eman’

Plural hurbileko morfema ere -OIRI da:

patata fritok umioiri in ‘patata frijituok umeoi egin’

1.3. Genitiboa (NOREN)

NOREN kasu pluralean ere antzeko gertakaria daukagu; -EIN / -AIN eta hurbilekoan -OIN bereziak erabiltzen dira Burundan:

estudiante txarrain moduen ‘ikasle txarren moduan’

danoin artien ‘denon artean’

Jakina, bilakaera bera dago NOREN kasuaren gainean osatzen diren besteetan, esate baterako, NORENGANA (*txakurraingana* ‘txakurrengana’), NORENGATIK (*txakurraingetik* ‘txakurrengatik’), NORENDAKO (*txakurraindako* ‘txakurrendako’)... NOREKIN da salbuespena: *txakurrakin* / *txakurrokin* esaten da. NOR kasuaren gainean osatzen delako, eta ez NOREN kasuaren gainean, izan daiteke hori. Halaxe da Bizkaian ere: *gizonak* + *gaz* → *gizonakaz* (ez **gizonengaz*).

NOREN kasu singularrean, berriz, -AN aldaera erabiltzen da:

hilan hogeita bostien ‘hilaren hogeita bostean’

Beti bezala, *u* eta *i* bokalen eraginez, -AN → -EN egiten da:

besuen indarra ‘besoaren indarra’

Ohikoa da singularreko -AN aldaera hori Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroako mendebalean, baina -AREN → -AIN egin da Nafarroa gehiengan eta Lapurdiko eta Nafarroa Behereko hizkera askotan. Beraz, Burunda — eta baita Sakana gehiena ere — bilakaera horren eremutik kanpo gelditu da.

Hego Euskal Herri gehiengan bezala, bestalde, Sakanan ere ‘-REN + BAT / BATZUK’ egituraren bidez zehaztugabeko kopuruak adierazten dira. Hona hemen Urdiaingo zenbait adibide:

badia hirun bat urte o ‘badira hiruren bat urte edo’

karreran bat o beste prestatzen du ‘lasterketaren bat edo beste prestatzen dugu’

ia bilatzen doten beste etxen bat ‘ea aurkitzen dudan beste etxeren bat’

egualdi ona in balau, lagunen batzuk etorko zian ‘eguraldi ona egin balu, lagunen batzuk etorriko ziren’

1.4. Sozietiboa (NOREKIN)

Sozietiboan -KIN morfema erabiltzen da:

borondate onakin ‘borondate onarekin’

denbua txar batekin ‘denbora txar batekin’

Aldaera horrek oso eremu zabala dauka, baina Sakanan barrena, Etxarri Aranatzan hasita, -KI erabiltzea ere ohikoa da. Nafarroako eremu zabalean eta Zuberoan erabiltzen da -KI aldaera, baina ez Burundan.

1.5. Instrumentala (NORTAZ)

Antzeko gertakaria daukagu instrumental kasuan. Modu berezian jokatzeko du euskara nafarrak: -s da euskalki horren eremu zabalean erabili ohi den aldaera. Beraz: *burus, eskus...* Sakanan ere bada, baina Etxarri Aranatz bitartean. Burundan -z orokorra erabiltzen da: *berriz, eskuaz* ‘euskaraz’, *ñearrez* ‘negarrez’, *oinez...* Burunda, beraz, euskara nafarrak egin duen aldakuntzatik kanpo gelditu da.

1.6. Destinatiboa (NORENTZAT / NORENDAKO)

Destinatiboan, berriz, Nafarroako hizkera gehienekin bat egiten du Burundak eta, alderdi hartan bezala, -ENDAKO erabiltzen da: *lurrandako* ‘lurrarendako’ (ez *lurrarentzat / lurrarentzako*). Egiari zor, ez da hori euskara nafarraren bereizgarria, Ipar Euskal Herriko eremu zabalean ere badelako; Zuberoan eta Nafarroa Beherean gehienbat. Burundatik gertuago, Deba ibarrean, Durangaldean eta Burunda ondoko Goierriko hizkera batzuetan ere badago: Zegaman, Seguran, Zerainen eta Legazpin aditu dut.

1.7. Prolatiboa (NORTZAT / NORTAKO)

Prolatiboan, era berean, -TAKO dago Sakana osoan. Hemen ere bi aukera ditu euskarak: -TZAT eta -TAKO, baina euren eremu dialektalak beste era batekoak dira. Euskal Herriko ekialdeko zatik jo dezakegu -TAKO. Bizkai eta Gipuzkoa guztian, adibidez, -TZAT erabiltzen da. Hona Urdaingo lekukotasuna:

lehen azkeinekuek saritako kotxia're jasotzen ziken ‘lehenago azkenekoak [sailkapeneko azken txirrindulariak] saritako automobila ere jasotzen zian’

eskualdunetako dukau giaure bua ‘euskalduntako daukagu geure burua’

jendiek santutako ibilko dau, bea gutako... ‘jendeak santutako edukiko du, baina guretako...’

1.8. Hitz bizidunen inesiboa (NORENGAN / NOREN BAITAN)

Bizidunen inesiboan -EN BAITAN erabiltzen da Sakanan; ez Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako -ENGAN. Urdiainen aditu dut ondorengo:

jaiek prestatzeko bajukagu konfiantzia gaztiein baitan ‘jaiak antolatzeko bazaukaagu konfiantza gazteen baitan’

1.9. Ablatiboa (NONDIK / NORENGANDIK) eta motibatiboa (NORENGATIK)

Ablatiboan -TI eta motibatiboan -GEITI / -GAITI zaharrak gorde dira Sakanan:

gelati ata in gindan ‘gelatik atera egin ginen’

gibeleti operatu dai ‘gibeletik operatu dute’

zengeiti eskatzen dai diru asko ‘zergatik eskatzen dute diru asko’

Dena dela, adineko hiztunek erabiltzen dituzte aldaera horiek, eta -TIK eta -GEITIK / -GAITIK berriagoak nagusitu dira gazte jendearen hizkeran. Aldiz, -TIKAN, -GANDIKAN, -GAITIKAN aldaerak arrotzak dira Burundan. Baita partitiboko eta partizipioetako -RIKAN ere, baina Kandido Izagirrek (1967) jaso zuen hori Altsasun: *bezelakoiken* ‘bezalakorik’, *nekatuiken* ‘nekaturik’. Nik neuk, ordea, ez dut Altsasuko grabazioetan sekula aditu.

NONDIK kasuko mugagabeen eta pluralean -(E)TATIK erabiltzen da Sakanan; ez ekialdeko -(E)TARIK (> -ETAIK):

ebein etxetatik heldu dia ‘beren etxeetatik datoz’

Beraz, *etxeetatik*; ez *etxeetarik*.

Bizidunetan, era berean, Euskal Herriko erdiguneko -GANDI eta -GANDIK erabiltzen dira Sakanan; ez -GANIK zaharra: *bestieingandi(k)* ‘besteengandik’, *guegandi(k)* ‘guregandik’.

Esan dezadan, azkenik, mendebalean bezala, ablatiboko -RIK morfema zaharra ezaguna dela Burundan *etxerik etxe* tankerako esapideetan. Jakina, *etxez etxe* orokorra ere erabiltzen da horrekin batera, eta indartsuago gazteen hizkeran. Hona hemen Urdiaingo zenbait adibide:

tabernaik taberna ibil gaituk Alsun ‘tabernarik taberna ibili gaituk Altsasun’

mendik mendi ibil gindan Abiadura Haundiko Trenan kontra protesta iteko ‘mendirik mendi ibili ginen Abiadura Handiko Trenaren kontra protesta egiteko’

festatan etxeik etxe ibiltzen ga patxaran eske ‘festetan etxerik etxe ibiltzen gara patxaran eske’

kaleik kale in du buzoneua ‘kalerik kale egin dugu buzoneoa’

herrik herri fan gindan KORRIKien atzetik ‘herririk herri joan ginen KORRIKAREN atzetik’

festaik festa, gaztiek gindala ‘festarik festa [ibiltzen ginen], gazteak ginela’

1.10. Hurbiltze adlatiboa (NORANTZ / NORUTZ)

Ez dago hurbiltze adlatiboa adierazteko deklinabide atzizki edo morfema berezirik. Euskal Herri gehienez bezala, izenari ALDERA (> ALDIA) erantsen zaio zeregin horretarako:

mendi aldia fan da ‘mendi aldera joan da’

zazpiak aldia heldu ga ‘zazpiak aldera heldu gara’

Dena dela, *honutza*, *horrutza* eta *harutza* (> *hautza*) aditzondoak ohikoak dira Sakana osoan, baina ‘hona / horra / hara’ da euren esanahia. Norabidea adierazi nahi bada, ALDERA eransten zaie: *honutzaldea*, *horrutzaldea*, *hautzaldea*.

Francisco Ondarrak (1965) *berantz* ‘jaitsiera, aldapa behera’ eta *gorantz* ‘igoera, aldapa gora’ bildu zituen Bakaikun, eta Lizarragan (Ergoiena) ere jaso dira oraindik orain (Navarro, Navarro eta Andueza 2008), baina aldaera berezi horiek arrotzak dira Urdiainen.

1.11. -RAINO eta ARTE txandaka

Denborabaliorekin ohiko ARTE-rekin batera, -RAINO (>-RAINDO) atzizkia ere maiz erabiltzen da Sakanan. Urdiaingoak dira adibide hauek:

bihar goiziaindo ‘bihar goiza arte’

heldu’an urtiaindo ‘datorren urtea arte’

goizeko bostetaindo ‘goizeko bostak arte’

Esan dezadan, bide batez, denbora adierazteko, *arte* eta *artia* erabiltzen direla: *ikusi artia*, *jubilatu artia*, *gaueko bedratzietek artia*. Bakaikun *artio* esaten da, Sakanan barrena bezala.

1.12. -RI BURUZ / -GATIK

Azkenaldi honetan asko zabaldu da -RI BURUZ egitura, *eguraldiari buruz hitz egin dugu* tankerako esapideetan. Horren ordeztu, -GEITI(К) entzuten da Urdiaingo adineko hiztunen jardunean: *egualdiengeiti hitz in du*.

1.13. -TAN

Adinarekin -TAN morfema aditzen da maiz Sakanan. Urdiaingo adibideak dira hauek:

eskolati hamalau urtetan ata nitzan ‘eskolatik 14 urtetan atera nintzen’

larogeita bat urtetan ia zer gogo dukain ‘por ahi’ fateko ‘81 urtetan ea zer gogo daukaten hor zehar joateko’

Morfema horrekin batera, -KIN ere baliatzen da:

larogeita zortzi urtekin hil zan gue abuela ‘88 urterekin hil zen gure amona’

2. Deklinabide taulak

Hona hemen Urdiaingo deklinabide taulak:

(1) Kontsonantez bukatzen diren izen bizidunak: GIZON

GIZON	Mugagabea	Singularra	Plurala	Plural hurbila
NOR	gizon	gizona	gizonak	gizonok
NORK	gizonek	gizonak	gizonak	gizonok
NORI	gizoni	gizonai	gizonairi	gizonoiri
NOREN	gizonen	gizonan	gizonain	gizoinin
NOREKIN	gizonekin	gizonakin	gizonakin	gizonokin
NORTAZ	gizonez			
NORGATIK	gizonengeiti(k)	gizonangeiti(k)	gizonaingeiti(k)	gizonoingeiti(k)
NORENDAKO	gizonendako	gizonandako	gizonaindako	gizonoindako
NORENBAITAN	gizonen baitan	gizonan baitan	gizonain baitan	gizoinin baitan
NORENGANA	gizonengana	gizonangana	gizonaingana	gizonoingana
NORENGAINO	gizonenganaino	gizonanganaino	gizonainganaino	gizonoinganaino
NORENGANAKO	gizonenganako	gizonanganako	gizonainganako	gizonoinganako
NORENGANDIK	gizonengandi(k)	gizonangandi(k)	gizonaingandi(k)	gizonoingandi(k)
PARTITIBOA	gizonik			
NORTAKO	gizonetakoa			

(2) Kontsonantez bukatzen diren izen bizigabeak: ODOL

ODOL	Mugagabea	Singularra	Plurala	Plural hurbila
ZER	odol	odola	odolak	odolok
ZERK	odolek	odolak	odolak	odolok
ZERI	odoli	odolai	odolairi	odoloiri
ZEREN	odolen	odolan	odolain	odoloin
ZEREKIN	odolekin	odolakin	odolakin	odolokin
ZEREZ	odolez			
ZERGATIK	odolengeiti(k)	odolangeiti(k)	odolaingeiti(k)	odoloingeiti(k)
ZERENDAKO	odolendako	odolandako	odolaindako	odoloindako
NON	odoletan	odolien	odoletan	odoloitan
NONGO	odoletako	odoleko	odoletako	odoloitako
NORA	odoleta	odolia	odoleta	odoloita
NORAINO	odoletaindo	odoliaindo	odoletaindo	odoloitaindo
NORAKO	odoletako	odoliako	odoletako	odoloitako
NONDIK	odoletati(k)	odoleti(k)	odoletati(k)	odoloitati(k)
PARTITIBOA	odolik			
ZERTAKO	odoletako			

(3) -a batekin bukatzen diren izen bizidunak: ALABA

ALABA	Mugagabea	Singularra	Plurala	Plural hurbila
NOR	alaba	alabia	alabak	alabok
NORK	alabak	alabiek	alabak	alabok
NORI	alabai	alabiai	alabairi	alaboiri
NOREN	alaban	alabien	alabain	alaboin
NOREKIN	alabakin	alabiekin	alabakin	alabokin
NORTAZ	alabaz			
NORGATIK	alabangeiti(k)	alabiangeiti(k)	alabaingeiti(k)	alaboingeiti(k)
NORENDAKO	alabandako	alabiendako	alabaindako	alaboindako
NORENBAITAN	alaban baitan	alabien baitan	alabain baitan	alaboin baitan
NORENGANA	alabangana	alabiengana	alabaingana	alaboingana
NORENGAINO	alabanganaindo	alabienganaindo	alabainganaindo	alaboinganaindo
NORENGANAKO	alabanganako	alabienganako	alabainganako	alaboinganako
NORENGANDIK	alabangandi(k)	alabiengandi(k)	alabaingandi(k)	alaboingandi(k)
PARTITIBOA	alabaik			
NORTAKO	alabatako			

(4) -a batekin bukatzen diren izen bizigabeak: TABERNA

TABERNA	Mugagabea	Singularra	Plurala	Plural hurbila
ZER	taberna	tabernia	tabernak	tabernok
ZERK	tabernak	taberniek	tabernak	tabernok
ZERI	tabernai	taberniai	tabernairi	tabernoiri
ZEREN	tabernan	tabernien	tabernain	tabernoin
ZEREKIN	tabernakin	taberniekin	tabernakin	tabernokin
ZEREZ	tabernaz			
ZERGATIK	tabernangeiti(k)	taberniangeiti(k)	tabernaingeiti(k)	tabernoingeiti(k)
ZERENDAKO	tabernandako	taberniendako	tabernaindako	tabernoindako
NON	tabernatan	tabernan	tabernatan	tabernoitan
NONGO	tabernatako	tabernako	tabernatako	tabernoitako
NORA	tabernata	taberna	tabernata	tabernoita
NORAINO	tabernataindo	tabernaindo	tabernataindo	tabernoitaindo
NORAKO	tabernatako	tabernako	tabernatako	tabernoitako
NONDIK	tabernatati(k)	tabernati(k)	tabernatati(k)	tabernoitati(k)
PARTITIBOA	tabernaik			
ZERTAKO	tabernatako			

(5) -e batekin bukatzen diren izen bizidunak: SEME

SEME	Mugagabea	Singularra	Plurala	Plural hurbila
NOR	seme	semia	semiek	semiok
NORK	semek	semiek	semiek	semiok
NORI	semei	semiai	semieiri	semioiri
NOREN	semen	semien	semiein	semioin
NOREKIN	semekin	semiekin	semiekin	semiokin
NORTAZ	semez			
NORGATIK	semengeiti(k)	semiengeiti(k)	semieingeiti(k)	semioingeiti(k)
NORENDAKO	semendako	semiendako	semieindako	semioindako
NOREN BAITAN	semen baitan	semien baitan	semiein baitan	semioin baitan
NORENGANA	semengana	semiengana	semieingana	semioingana
NORENGAINO	semenganaindo	semienganaindo	semieinganaindo	semioinganaindo
NORENGAKO	semenganako	semienganako	semieinganako	semioinganako
NOREGANDIK	semengandi(k)	semiengandi(k)	semieingandi(k)	semioingandi(k)
PARTITIBOA	semeik			
NORTAKO	semetako			

(6) -e batekin bukatzen diren izen bizigabeak: ETXE

ETXE	Mugagabea	Singularra	Plurala	Plural hurbila
ZER	etxe	etxia	etxiek	etxiok
ZERK	etxek	etxiek	etxiek	etxiok
ZERI	etxei	etxiai	etxieiri	etxioiri
ZEREN	etxen	etxien	etxiein	etxioin
ZEREKIN	etxekin	etxiekin	etxiekin	etxiokin
ZEREZ	etxez			
ZERGATIK	etxengeiti(k)	etxiengeiti(k)	etxieingeiti(k)	etxioingeiti(k)
ZERENDAKO	etxendako	etxiendako	etxieindako	etxioindako
NON	etxetan	etxien	etxetan	etxioitan
NONGO	etxetako	etxeko	etxetako	etxioitako
NORA	etxeta	etxia	etxeta	etxioita
NORAINO	etxetaindo	etxiaindo	etxetaindo	etxioitaindo
NORAKO	etxetako	etxiako	etxetako	etxioitako
NONDIK	etxetati(k)	etxeti(k)	etxetati(k)	etxioitati(k)
PARTITIBOA	etxeik			
ZERTAKO	etxetako			

(7) -i batekin bukatzen diren izen bizidunak: NESAKI ‘neskatoa’

NESAKI	Mugagabea	Singularra	Plurala	Plural hurbila
NOR	nesaki	nesakia	nesakiek	nesakiok
NORK	nesakik	nesakiek	nesakiek	nesakiok
NORI	nesaki	nesakiai	nesakieiri	nesakioiri
NOREN	nesakin	nesakien	nesakiein	nesakioin
NOREKIN	nesakikin	nesakiekin	nesakiekin	nesakiokin
NORTAZ	nesakiz			
NORGATIK	nesakingeiti(k)	nesakiengeiti(k)	nesakieingeiti(k)	nesakioingeiti(k)
NORENDAKO	nesakindako	nesakiendako	nesakieindako	nesakioindako
NORENBAITAN	nesakin baitan	nesakien baitan	nesakiein baitan	nesakioin baitan
NORENGANA	nesakingana	nesakiengana	nesakieingana	nesakioingana
NORENGAINO	nesakinganaindo	nesakienganaindo	nesakieinganaindo	nesakioinganaindo
NORENGANAKO	nesakinganako	nesakienganako	nesakieinganako	nesakioinganako
NORENGANDIK	nesakingandi(k)	nesakiengandi(k)	nesakieingandi(k)	nesakioingandi(k)
PARTITIBOA	nesakik			
NORTAKO	nesakitako			

(8) -i batekin bukatzen diren izen bizigabeak: HERRI

HERRI	Mugagabea	Singularra	Plurala	Plural hurbila
ZER	herri	herria	herriek	herriok
ZERK	herrik	herriek	herriek	herriok
ZERI	herri	herriai	herrieiri	herrioiiri
ZEREN	herrin	herrien	herriein	herrioin
ZEREKIN	herrikin	herriekin	herriekin	herriokin
ZEREZ	herriz			
ZERGATIK	herringeiti(k)	herriengeiti(k)	herrieingeiti(k)	herrioingeiti(k)
ZERENDAKO	herrindako	herriendako	herrieindako	herriindako
NON	herritan	herrien	herritan	herrioitán
NONGO	herritako	herriko	herritako	herrioitako
NORA	herrita	herria	herrita	herrioitá
NORAINO	herritaindo	herriaindo	herritaindo	herrioitaindo
NORAKO	herritako	herriako	herritako	herrioitako
NONDIK	herritati(k)	herriti(k)	herritati(k)	herrioitati(k)
PARTITIBOA	herrik			
ZERTAKO	herritako			

(9) -o batekin bukatzen diren izen bizidunak: ATSO

ATSO	Mugagabea	Singularra	Plurala	Plural hurbila
NOR	atso	atsua	atsuek	atsuok
NORK	atsok	atsuek	atsuek	atsuok
NORI	atsoi	atsuai	atsueiri	atsuoiri
NOREN	atson	atsuen	atsuein	atsuoin
NOREKIN	atsokin	atsuekin	atsuekin	atsuokin
NORTAZ	atsoz			
NORGATIK	atsongeiti(k)	atsungeiti(k)	atsueingeiti(k)	atsuoingeiti(k)
NORENDAKO	atsondako	atsuendako	atsueindako	atsuoindako
NORENBAITAN	atson baitan	atsuen baitan	atsuein baitan	atsuoin baitan
NORENGANA	atsongana	atsuengana	atsueingana	atsuoingana
NORENGAINO	atsonganaindo	atsueganaindo	atsueingaindo	atsuoingaindo
NORENGANAKO	atsonganako	atsueganako	atsueinganako	atsuoinganako
NORENGANDIK	atsongandi(k)	atsuegandi(k)	atsueingandi(k)	atsuoingandi(k)
PARTITIBOA	atsoik			
NORTAKO	atsotako			

(10) -o batekin bukatzen diren izen bizigabeak: BASO

BASO	Mugagabea	Singularra	Plurala	Plural hurbila
ZER	baso	basua	basuek	basuok
ZERK	basok	basuek	basuek	basuok
ZERI	basoi	basuai	basueiri	basuoiri
ZEREN	bason	basuen	basuein	basuoin
ZEREKIN	basokin	basuekin	basuekin	basuokin
ZEREZ	basoz			
ZERGATIK	basongeiti(k)	basuengeiti(k)	basueingeiti(k)	basuoingeiti(k)
ZERENDAKO	basondako	basuendako	basueindako	basuoindako
NON	basotan	basuen	basotan	basuoitan
NONGO	basotako	basoko	basotako	basuoitako
NORA	basota	basua	basota	basuoita
NORAINO	basotaindo	basuaindo	basotaindo	basuoitaindo
NORAKO	basotako	basuako	basotako	basuoitako
NONDIK	basotati(k)	basoti(k)	basotati(k)	basuoitati(k)
PARTITIBOA	basoik			
ZERTAKO	basotako			

(11) *-u* batekin bukatzen diren izen bizidunak: AINGERU

AINGERU	Mugagabea	Singularra	Plurala	Plural hurbila
NOR	aingeru	aingerua	aingeruek	aingeruok
NORK	aingeruk	aingeruek	aingeruek	aingeruok
NORI	aingerui	aingeruai	aingerueiri	aingeruoiri
NOREN	aingerun	aingeruen	aingeruein	aingeruoin
NOREKIN	aingerukin	aingeruekin	aingeruekin	aingeruokin
NORTAZ	aingeruz			
NORGATIK	aingerungeiti(k)	aingeruengeiti(k)	aingerueingeiti(k)	aingeruoingeiti(k)
NORENDAKO	aingerundako	aingeruendako	aingerueindako	aingeruoindako
NORENBAITAN	aingerun baitan	aingeruen baitan	aingeruein baitan	aingeruoin baitan
NORENGANA	aingerungana	aingeruengana	aingerueingana	aingeruoingana
NORENGAINO	aingerunganaindo	aingeruenganaindo	aingerueinganaindo	aingeruoinganaindo
NORENGANAKO	aingerunganako	aingeruenganako	aingerueinganako	aingeruoinganako
NORENGANDIK	aingerungandi(k)	aingeruengandi(k)	aingerueingandi(k)	aingeruoingandi(k)
PARTITIBOA	aingeruik			
NORTAKO	aingerutako			

(12) *-u* batekin bukatzen diren izen bizigabeak: ESKU

ESKU	Mugagabea	Singularra	Plurala	Plural hurbila
ZER	esku	eskua	eskuek	eskuok
ZERK	eskuk	eskuek	eskuek	eskuok
ZERI	eskui	eskuai	eskueiri	eskuoiri
ZEREN	eskun	eskuen	eskuein	eskuoin
ZEREKIN	eskukin	eskuekin	eskuekin	eskuokin
ZEREZ	eskuz			
ZERGATIK	eskungeiti(k)	eskuengeiti(k)	eskueingeiti(k)	eskuoingeiti(k)
ZERENDAKO	eskundako	eskuendako	eskueindako	eskuoindako
NON	eskutan	eskuen	eskutan	eskuoitán
NONGO	eskutako	eskuko	eskutako	eskuoitako
NORA	eskuta	eskua	eskuta	eskuoita
NORAINO	eskutaindo	eskuaindo	eskutaindo	eskuoitaindo
NORAKO	eskutako	eskuako	eskutako	eskuoitako
NONDIK	eskutati(k)	eskuti(k)	eskutati(k)	eskuoitati(k)
PARTITIBOA	eskuik			
ZERTAKO	eskutako			

(13) Bokalez bukatzen diren pertsona izenen deklinabidea: EDURNE

NOR	Edurne
NORK	Edurnek
NORI	Edurnei
NOREN	Edurnen
NOREKIN	Edurnekin
NORTAZ	Edurnez
NORGATIK	Edurnegeiti(k)
NORENDAKO	Edurnendako
NOREN BAITAN	Edurnen baitan
NORENGANA	Edurnengana
NORENGAINO	Edurnenganaino
NORENGANAKO	Edurnenganako
NORENGANDIK	Edurnengandi(k)
PARTITIBOA	Edurneik
NORTAKO	Edurnetako

(14) Kontsonantez bukatzen diren pertsona izenen deklinabidea: AITZIBER

NOR	Aitziber
NORK	Aitziberrek
NORI	Aitziberri
NOREN	Aitziberren
NOREKIN	Aitziberrekin
NORTAZ	Aitziberrez
NORGATIK	Aitziberrengeiti(k)
NORENDAKO	Aitziberrendako
NOREN BAITAN	Aitziberren baitan
NORENGANA	Aitziberrengana
NORENGAINO	Aitziberrengaino
NORENGANAKO	Aitziberrenganako
NORENGANDIK	Aiberrengandi(k)
PARTITIBOA	Aitziberrik
NORTAKO	Aitzibertako

(15) Bokalez bukatzen diren leku izenen deklinabidea: BAKAIKU

ZER	Bakaiku
ZERK	Bakaikuk
ZERI	Bakaikui
ZEREN	Bakaikun
ZEREKIN	Bakaikukin
ZEREZ	Bakaikuz
ZERGATIK	Bakaikungeiti(k)
ZERENDAKO	Bakaikundako
NON	Bakaikun
NONGO	Bakaikuko
NORA	Bakaikua
NORAINO	Bakaikuaindo
NORAKO	Bakaikuako
NONDIK	Bakaikuti(k)
PARTITIBOA	Bakaikuik
ZERTAKO	Bakaikutako

(16) Kontsonantez bukatzen diren leku izenen deklinabidea: URDIAIN

ZER	Urdin
ZERK	Urdinek
ZERI	Urdini
ZEREN	Urdinen
ZEREKIN	Urdinekin
ZEREZ	Urdinez
ZERGATIK	Urdinengeiti(k)
ZERENDA KO	Urdinendako
NON	Urdinen
NONGO	Urdingo
NORA	Urdinea
NORAINO	Urdineaindo
NORAKO	Urdineako
NONDIK	Urdindi(k)
PARTITIBOA	Urdinik
ZERTAKO	Urdintako

3. Deklinabide atzizkien zenbait erabilera berezi

3.1. Adberbioak NOR kasu singularrean

Ekialdeko hizkeretan bezala, adberbioak NOR kasu singularrean erabiltzen dira Sakanan. Hori da, behintzat, joera nagusia; baina, mendebalean eta erdialdean bezala, mugagabea eta partitiboa ere baliatzen da aldian behin. Hona hemen Urdiaingo zenbait adibide:

zuri-zuria agertu zan ‘zuri-zuria agertu zen’ [ez *zuri-zuri*]

ixil-ixila ibiltzen da ‘isil-isila ibiltzen da’ [baita *isil-isilik* ere]

juxtu-juxtua pasatu dot hilabetia ‘justu-justua pasatu dut hilabetea’
[ez *justu-justu*]

arropia seko-sekoa do ‘arropa seko-sekoa dago’ [ez *seko-seko*]

garbi-garbia do plazia ‘garbi-garbia dago plaza’ [ez *garbi-garbi*]

trena geldi-geldia heldu da ‘trena geldi-geldia dator’ [baita *geldi-geldi* ere]

ataiek beti ibiltzen jituai zabal-zabala ‘ateak beti edukitzen ditiztek zabal-zabala’ [baita *zabal-zabalik* ere]

3.2. Aditz izena ZERTAN / ZERTARA kasuetan

Ekialdera joan ahala, aditz izena maizago erabiltzen da ZERTARA kasuan. Sakanan, ordea, gutxi dira kasu hori eskatzen duten aditzak. Hiru aurkitu ditut Urdiainen: *atrebitu* ‘ausartu’, *behartu* eta *eman*:

atrebitu: *enaiz dirua jokatzia atrebitu* ‘ez naiz dirua jokatzera ausartu’

behartu: *etxeko lanak itia beartu berko diu* ‘etxeko lanak egitera behartu beharko diagu’

eman: *eman giaeui ondo jatia eta yatia* ‘eman zigutek ondo jatera eta edatera’

Gainerako aditzek ZERTAN eskatzen dute:

ahalegindu: *yakusten ahalaindu nauk* ‘erakusten ahalegindu nauk’

erakutsi: *tratorien ibiltzen yakusi deat* ‘traktorean ibiltzen erakutsi diot’

harrapatu: *maisuek kopiaitzen harrapatu dua* ‘maisuk kopiaitzen harrapatu dit [nau]’

hasi: *inglesa ikasten hasi dok* ‘ingelese ikasten hasi duk’

ikasi: *gitarra jotzen laister ikas dau* ‘gitarra jotzen laster ikasi du’

jakin: *bajakiet axurkia prepatzen* ‘bazakiat axurikia preparatzen’

jarri: *atsaldien leitzen jarri zan* ‘arratsaldean irakurtzen jarri zen’

lagundu: *batzia txukuntzen lagundu dua* ‘baratzea txukuntzen lagundu dit’

lotsatu: *lotsatu iten naiz hautza faten* ‘lotsatu egiten naiz hara joaten’

ohitu: *ohia biandu faten ohitu nauk* ‘ohera berandu joaten ohitu nauk’

paratu: *biotzen patu dot esenia* ‘berotzen jarri dut esnea’

segitu: *lania faten segitzen dot* ‘lanera joaten segitzen dut’

utzi: *etxien eztuai faten autzi* ‘etxean ez didate joaten utzi’

ZERTAN eta ZERTARA, biak daude aukeran *gelditu* aditzarekin:

zuien ibaia nola heldu zan ikustia / ikusten gelditu naiz ‘zubian ibaia nola zetorren ikustera / ikusten gelditu naiz’

trago bat hartzia / hartzen gelditu ga Etxarrin ‘zurrut bat hartzera / hartzen gelditu gara Etxarri Aranatzen’

4. Artikulua

Oso bizirik dago plural hurbileko *o* artikulua Sakanan. Hona hemen Urdiango zenbait adibide:

eskualdunok alkartuta ‘euskaldunok elkartuta’

hiru enpresa agertu dia lanok iteko asmuekin ‘hiru enpresa agertu dira lanok egiteko asmoarekin’

patata fritok umioiri in ‘patata frijituok umeoi egin’

aita ta biok fan gindan Etxarria ‘aita eta biok joan ginen Etxarri Aranatzera’

zortzi, ta zortzirok neskaturek ‘zortzi [senide], eta zortziok neskatoak’

txirrindulariaion bizitza profesionala motza dok ‘txirrindularion bizitza profesionala motza duk’

lanon baliua ‘lanon balioa’

aguztuen 14a eta 15a egun politak izaten dia herritarroindako
‘abuztuaren 14a eta 15a egun politak izaten dira herritarrondako’

5. Erakusleak

Hauexek dira Urdiaingo HAU, HORI eta HURA erakusleen deklinabide taulak:

HAU	SINGULARRA	PLURALA
ZER	hau	hok
ZERK	honek	hok
ZERI	honi	hoiri
ZEREN	honen	hoin
ZEREKIN	honekin	hokin
ZEREZ	hontaz	hoitaz
ZERGATIK	hongengeti(k)	hoingeti(k)
ZERENDAKO	honendako	hoindako
NON	hontan	hoitan
NONGO	hontako	hoitako
NORA	honta	hoita
NORAINO	hontaindo	hoitaindo
NORAKO	hontako	hoitako
NONDIK	hontati(k)	hoitati(k)
NOREN BAITAN	honen baitan	hoin baitan
NORENGANA	honengana	hoingana
NORENGAINO	honenganaindo	hoinganaindo
NORENGANAKO	honenganako	hoinganako
NORENGANDIK	honengandi(k)	hoingandi(k)

HORI	SINGULARRA	PLURALA
ZER	hoi	hoiek
ZERK	horrek	hoiek
ZERI	horri	hoieiri
ZEREN	horren	hoiein
ZEREKIN	horrekin	hoiekin
ZEREZ	hortaz	hoitaz
ZERGATIK	horrengeti(k)	hoieingeti(k)
ZERENDAKO	horrendako	hoieindako
NON	horretan&hortan	hoietan
NONGO	horretako&hortako	hoietako
NORA	horta	hoieta
NORAINO	hortaindo	hoietaindo
NORAKO	horretako&hortako	hoietako
NONDIK	hortati(k)	hoietati(k)
NOREN BAITAN	horren baitan	hoiein baitan
NORENGANA	horrengana	hoieingana
NORENGAINO	horrengaindo	hoieingaindo
NORENGANAKO	horrenganako	hoieinganako
NORENGANDIK	horrengandi(k)	hoieingandi(k)

HURA	SINGULARRA	PLURALA
ZER	hua	hai(e)k
ZERK	harek	hai(e)k
ZERI	hari	haieiri&hairi
ZEREN	haren	haiein&hain
ZEREKIN	harekin	hai(e)kin
ZEREZ	hartaz	haitaz
ZERGATIK	harengaiti(k)	haieingaiti(k)&haingaiti(k)
ZERENDAKO	harendako	haieindako&haindako
NON	hartan	hai(e)tan
NONGO	hartako	hai(e)tako
NORA	harta	hai(e)ta
NORAINO	hartaindo	hai(e)taindo
NORAKO	hartako	hai(e)tako
NONDIK	hartati(k)	hai(e)tati(k)
NOREN BAITAN	haren baitan	haiein&hain baitan
NORENGANA	harengana	haieingana&haingana
NORENGANAINO	harenganaindo	haieinganaindo&hainganaindo
NORENGANAKO	harenganako	haieinganako&hainganako
NORENGANDIK	harengandi(k)	haieingandi(k)&haingandi(k)

HURA-ren saileko erakusleetan *r* azkarra duten aldaerak ere erabiltzen dira: *harrek, harri, harren, harrekin, harretaz, harrengaiti(k), harrendako, harretako, harreta, harretaindo, harretati(k), harrengana, harrenganaindo, harrenganako, harrengandi(k)*. Sakana osoan eta Euskal Herriko beste hizkera askotan daude gisa horretako aldaerak.

6. BERA eta BERAK

Urdiainen *bea* ‘bera’ eta *ebeik* ‘berak’ esaten dira. Hiztun batzuek *bea* → *bia* aldatzen dute eta, jakina, *biak*, *biai*, *biakin*... gisakoak gertatzen dira deklinabide osoan. Hona hemen Urdiainen gehien erabiltzen direnak:

NOR	bea	ebeik
NORK	beak	ebeik
NORI	beai	ebeiri
NOREN	be(e)	ebein
NOREKIN	beakin	ebeikin
NORTAZ	beaz	ebeiz
NORGATIK	begeiti(k)	ebeingeiti(k)
NORENDAKO	beandako&betako	ebeindako
NOREN BAITAN	bean baitan	ebein baitan
NORENGANA	beangana&begana	ebeingana
NORENGAINO	beanganaindo&beganaindo	ebeinganaindo
NORENGANAKO	beanganako	ebeinganako
NORENGANDIK	beangandi(k)	ebeingandi(k)

7. Leku adberbioak

Hauexek erabiltzen dira Urdiainen:

NON	hemen	hor	han
NONGO	hemengo	horko	hango
NORA	honutza	horrutza	hautza
NORAINO	honutzaindo	horrutzaindo	hautzaindo
NORAKO	honutzako	horrutzako	hautzako
NONDIK	hemendi(k)	horti(k)	handi(k)

Ikusten denez, *hona, horra, hara* (eta *honaino, honako...*) gisakoak ez dira erabiltzen. Berez norabidea adierazten duten *honutza, horrutza* eta *harutza* erabiltzen dira balio horrekin. Dena dela, *honatx!, horratx!* eta *hara! / haratx!* ere aditzen dira.

8. Izenordainak

8.1. Izenordain galdetzaileak

Esan dezadan, lehenbizi, ZEIN eta NOR biak erabiltzen direla Sakanan. Aldiz, Gipuzkoan —Sakanarekin mugan dagoen Goierrin bertan hasita— NOR ia erabat baztertu eta ZEIN nagusitu da. Sakanan, esate baterako, *nor zara?* galdetzen da, *ez zein zara?*

Hauexek dira Urdiaingo izenordain galdetzaileak:

zein	nor	zer
zeinek	nok	zek
zeini	noi	zei
zeinen	non	zen
zeinekin	nokin	zekin
zeinetaz	nortaz	zetaz
zeinengeiti(k)	noengeiti(k)	zergeiti(k)
zeinendako	noendako	zendako
zeinen baitan	noen baitan	zen baitan
zeinengana	noengana	
zeinenganaindo	noenganaindo	
zeinenganako	noenganako	
zeinengandi(k)	noengandi(k)	

8.2. *Pertsona izenordainak*

Bi gauza nabarmendu behar dira. Alde batetik, *-e-* duten *neri, nere, ne-arkin...* gisakoak erabiltzen dira; ez *-i-* duten *niri, nire* sailekoak. Beste alde batetik, berriz, *zuek* → *zek* egin da eta haren eratorri guztietan bilakaera bera ikusten da: *zuei* → *zeiri*, *zuen* → *zen*, *zuekin* → *zekin...* Hona hemen Urdaingo pertsona izenordainak:

ni	hi	gu	zu	zek
nik	hik	guk	zuk	zek
ne(r)i	hiri	guri	zuri	zeiri
ne	hi(r)e	gue	zu(r)e	zen
nekin	hi(e)kin	gu(e)kin	zuekin	zekin
netaz	hitaz	gutaz	zutaz	zetaz
negeiti(k)	hi(e)geiti(k)	gugeiti(k)	zuegeiti(k)	zengeiti(k)
netako	hi(e)tako	gutako	zutako	zendako
ne baitan	hi(r)e baitan	gue baitan	zue baitan	zen baitan
negana	hi(e)gana	gu(e)gana	zu(e)gana	zengana
neganaindo	hi(e)ganaindo	gu(e)ganaindo	zueganaindo	zenganaindo
neganako	hi(e)ganako	gu(e)ganako	zueganako	zenganako
negandi(k)	hi(e)gandi(k)	gu(e)gandi(k)	zu(e)gandi(k)	zengandi(k)

8.3. *Pertsona izenordain indartuak*

ÑEAU / NIAU saileko izenordainak erabiltzen dira Burundan, baina adin handiko hiztunek *neronek*, *herorrek* (> *yorrek*) eta *zerorrek* ere maiz baliatzen dituzte. Gazte jendeak, ordea, ez ditu ez batzuk eta ez besteak esaten. Euskal Herri gehienez bezala, izenordain arruntak erabiltzen ditu, indartuak baztertuta.

Hauexek dira NI eta HI izenordainen aldaera indartuak:

ñeau&niau	yau
ñeuk&niauk (eta neonek)	yauk (eta yorrek)
ñeauri&niauri	yauri
ñeasure&niaure	yaure
ñearekin&niaurekin	yaurekin
ñeautaz&niautaz	yautaz
ñearegeiti(k)&niauregeiti(k)	yauregeiti(k)
ñeautako&niautako	yautako
ñeasure&niaure baitan	yaure baitan
ñearegana&niauregana	yauregana
ñeareganaindo&niaureganaindo	yaureganaindo
ñeareganako&niaureganako	yaureganako
ñearegandi(k)&niauregandi(k)	yauregandi(k)

Hona hemen, berriz, GU, ZU eta ZUEK izenordainen aldaera indartuak:

giau	ziau	zebeik
giauk	ziauk (eta zeorrek)	zebeik
giauri	ziauri	zebeiri
giaure	ziaure	zebein
giaurekin	ziaurekin	zebeikin
giautaz	ziautaz	zebeitaz
giauregeiti(k)	ziauregeiti(k)	zebeingeiti(k)
giautako	ziautako	zebeindako
giaure baitan	ziaure baitan	zebein baitan
giauregana	ziauregana	zebeingana
giaureganaindo	ziaureganaindo	zebeinganaindo
giaureganako	ziaureganako	zebeinganako
giauregandi(k)	ziauregandi(k)	zebeingandi(k)

Nabarmendu dezadan ohikoak direla *ni niau*, *nik niauk*, *zu ziau*, *zuk ziauk*... gisako egiturak adineko lagunen hizketan:

gu giau izan ga ‘gu geu izan gara’

8.4. Beste izenordain batzuk

Oso ohikoak dira BAKARREN BAT ‘norbait’ egiturako izenordainak Sakana guztian: *bakarren batek*, *bakarren bati*, *bakarren batekin*, *bakarren batendako*... Horiekin batera BATEN BAT sortakoak ere erabiltzen dira aldian behin: *baten batek*, *baten bati*, *baten batekin*, *baten batendako*...

Sakanan —Burundan gehienbat— beste bi izenordain hauek ere badira: *zer edo zer* (> *zeozer*) ‘zerbait’ eta *edozer*. Baita, jakina, Euskal Herri osokoa den *edozein* ere, baina *yozein* itxurapean.

9. -ONA eta -IONA bukaerak

Euskara nafarrean ohikoa denez, erdarako -ÓN eta -IÓN bukaerak bere horretan gelditzen dira Sakana osoan; -OI eta -IOI egin gabe, Bizkaian eta Gipuzkoan gertatzen den bezala. Lekukotasun ugari bildu ditut Urdiainen: *algodona, bagona, bajona, balkona, balona, bastona* ‘makila’, *bidona, bottellona, botona, buzona, fanfarrona, fogona, follona, frontona, garrafona, hormigona, jamona, kaiñona, kajona, kartona, koltxona, kondona, leona, limona, makarrona, melona, millona, mogollona, montona, morrona* ‘piper mota’, *pabellona, pantalona, pikatxona, plantona, pulmona, rekesona, sagona* ‘xaboaia’, *sasofona*... Adibideek erakusten duten bezala, hitzik berrienak ere horrelaxe egokitzen dira, baina -OI dago ondorengo lau mailegu zaharrotan: *arratoi, arrazoi, sasoi, sermoi* (eta *sermona*).

Beste hiru hauek -IÓN bukaeradunak dira: *abiona, akordiona* eta *kamiona*.

10. Atzizkiak, aurrizkiak eta artizkiak

10.1. Atzizkiak

-ago(ko) (> **-o(ko)**). Konparazio perpausak osatzeko erabiltzen da: *bizio* ‘biziago’, *elegantio* ‘eleganteago’, *gahio* ‘gehiago’, *gaztioko* ‘gazteagoko’, *gutxio* ‘gutxiago’, *irrutio* ‘urrutiago’, *jarrioko* ‘jarriagoko’, *lehenuo* ‘lehenago’, *makurro* ‘makurrago’, *merkio* ‘merkeago’, *nahio* ‘nahiago’, *normaloko* ‘normalagoko’, *okerro* ‘okerrago’, *zaharro / zaharroko* ‘zaharrago(ko)’, *zailo* ‘zailago’, *zurio* ‘zuriago’...

-aje. Hitz bakarrean aditu dut: *ilaje* ‘ilearen itxura’.

-anda. Hitz bakarrean aurkitu dut: *oilanda*.

-ari (> **-ai**). Ez da oso emankorra. Hitz hauetan jaso dut: *afai, bazkai, edai, eltzai* ‘eltzekari’, *gosai* eta *janai*. Horiekin batera, *lotsai* ‘errieta egin’ ere esaten da.

-bide. Ez da oso emankorra. Ondorengo hitzotan bildu dut: *aurrerabide, bubide* ‘burubidea, fundamentua’, *eskubide, ihesbide, lanbide* eta *ogibide*.

- dade.** Erdal hitzetan ohikoa izateaz gainera (*amistade, felizidade, libertade, maldade, nobedade...*), euskal hitz batean ere erabiltzen da: *bakardade*. Ondorengo hitz honetan *-date* aldaera erabiltzen da: *borondate*.
- di / -ti.** Ohikoa da landare eta zuhaitz multzoak adierazteko: *arboladi, elordi, galardi, haraizdi* ‘harizti’, *intxordi* ‘intxaurdi’, *iradi* ‘iratze lekua’, *lizardi, otadi, padi* ‘pagadi’, *pinudi, sasidi, sasti* ‘sagasti’, *txaradi, txipudi* (gaztelaniaz *chopo* ‘makala’), *txungadi* ‘ihidoia’, *zapardi, zumadi, zumardi...* Landareak ez badira ere, *-di* atzizkia daukagu beste hitz hauetan: *harridi, kazkardi* (*kazkarra* ‘harri xehea’), *malkardi* (*malkorra* ‘harkaitza’) eta *tufadi* ‘tuparri lekua’. Hitz bakarrean aditu dut *-doi* aldaera, silaba bakarrekoa den *ihidoi* (> *idoi*) hitzean. Esan dezadan, honen harira, *-aldi* erabiltzen dela *gaztinaldi* ‘gaztainadi’ hitzean. Lehian dira, gainera, *ilardi* eta *ilarraldi* ‘txilardi’.
- dun.** Ugaria da: *adardun, bigotedun, bizardun, dirudun, erdaldun, eskoladun, eskualdun, fededun, txapeldun...*
- egi** (> **-ei / -ai**). Gehiegizkotasuna adierazteko erabiltzen da: *beranduai* ‘beranduegi’, *gahiei* ‘gehiegi’, *gogorrai* ‘gogorregi’, *goizai* ‘goizegi’, *ilunai* ‘ilunegi’, *ixilai* ‘isilegi’, *luziai* ‘luzeegi’, *politai* ‘politegi’...
- en.** Konparazio gradu superlatiboa adierazteko erabiltzen da: *gahien* ‘gehien’, *gaztena, gertuena, makurrena* ‘txarrena’, *naturalena, onena, tipikuena, zaharrena...*
- era / -gera.** Ugaria da. Hitz gutxi eta jakin batzuetan *-gera* aldaera erabiltzen da Urdiainen: *ataera, botagera* ‘botaera’, *despa(g)era* ‘despediera [bukaera]’, *egoera, esaera, etorrera, hasi(g)era, ibilera, igoera, izaera, jaitxi(g)era, joera, jokaera, lodiera, luze(g)era, mugi(g)era, pasaera, sarrera, zabalera...*
- eria** (> **-eia**). Hitz bakarrean bildu dut: *zaborreia*.
- ero** (> **-eo / -io**). Ugaria da: *astio* ‘astero’, *atsaldio* ‘arratsaldero’, *eguneo / egunio, hilio / hilabetio* ‘hilero / hilabetero’, *jaiero, lanbatio* ‘larunbatero’, *neguo, urteo / urtio...*
- gai** (> **-gei**). Hiru hitzetan aditu dut: *andragai, ezkongai* eta *senargai*.
- gaitz / -kaitz.** Bi hitzetan entzun dut: *fiakaitz* eta *moldakaitz*.

- garren**. Zenbakien ordinalak lortzeko erabiltzen da: *bigarren, hirugarren, hamargarren, hogeigarren, zenbagarren...*
- garri**. Ugaria da. Bi balio ditu: **1**. Eragilea: *aspergarri, barregarri, galtegarri* ‘kaltegarri’, *harrigarri, ikearri* ‘ikaragarri’, *izugarri, lazkarri* ‘nazkagarri’, *lotsagarri, mingarri, nekagarri, ñeargarri* ‘negargarri’, *okagarri* ‘higuigarri’, *ongarri, penagarri, tresondagarri* ‘desondregarri’, *zoragarri...* **2**. Pasiboa: *ikusgarri*.
- gile**. Ez da ohikoa. Hiru hitzetan aditu dut: *kisibile* ‘gisugile’, *langile* eta *uztarrigile*.
- gin** / **-kin**. Ez da ugaria. Ondorengo hitzotan bildu dut: *hargin, ikazkin, jokin* ‘jostuna’, *perzkin* ‘pertz egilea’ eta *zurgin*.
- gintza**. Gutxitan baliatzen da. Hiru hitzetan jaso dut: *hargintza, ikazkintza* eta *zurgintza*.
- (g)une** (> **-(g)una**). Ez da oso ugaria. Hauexek bildu ditut: *beirakuna* ‘begirakunea, begiratzeko modua’, *bihurguna, elurguna, hutsuna / husguna, siesguna* ‘zingira’, *uguna* ‘urgune’ eta *zuriguna*.
- ka** (> **-kan**). Maiz erabiltzen da. Sakanan *-kan* aldaera aditzen da gehienbat: *aldizkan, atzeakan* ‘atzeraka’, *bakarkan, banakan, bueltakan* ‘buelbaka [itzulika]’, *bulkakan* ‘bultzaka’, *daldalkan* ‘dardarka’, *haizkan* ‘harrika’, *hozka, inbuluzkan* ‘itzulipurdika’, *iraikan* ‘igerian’, *irristakan, jokan, kantakan, kartakan* ‘karta jokoan’, *korrikan, mutxikan* ‘jolasean’, *oihukan, pilotakan, saltokan, tirokan, tokan* ‘gizonezkoen hitanoan’, *txandakan, txintxilikan...*
- (k)ada**. Oso ohikoa da: *aitxurkada, aizkorakada, atzaparkada, aurrerakada, baldekada, basokada, besarkada, besokada, betekada, bizkarkada, bolada, eltzekada, errezkada* ‘errenkada’, *hozkada, katilukada, labekada, makilakada, ostikada, perzkada, tratorkada, txokolatada, zakukada, zaparrada, zartada...*
- kazo**. Ugaria da: *adarkazo, aitxurkazo, aizkorakazo, bukazo* ‘burukada’, *bulkazo* ‘bultzakada’, *buztankazo, harrikazo, makilazo...*
- (k)eria** (> **-(k)eia** / **-(k)aiia**). Ugaria da: *alferreia, animalikeia, astokeia, faltsumeia, gaiztakeia, inutilkeia, lotsagarrikeia, mozkorkeia, sorginkeia, txerrikeia, zikinkeia...*

- (k)eta**. Hitz multzo zabal samarrean aditu dut: *aldaketa, ardazketa, berri-keta, garbiketa, hiketa* eta *zuketa, hizketa, konponketa, lapurreta, zuiketa / txuiketa* ‘zuriketa’...
- ki**. Ugaria da eta balio asko ditu: **1.** *ardiki, axurki* (< *axuri* ‘bildotsa’), *odolki, oilaki, txerriki, txitxiki* ‘lukainkak egiteko orea’... **2.** *gizaki* ‘gizonezkoa’. **3.** *mutiki* ‘mutila’ eta *nesaki* ‘neska’. **4.** *jaki* ‘jatekoa’. **5.** *beroki* ‘leku epela’ eta *tapaki* ‘estalkia’. **6.** *biki / bixki*. **7.** *ederki, gaizki, hokio* ‘hobekio’, *ongi, poliki, txarki* ‘gaizki’.
- (k)ide**. Ondorengo hiru hitzotan aditu dut: *aixkide, gueskide* ‘guraskide’ (gaztelaniaz ‘consuegro’) eta *senide*. Aspaldi *unide* (**ume* + *ide*) ere esaten zen.
- kizun**. Hitz bakarrean aditu dut: *asmakizun*.
- ko**. Bi hitzetan baizik ez dut jaso: *ahariko* ‘aharia’ eta *mutiko*.
- koitz**. Hitz bakarrean jaso dut: *bakoitz*.
- kor**. Hitz bakarrean aditu dut: *sentikor*.
- (l)ari / -(t)ari** (> **-(l)ai / -(t)ai**). Ugaria da: *agintai, aizkolai, apustulai, berri-ketalai, bertsolai, burrukalai, dantzai, dendai, ehiztai, hizlai, ibiltai, iraikalai* ‘igerilari’, *jaunkalai* ‘zaunkalari’, *jokalai, kontulai, nekazai, ostikalai, pekatai* ‘bekatari’, *pilotai, saltokalai, segalai, tabernai, zerbitzai*...
- le**. Hitz gutxitan aditu dut: *ibazle* ‘irabazle’, *jale, yakusle* ‘erakusle’ eta *yale* ‘edale’.
- na**. Distributiboak egiteko erabiltzen da: *bana, bina, seinna, zazpina, zortzina, hamarna, hogeina, horrenbestena, zenbana*... Honi *-ka* gehi dakioke eta *-naka* sortu: *binaka*.
- pe**. Adibide mordoxka batean jaso dut: *aterpe, besape, elurpe, estalpe, gal-tzarpe, giltzape, gonape, ilunpe, itzalpe, lainope, lurpe, teilape, txapape, urpe, yauripe* ‘euripe’...
- pen**. Bi hitzetan jaso dut: *etsipen* eta *iruipen*.
- ska**. Hitz bakarrean aditu dut: *mordoska*.
- sko**. Bi hitzetan entzun dut: *morrosko* eta *oilasko*.

- (t)ar / -dar**. Oso ugaria da: *alsuar* ‘altsasuar’, *ameskuar* ‘ameskoar’, *ataundar*, *bakaikuar*, *baserritar*, *etxarriar*, *herritar*, *iturmendiar*, *kanpotar*, *nuntar* ‘nondar’, *olaztiar*, *urdintar* ‘urdiaindar’...
- (t)asun**. Maiz aditzen da: *abeastasun / abiastasun* ‘aberastasun’, *alkartasun*, *argitasun*, *berotasun*, *erraztasun*, *estutasun*, *garbitasun*, *goxotasun*, *hoztasun*, *laguntasun*, *lasaitasun*, *maitasun*, *osasun*, *seriotasun*...
- tegi** (> **-tei / -tai**). Oso ugaria da: *artai* ‘arditegia’, *buztintai*, *erlatai*, *lantei*, *mintai* ‘mintegi’, *oilatai*, *putzutai*, *sutai*... Bada Urdiaingo apaizetxean *amarrandai* ‘hamarrendegi’ izeneko leku bat. Antzina hamarrenak ‘zergak’ ordaintzen ziren han. Rafael Karasatorreren (1993) esanetan, Altsasun ere bazen *amarrandegi* izeneko etxea.
- ti**. Ez da oso ugaria, baina bi baliorekin jaso dut: **1.** *bakarti*, *bildurti* ‘beldurti’, *gezurti*, *lotsati* eta *uzkarti*. **2.** *hegazti*.
- tila**. Bi hitzetan jaso dut: *kutxatila* eta *laihotila* ‘leihatila’.
- to / -do**. Ez da oso ugaria, baina hiru baliorekin erabiltzen da: **1.** *gaizto*. **2.** *hobeto* eta *ondo*. **3.** *neskato* eta *zakuto*.
- tsu**. Bi balio ditu: **1.** *aldapatsu*, *arramatsu* ‘adartsu’, *baketsu*, *errukitsu*, *iletsu*, *indartsu*, *jakintsu*, *koipetsu*, *osasuntsu*, *yauritsu* ‘euritsu’. **2.** *berdintsu*, *igualtsu*, *paretsu*.
- tu** (> **-du**). Aditzak osatzeko erabiltzen da: *ahaztu*, *bialdu* ‘bidali’... Atzizki horixe hartzen dute mailegu guztiek: *aluzinatu*, *jubilatu*, *konjelatu*, *mobilizatu*...
- (t)ura / -dura**. Ez da oso ugaria. Zenbait mailegutan erabiltzeaz gainera (*freskura*, *itxura*, *kalentura*, *sekura* ‘lehortea’, *tristura*...), ondorengo hitz hauetan bildu dut: *harridura*, *itxitura*, *jokura*, *lotura*, *ohitura*.
- turia / -duria**. Hitz bakarrean aditu dut: *jakinduia*.
- (t)xe**. Bi balio dauzka: **1.** *hementxe*, *hortxe*, *hantxe*, *hoixe* ‘horixe’, *holaxe*, *halaxe*, *belaxe* ‘berehalaxe’... **2.** *argixo* ‘argixeago’, *atzioxo* ‘atzeraxeago’, *aurrioxo* ‘aurreraxeago’, *beanduxo / bianduxo* ‘beranduxeago’, *gioxo* ‘geroxeago’, *ilunxo* ‘ilunxeago’, *txikixo* ‘txikixeago’...
- txo**. Hauxe da gaur egun txikitasuna adierazteko erabiltzen den atzizki emankor bakarra: *askotxo*, *bajutxo*, *bueltatxo*, *errekatoxo*, *kafetxo*, *lan-
txo*, *limosnatxo*, *mutiltxo*, *pagatxo*, *tapatxo*...

- tza.** Ez da oso ugaria. Hiru balioarekin aditu dut: **1.** *bizitza, ezkontza, heriotza, laguntza*. **2.** *arrantza, artzaintza, nekazantza, soldautza*. **2.** *ibintza* ‘ibintzea [galondoa]’.
- t(z)aile.** Ugaria da: *arreglatzaille, atatzaille* ‘ateratzaille’, *betetzaille, enreatzaille* ‘endredatzaille’, *erretzaille, eskatzaille, ferratzaille, galtzaille, hartzaille, hiltzaille, jotzaille, kargatzaille, laguntzaille, saltzaille, yakustaille* ‘erakustaille’, *yostaille* ‘erostaile’, *zirikatzaille*...
- xka.** Ondorengo hitzotan aditu dut: *berdexka, gorrixka, horixka*.
- xta.** Hitz bakarrean aditu dut: *flakoxta*.
- zale.** Ugaria da: *ardozale, gonazale, musikazale, tabernazale*...
- zu.** Ondorengo hitzotan aditu dut: *erdezu* (*erde* ‘lerdea’), *kakazu, mukizu* eta *zorrizu*.

10.2. Aurrizkiak

- des-** Erdal hitzetan ohikoa izateaz gainera (*desayunatu, desilusio, deskargatu, deskontentu*...), ondorengo euskal hitzotan ere aditu dut: *desagertu, desberdin, desein* ‘desegin’, *deseroso* eta *desgarai*.
- ez-** Hitz bakarrean jaso dut: *ezezaun*.

10.3. Artizkiak

- ra-** Gaur egun ez da emankorra. Ondorengo hitzotan bildu dut: *eakusi / yakusi* ‘erakutsi’, *eantzi / yantzi* ‘erantzi’, *erabaki* eta *yantzun* ‘erantzun / oihartzuna’. Adinekoek *yotzi* ‘eragotzi’ ere esaten dute.

11. Postposizioak

Burundako postposizioak hartzen duten deklinabide kasuaren arabera bildu ditut sail honetan.

11.1. -Ø

11.1.1. ALDE (*aldean, aldetik...*): *gazin etxe aldia!* ‘goazen etxe aldera!’.

11.1.2. ARTE (*artean, artetik...*): *bihar arte lan guztiak despeitu jitu*et ‘bihar arte lan guztiak bukatu ditiat’; *lagun artien afaldu du* ‘lagun artean afaldu dugu’.

11.1.3. ATZE (*atzean, atzetik...*): *etxe atzien autzi tuai egurrak* ‘etxe atzean utzi dituzte egurrak’.

11.1.4. AURRE (*aurrean, aurretik...*): *denda aurrien aparkatzen dau* ‘denda aurrean aparkatzen du’.

11.1.5. AZPI (*azpian, azpitik...*): *zui azpien harrapatzen tuai kangrejuek* ‘zubi azpian harrapatzen dituzte karramarroak’.

11.1.6. BARRU (*barruan, barrutik...*): *kutxa barruen gordetzen genduen garia* ‘kutxa barruan gordetzen genuen garia’; *hamabost egun barru etorko dala esan dau* ‘hamabost egun barru etorriko dela esan du’.

11.1.7. BILA: *lan bila daile* ‘lan bila dabil’.

11.1.8. BITARTE (*bitartean, bitartetik...*): *patzak basuoi bi pate bitartien* ‘para ezak edalontzi hori bi plater bitartean’.

11.1.9. ESKE: *ogi eske faten ga hamaiketan* ‘ogi eske joaten gara hamaiketan’.

11.1.10. GAIN (*gainean, gainetik...*): *gurdi gainien autzi dai manta bat orbel* ‘gurdi gainean utzi dute manta [estalki] bat orbel’.

11.1.11. INGURU (*inguruan, ingurutik...*): *basurdak herri inguen daitza* ‘basurdeak herri inguruan dabilta’.

11.1.12. ONDO (*ondoan, ondolik...*): *itxaso onduen alkilatu dai apartamendua* ‘itsaso ondoan alokatu dute apartamentua’.

11.1.13. ONDOREAN: *meza ondorien jubilatuein etxia fan gindan* ‘meza ondo-rean jubilatuen etxera joan ginen’.

11.1.14. PARE (*parean, paretik...*): *Herrientxe paretik pasatu beharra do* ‘Udaletxe paretik pasatu beharra dago’.

11.2. **-AN / -ETAN**

11.2.1. BEHERA: *eskilaretan behera laister fan zan* ‘eskaileretan behera laster joan zen’.

11.2.2. GORA: *bargan gua jo zen axeiek* ‘bargan [amildegian] gora jo zuen azeriak’.

11.3. **-KIN**

11.3.1. BATERA: *hotzakin batia hasten dia gaztinak zartanan erretzen* ‘hozarekin batera hasten dira gaztainak zartaginean erretzen’.

11.4. **-KO**

11.4.1. MODUAN: *lehenoko moduen bizi dia baten batzuk* ‘lehenagoko moduan bizi dira baten batzuk’.

11.5. **-RA**

11.5.1. ARTE: *atsaldia arte egualdi ona inko emen dau* ‘arratsaldera arte egualdi ona egingo omen du’.

11.6. **-REN**

11.6.1. ALDAMEN (*aldamenean, aldamenetik...*): *etxien aldamenien gendukan batzia* ‘etxearen aldamenean geneukan baratza’.

11.6.2. ALDE (*aldean, aldetik...*): *euskerien alde zen* ‘euskararen alde zeuden’; *tenisan aldien igualekua da txirrindularitzia!* ‘tenisaren aldean bestelakoa da txirrindularitza!’.

11.6.3. ARTE (*artean, artetik...*): *danoin artien inko du* ‘denon artean egingo dugu’.

11.6.4. ATZE (*atzean, atzetik...*): *katuen atzien fan da txakurra* ‘katuaren atzean joan da txakurra’.

11.6.5. AURRE (*aurrean, aurretik...*): *apizan aurrien iyun dianak esan zituen* ‘apaizaren aurrean inon direnak [sekulakoak] esan zituen’.

11.6.6. AZPI (*azpian, azpitik...*): *kontuz ibili aldamiuen azpiti pasatzekuen* ‘kontuz ibili aldamiaren azpitik pasatzerakoan’.

11.6.7. BARRU (*barruan, barrutik...*): *kajien barruen autzi tut pitxiak* ‘kajaren barruan utzi ditut bitxiak’.

11.6.8. BEHARREAN: *atseden baten beharrien no* ‘atseden baten beharreen nago’.

11.6.9. BILA: *abuelon bila ata dia senidiek* ‘aitonaren bila atera dira senideak’.

11.6.10. BITARTEZ: *lagunein bitartez jakin dot berria* ‘lagunen bitartez jakin dut berria’.

11.6.11. BIZKAR (*bizkarrean, bizkarretik...*): *aitan bizkarretik bizi da* ‘aitaren bizkarretik bizi da’.

11.6.12. BURUZ: *be buz ikasi dau iraikan* ‘bere buruz [bere kasa] ikasi du igerian’.

11.6.13. ESKU (*eskuan, eskutik...*): *zure esku auzten tut ontziek* ‘zure esku uzten ditut ontziak [garbitzeko]’.

11.6.14. ESKUIN (*eskuine(t)an, eskuine(ta)tik...*): *ne eskubitan jarri zan* ‘nire eskuinetan jarri zen’.

11.6.15. EZKER (*ezkerre(t)an, ezkerre(ta)tik...*): *emantzak hie ezkerrien don ardo botillia* ‘eman ezak [iezadak] hire ezkerrean dagoen ardo botila’.

11.6.16. FALTAN: *ogien faltan dana gosia!* ‘ogiaren faltan dena gosea!’.

11.6.17. GAIN (*gainean, gainetik...*): *kabliorren gaineti pasatu dok gurdia* ‘kable horren gainetik pasatu duk gurdia’; *jakinan gainien patu du* ‘jakinaren gainean [ohartarazita] jarri dugu’.

11.6.18. GISA: *be kisa ai da inglesa ikasten* ‘bere gisa [fundamentu handirik gabe] ari da ingelesa ikasten’.

11.6.19. INGURUAN/BUELTAN: *mahaieninguen bilduzian* ‘mahaiaren inguruan bildu ziren’.

11.6.20. KONTRA: *etxeko paretien kontra auzten tu egurrak* ‘etxeko paretaren kontra uzten ditu egurrak’.

11.6.21. KONTURA: *aita-amen kontua bizi dok* ‘aita-amen kontura bizi duk’.

11.6.22. MODU (*moduan, moduko...*): *zaharrein moduen hitz eiten dau* ‘zaharren moduan hitz egiten du’.

11.6.23. ONDO (*ondoan, ondotik...*): *suen onduen yonda inko zaizkizu antxumakiek* ‘suaren ondoan egonda egingo zaizkizu antxumakiak [beroarekin sortzen diren gorriuneak]’.

11.6.24. PARE (*parean, paretik...*): *erregiein pare bizi da* ‘erregeen pare bizi da’; *mutil haundi horren parien nanua ematen dau* ‘mutil handi horren parean nanoa ematen du’.

11.6.25. PARTEZ (*partetik, parteko...*): *aman partez, etortzeko* ‘amaren partez, etortzeko’.

11.6.26. TRUKE: *odolkiein truke lukaikia* ‘odolkien truke lukainka’.

11.6.27. ZAIN: *ezin ga yon lege berri baten zai* ‘ezin gara egon lege berri baten zain’.

11.7. -RIK

11.7.1. EZA: *diruik eza dok hobiokua!* ‘dirurik eza duk hobeagokoa! [txarragoa da dirurik eza]’.

11.7.2. GABE: *dirui(k) pe no* ‘dirurik gabe nago’.

11.8. -TIK

11.8.1. APARTE: *lanetik aparte eztuka beste itekoik* ‘lanetik aparte ez dauka beste egitekorik’.

11.8.2. AURRERA: *gaurti aurria egunio ikasiko dela esan dua* ‘gaurtik aurrera egunero ikasiko duela esan dit’.

11.8.3. BEHERA: *menditi bia ekar tuai ardiek* ‘menditik behera ekarri dituzte ardiak’.

11.8.4. BUELTAN: *menditi bueltan bendatu genduen* ‘menditik bueltan askaldu genuen’.

11.8.5. GORA: *gainbeko basoti gua etor ga pasian* ‘beheko basotik gora etorri gara paseoan’.

11.8.6. KANPO(RA): *etxeti kanpua bota zain* ‘etxetik kanpora bota zuten’.

11.9. -Z

11.9.1. AURRERA: *jersia atzekoz aurria jantzi dezu* ‘jertsea atzekoz aurrera jantzi duzu’.

11.9.2. BEHERA: *buz bea bota naiz eskilatik* ‘buruz behera erori naiz eskaile-ratik’.

11.9.3. BESTALDE (*bestaldean, bestaldetik...*): *Ataun hor bertan do, mendiz bestaldien* ‘Ataun hor bertan dago, mendiz bestaldean’.

11.9.4. GAINERA: *dietia aldatzez gainia, botika bat hartu beharra jukat* ‘dieta aldatzez gainera, botika bat hartu beharra zaukaat’.

11.9.5. GORA: *hankaz gua fan da maistria* ‘hankaz gora joan da maistra’.

11.9.6. KANPO: *esan zena lekuz kanpo zon* ‘esan zuena lekuz kanpo zegoen’.

II. ADITZAREN MORFOLOGIA

1. Aditzen osagai bereziak

1.1. Pluraleko 2. eta 3. pertsonetan -EI / -AI bukaerak

Aditz iragankorren pluraleko 3. pertsonan -EI / -AI morfema erabiltzen da; ez Euskal Herriko erdigunean zabaldu den -TE berria: *dai* ‘dute’, *tuei* ‘dituzte’, *zain* ‘zuten’, *zinuein* ‘zituzten’, *duai* ‘didate’, *deai* ‘diote’, *zuain* ‘zidaten’... Morfema bera dago pluraleko 2. pertsonan: *dezai* ‘duzue’, *tuzai* ‘dituzue’, *zenduein* ‘zenuten’... Baita NOR saileko pluraleko 2. pertsonan ere: *zai* ‘zarete’, *zindain* ‘zineten’, *zaitzai* ‘zaitezte’, *zei* ‘zaudete’, *zaitzai* ‘zabilzate’, *zazai* ‘zoazte’... Sakanari dagokionez, Irañetara baizik ez da heldu -TE morfema berria, baina Burundako -EI / -AI bukaeren ordeaz, -E edo -IE daude Etxarri Aranatz eta Irañeta bitartean.

Burundako morfema dela eta, bokalen sailean esandakoa errepikatuko dugu: -EI eta -AI biak erabiltzen direla. Beraz, *zenduein* / *zenuain* ‘zenuten’, *zein* / *zain* ‘zuten’, *zenuzein* / *zenuzain* ‘zenituzten’, *zinuein* / *zituain* ‘zituzten’, *balituei* / *balituai* ‘balituzte’, *duatziei* / *duatziai* ‘dizkidate’, *zuein* / *zuain* ‘zidaten’, *zeuein* / *zeuain* ‘ziguten’, *dukatziai* / *dukatziei* ‘dauzkate’, *dakiai* / *dakiei* ‘dakite’... Ondoren datozen tauletan bakarra jarri dut, nire ustez gehien erabiltzen dena. Biak neurri bertsuan entzun ditudanean, ordea, biak jarri ditut.

1.2. Trinkoen iraganaldian -a- / -e- erroak

Aditz trinko batzuen iraganaldiko erroan -a- zaharra gordetzeko joera egon da Burundan. Dena dela, gaur egun Urdiainen erabiltzen diren adizkiak aintzakotzat hartuta, zehaztasun batzuk egin behar dira. Alde batetik, -a- dago JAKIN-en adizkietan eta baita IBILI-ren batzuetan ere: *nakien* ‘nenkien’, *zakien* ‘zekien’, *zailen* (eta *zeilen*) ‘zebilen’, *zaitzan* (eta *zeitzan*) ‘zebiltzan’... Gainerakoetan bilakaera bereziak egon dira: EDUKI-ren adizkietan -u- da erroa, bai orainaldian eta bai iraganaldian: *duka* ‘dauka’, *zukan* ‘zeukan’. Aldiz, EGON-en —honetan ez erabat—, EKARRI-ren eta EROAN-en adizkietan -e- da erroa, orainaldian nola iraganaldian. Esate baterako, *ge* ‘gaude’, *genden* ‘geunden’, *dekat* ‘dakart’, *nekan* ‘nekarren’, *deat* ‘daroat [daramat]’, *nean* ‘neroan [neraman]’.

Urdiaingo gertakari bereziak alde batera utzita, esan dezadan Sakana osoa izan dela arlo honetan gordetzaila, eta *-a-* zaharra bizirik dago trinkoen iraganaldiko erroan.

1.3. Geroaldian *-EN* / *-KO* / *-GO* morfemak

Euskal Herria bitan banatzen da geroaldia osatzeko orduan. Aditzak *-n* bukaera daukanean, geroaldiko morfema *-EN* da Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian: *eginen*, *izanen*. Aldiz, *-GO* izan ohi da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan: *egingo*, *izango*. Burundak ekialdeko hizkerekin egin du bat aukera esanguratsu horretan, baina azkenaldian beste aldera aldatu da. Ziordian ez bestean, oraintsukoa da aldakuntza. Damaso Intzak (1922b: 6) *-GO* jaso zuen Ziordian XX. mendearen lehenbiziko erdian, baina *-EN* gainerrako herrietan. Kandido Izagirrek, era berean, *-EN* (> *-IN*) morfema zuten aditzak jaso zituen Altsasun 1960-70eko hamarkadan: *esain* ‘esanen’, *fain* ‘joanen’, *inen* ‘eginen’, *izein* ‘izanen’, *jain* ‘janen’, *yain* ‘edanen / eroanen [eramanen]’.

Urdiaini dagokionez, adin handiko hiztunek erabiltzen dute gaur egun *-EN* (> *-IN*): *emain*, *izein*, *jain*, *yain*, *yoin*... Horrekin batera *-KO* ere erabiltzen dute: *emanko*, *esanko*, *fanko* ‘joango’, *inko* ‘egingo’, *izanko*, *jakinko*, *janko*, *yanko* ‘edango / eroango’, *yonko* ‘egongo’... eta horixe da belaunaldi gazteagoek erabiltzen duten bakarra, *-EN* baztertuta. Morfema hori sartu berria denez, *-KO* erabiltzen da, eta ez *-GO*, *-n* baten ondoren beharko zuen bezala. Gaur egun, dena dela, *-GO* ere oso zabaldua dago, euskara batuak eta eskolak eraginda. Sakana osoan, eta baita Nafarroako mendebaleko beste alderdi batzuetan ere, asko zabaldu da *-GO* joan den aspaldian.

1.4. Aditzoina / Partizipioa

Hego Euskal Herriko eremu zabalean aditzoina baztertu eta partizipioak hartu ohi du haren lekua: *garbi ezazu* → *garbitu ezazu*. Burundan, ordea, maiz aditzen da aditzoina, baiezko esaldietan gehienbat: *afaltzak* ‘afal ezak’ (baina *ezakela afaldu*), *sar laike* ‘sar daiteke’ (baina *ezin laike sartu*). Dena dela, partizipioa ere erabiltzen da aditzoina behar denean: *sartu dailela* ‘sar dadila’, *gelditu hadi* ‘geldi hadi’. Azken batean, hiztunen baitan galdua dago

bata eta bestea noiz erabili behar diren bereizteko gaitasuna eta arau jakinik gabe erabiltzen da bata nola bestea. Berdintsu dira gauzak Sakana osoan.

1.5. -RIK / -TA partizipioetan

Partizipioetan -RIK morfema zaharraren eta mendebalean eta erdialdean nagusitu den -TA berriaren arteko lehia dago. Biak daude hiztunen aukeran, baina -RIK da alde handiz ugariena:

aberastu → *abeastuik* / *abeastuta*

egin → *inik* / *inda*

jarri → *jarririk* / *jarrita*

josi → *josik* / *josita*

Emankorra da -RIK, aditz berrienetan ere erabiltzen da eta. Horrelakoetan, hain zuzen, -RIK erabiltzeko joera dago; ez -TA: *aberiatuik*, *agobiatuik*, *aluzinatuik*, *animatuik*, *deprimituik*, *emozionatuik*, *entxufatuik*, *estresatuik*, *flipatuik*, *homologatuik*, *inklinatuik*, *inplikatuik*, *jodituik*, *kokatuik*, *konjelatuik*, *kontrolatuik*, *marjtinatuik*, *mobilizatuik*, *moskeatuik*, *prezintatuik*, *regulatuik*, *soldatuik*... aditu ditut Urdiainen.

Erlatibo perpausetan, hala ere, -TAKO da nagusi:

hik yositako autua txikiaia dok ‘hik erositako autoa txikiegia duk’

lanbatien harrapatutako mozkorra nekez kendu genduken ‘lanbategian harrapatutako mozkorra nekez kendu genian’

1.6. -GI partizipioetan

Partizipio batzuetan -GI morfema agertzen da. Ohikoa eta orokorra denez, -g- galtzeko joera dago bokal artean: *eba(g)i* ‘ebaki’, *jagi* ‘jaiki’ eta *irazegi* (> *yazi*) ‘irazeki [piztu]’ esaten dira Burundan. Horiekin batera, *erabaki* erabiltzen da (ez *erabagi*), eta adin handiko hiztunek *yelki* ‘eralki’ esaten dute (ez *yelgi*).

Arrotza da gaur egun *iregi* ‘ireki’; *zabaldu* esaten da horren ordez. Badirudi, dena dela, oraintsu galdu dela, bai Altsasun (Izagirre 1967) eta bai

Bakaikun (Ondarra 2005) *irei / iri* aldaerak jaso direlako. Olatzagutiko eta Altsasuko grabazioetan —baita Izagirren (1967) hiztegian ere— *isegi* ‘eseki [zintzilikatu]’ agertzen da, baina hitz hori ezezaguna da gaur egun Burundan.

Sakana guztian erabiltzen dira -GI duten partizipioak, eta han, gainera, *urei / urai / udei / udi* tankerako aldaerak ere badira. Dirudenez, *edugi* ‘eduki’ partizipiotik heldu dira: *edugi* > *udegi* > *uregi* > *urei*. Altsasun bazen, *urai(n) / urei(n)* itxurapean (Izagirre 1967), eta Ziordian eta Olatzagutian ere bai, *idugi* gisan (Intza 1922b: 7). Urdiain eta Bakaiku bitartean, ordea, *ibili* baliatzen da ‘eduki’ adierazteko: *autua garajien ibili dot* ‘automobila gara-jean eduki dut’.

Esan dezadan, honen harira, *yalgi* ‘eralki’ bildu dela Etxarri Aranatzan (Karasatorre 1993 eta Erdozia 2004). Lizarragan, gainera, *erabai* ‘erabaki’ ere ba omen da (Navarro, Navarro eta Andueza 2008).

1.7. Partizipioetan -TU gehitzea

Euskal Herriko erdigunean ohikoak dira berez inolako beharrik gabe -TU / -DU hartu duten aditzak: *bizi* → *bizitu*, *egon* → *egondu*, *erori* → *eroritu*, *izan* → *izandu*. Sakanan ere badira horrelakoak, baina ez Burundan. Sakanan, gainera, *gordetu*, *jakindu* eta *edugitu* (> *uraittu*) ‘eduki’ ere erabiltzen dira. Lizarragan, behinik behin, beste hauek ere ba omen dira: *erabaittu* ‘erabaki’ eta *etzittu* ‘etzin [etzan]’ (Navarro, Navarro eta Andueza 2008). Gisa horretako partizipio berri bakarra esaten da Urdiainen: *etzindu* (eta *etzin*) ‘etzan’.

1.8. -KI atzizki eza

-KI aditz atzizkia Nafarroa gehienez, Gipuzkoako ipar-ekialdeko hizkera gutxi batzuetan —Irunen eta Hondarribian, gehienbat—, Lapurdin eta Nafarroa Beherean erabiltzen da. Trinkoen ordez (*joaki naiz* ‘noa’) eta harri-dura perpausetan (*hemen izaki, eta ez haiz gu ikustera etorri!*) erabiltzen da gehienbat (argibideak: Iñigo, Salaberri Zaratiegi, Zubiri 1995).

Sakanan ez da ezaguna. Alde batetik, trinkoak badira eta, harridura perpausetan, partizipio hutsa erabiltzen da. Ondoren aipatuko ditugun esaldien

antzekoak maiz entzuten dira Urdiainen, baina adin batetik gorako lagunen hizketan gehienbat:

dantza itia galazita zon, eta nei asko gustatzen! ‘dantza egitea galarazita zegoen, eta niri asko gustatzen!’

guaiko umiok! Txotxuek eman ta eman, ta konformatzen ez! ‘oraingo umeok! Gozokiak eman eta eman, eta konformatzen ez!’

ordu erdi bat zai, eta hua etortzen ez! ‘ordu erdi bat zain, eta hura etortzen ez!’

nik haren motorra nahi, eta biak saltzen ez! ‘nik haren motorra nahi, eta berak saltzen ez!’

eta polita da, nei gustatu iten ‘eta polita da, niri gustatu egiten!’

motor berria yosi, ta ibiltzen ez! ‘motor berria erosi, eta ibiltzen ez!’

ondo kokokatuta ere, ez sartzen! ‘ondo kokatuta ere, ez sartzen!’

2. Aditzen erabilera bereziak

2.1. EDUKI-ren nagusitasuna

Bizkaian eta Gipuzkoa gehienez bezala, Sakanan ere EDUKI aditzak ia guztiz baztertu du *EDUN. Gehienbat, aditz laguntzaile bezala erabiltzen da *EDUN gaur egun, *hartu dot* ‘hartu dut’, *in dau* ‘egin du’ gisakoetan. Jakina, perpaus kopulatiboetan ere bizirik dago:

hua familiakua dau ‘hura familiakoa du’

hoi aspaldiko laguna du ‘hori aspaldiko laguna dugu’

Gainerakoan EDUKI da nagusi. Hona hemen zenbait adibide:

asko dia ehizien ibiltzeko baimena dukainak ‘asko dira ehizean ibiltzeko baimena daukatenak’

amak zaletasun haundia zukan musikako ‘amak zaletasun handia zeukan musikarako’

launak banukatzen ‘lagunak baneuzkan’

zendukatziein asmuek bete tuzai? ‘zenezukaten asmoak bete dituzue?’

zer yaitzi dukazu honen inguen ‘zer iritzi daukazu honen inguruan?’

gauza bat dukat goguen ‘gauza bat daukat gogoan’

eztukat motiboik gaizki esateko ‘ez daukat motiborik gaizki esateko’

arrazoi dukazu ‘arrazoi daukazu’

kakolak e eztukai lehengo sustantzia ‘barraskiloek ere ez daukate lehengo sustantzia’

osasuna ondo dukat ‘osasuna ondo daukat’

gaur goiz-goizetik egarria jukat ‘gaur goiz-goizetik egarria zaukaat’

2.2. ARI IZAN / IBILI / EGON / EKARRI

Euskal Herri gehieneko ARI IZAN eskura izateaz gainera, IBILI eta EGON ere maiz erabiltzen dira, mendebaleko euskalkian bezala. Hona hemen Urdiaingo lekukotasuna:

bazeitzai? ‘bazabiltzate [ari zarete]?’

informatikia ikasten geitza ‘informatika ikasten gabiltza’

musien deitza ‘musean dabiltza’

errendaketan do ‘botaka dago’

txakurra jaunkan do ‘txakurra zaunka dago’

kantaitan de ‘kantatzen daude’

Eguraldi gertakariekin EKARRI erabiltzen da:

elurra deka ‘elurra ari du’

kazkarra deka ‘kazkabarra ari du’

lanburra jekak ‘lanbroa ari dik’

yauria deka ‘euria ari du’

Sakanan barrena ere maiz erabiltzen dira EGON, IBILI eta EKARRI ‘ari izan’-en esanahiarekin.

2.3. NOR-NORK ordez NOR-NORI-NORK

Hego Euskal Herri gehienez bezala, NOR-NORK saileko adizkien ordez, NOR-NORI-NORK sailekoak erabiltzen dira Burundan: *ikus dezut* ‘ikusi ditut’ [*dizut*; ez *zaitut*]. Badirudi XX. mendean gertatu dela aldakuntza: Damaso Intzak 1920 aldera jasotako adizkien artean, NOR-NORK sailekoak agertzen dira orainaldian, baina NOR-NORI-NORK sailekoak ere badira iraganaldian. Kandido Izagirrek Altsasun eta Francisco Ondarrak Bakaikun 1960-70eko hamarkadan jasotakoetan, ordea, NOR-NORI-NORK sailekoak dira nagusi, eta egoera bera daukagu Iñaki Gaminderen (1985) eta Pedro Irizarren (1991) bildumetan. Urdiaini dagokionez, hiztunik zaharrenek ere NOR-NORI-NORK saileko adizkiak erabiltzen dituzte. Salbuespena, jakina, NOR ‘hura’ edo ‘haiek’ denean: *ikus dot* ‘ikusi dut’, *ikus tut* ‘ikusi ditut’.

Sakana osoan gertatu da aldakuntza, nahiz eta Iñaki Gaminderen (1985-I: 225) esanetan, Lizarragan, Arbizun eta Lakuntzan hobeto gorde diren NOR-NORK saileko jatorrak. Horixe bera dio Jose Luis Erdoziak (2001a: 261) bere saioan. Lizarragako jokabidea egiaztatuta gelditu da Javi Navarrok, Jose Navarrok eta Mari Lurdes Anduezak (2008) argitaratu berri duten liburuan.

2.4. Jokamolde bereziak

Aditzen jokamoldea dela eta, beste hiru gertakari ere badira. Alde bategatik, EREITZI (> YAITZI) ‘iritzi’ aditza NOR-NORI erara jokutzen da; ez NOR-NORI-NORK gisara. Hona hemen Urdaingo adibideak:

zer yaizten zaizu? ‘zer irizten zaizu?’

yaizten zaizain bekela in lezakezai ‘irizten zaizuen bezala egin dezakezue’

Beraz, *zaizu*, ez *diozu* eta *zaizuen*, ez *diozuen*.

Bestalde, ERREPARATU (> ERREPATU) ‘ohartu’ aditza NOR erara jotzen da; ez NOR-NORI-NORK gisara:

momoxarro jantzitakua herriko maisua zala errepatu nitzan ‘inauteriko moxorroz jantzitakoa herriko maisua zela erreparatu nintzen’

errepatu daiz nundi sartu dan hoi? ‘erreparatu haiz nondik sartu den hori?’

errepatu naiz katarro txarra dukala ‘erreparatu naiz katarro txarra daukala’

Beraz, *nintzen*, ez *nion*; *haiz*, ez *diok* / *dion* eta *naiz*, ez *diot*.

Hirugarrenik eta azkenik, aditz iragangaitzak eta BEHAR elkartzen direnean, bai IZAN eta bai *EDUN izan daiteke laguntzailea. Hona hemen Urdiaingo adibide bana:

a) *atsaldien txumia moztia fan ber naiz* ‘arratsaldean ilea moztera joan behar naiz’

b) *biher txerria hiltzia famer dot* ‘bihar txerria hiltzera joan behar dut’

2.5. Ahalera

Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako eremu zabalean modu berezian osatzen da ahalera: aspektu burutu gabeko egitura perifrastikoak erabiltzen dira edo, adibideekin azaltzeko, *hartzen ahal dut* / *ez dut hartzen ahal* gisako egiturak baliatzen dira. Aukera hori arrotza da Sakanan.

Alde batetik, ahalerako adizki trinkoak ez dira guztiz galdu, Burundan bertan indar handirik ez badute ere:

sar laike ‘sar daiteke’ [*ez sartzan ahal da*]

Beste alde batetik, berriz, ‘aditz nominalizatua + EDUKI / EGON’ egitura dago Burundan:

taberna hontan erretzia bajok ‘taberna honetan erretzea bazagok’

gaurko pilota partidua telebisiuen ikustia baduku ‘gaurko pilota jokia telebistan ikustea badaukagu’

Ekar dezadan gogora, bide batez, egitura hori aginte balioarekin ere maiz erabiltzen dela:

kapitalien ondo bizi diala? Fatia dukak! ‘hiriburuan ondo bizi direla? Joan hadi!’

irakasliok ondo bizi gala? Irakasle sartzia dukak! ‘irakasleok ondo bizi garela? Irakasle sar hadi!’

3. Aditz laguntzaileak

Burundan erabiltzen diren aditz laguntzaileak ikusiko ditugu jarraian: IZAN, *EDIN, *EDUN, *EZAN, EGIN, NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK sailetakoak. Zukakoak erakutsiko ditut atal honetan eta hiketakoak honen hurrengoan.

IZAN

Esan dezadan, lehenbizi, *-a-* dela pluraleko adizkien erroa. Aldiz, *-e-* dago Goierrin —Burundaren mugan— eta Gipuzkoa gehienez. Hauexek dira Urdaingo adizkiak: *za* ‘zara’ (ez *zera*), *ga* ‘gara’ (ez *gera*), *zai* ‘zarete’ (ez *zerate*).

Bereziki nabarmentzekoa da, era berean, singularreko 3. pertsonan *-a-* izatea erroa; ez ekialdeko *-e-*. Bokal horien arabera, hain zuzen, bitan banatzen da Euskal Herria: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoa gehienez *-a-* dago, eta *-e-*, berriz, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan. Hori dela eta, *dan* / *den*, *zan* / *zen*, *dala* / *dela*, *dalako* / *delako(tz)*, *zala* / *zela*, *zalako* / *zelako(tz)* esaten da alderdi bakoitzean. Burundak mendebaleko eta erdialdeko hizkerekin egiten du bat eta, beraz, *-a-* erroa daukaten adizkiak erabiltzen dira. Gainera, singularreko 3. pertsonatik sortu den *dana* / *dena* ‘guztia’ zenbaitzailean ere *-a-* dago: *dana*, *danak*, *danok*... Honetan Bakaiku bereizten da: *dena* da han ohikoena, baina *danok* gisakoak ere aditzen dira.

Iraganaldi pluraleko adizkietan, azkenik, *-n-* → *-nd-* egin ohi da: *zinan* ‘zinen’ → *zindan*, *ginan* ‘ginen’ → *gindan*, *zinain* ‘zineten’ → *zindain*. Iraganaldiko morfema, bestalde, *-an* da; ez *-en-*: *nitzan* ‘nintzen’, *zindan* ‘zinen’, *zian* ‘ziren’...

Hona hemen Urdiaingo adizkiak:

Orainaldia	Iraganaldia
naiz	nitzan
za	zindan
da	zan
ga	gindan
zai	zindain
dia	zian

IZAN. BALDINTZA

Aurrekoa	Ondorioa
banitz	nitzake
bazinda	zindake
balitz	litzake
baginda	gindake
bazindai	zindakei
balia	liake

Baldintza aurrekoan -KE duten adizkiak erabiltzen dira maiz: *banitzake*, *bazindake*, *balitzake*, *bagindake*, *bazindakei*, *baliake*. Ondorioan, berriz, iragan soilak ere erabiltzen dira: *nitzan*, *zindan*, *zan*, *gindan*, *zindain*, *zian*. Esate baterako, *etorko bazinda*, *pozik yonko nitzan* ‘etorriko bazina, pozik egongo nintzen’ [*nitzan*; ez *nitzake*].

***EDIN**

Oso gutxi erabiltzen da aditz hau Urdiainen. Ahalerari dagokionez, *naiteteke, zaitezke, daitezke...* gisakoen ordez, *laike* erabiltzen da pertsona guztietan: *gu fan laike hori itia* ‘gu joan gaitezke hori egitera’. Pluraleko 3. pertsonan, dena dela, *laizke* ere entzuten da *laike*-rekin batera: *haiek etor laizke* ‘haiek etor daitezke’.

Beste batzuetan *EZAN-en adizkiak erabiltzen dira *EDIN-en lekuan: *lezaket, lezakek / lezaken, lezake, lezakegu, lezakezu, lezakezai, lezakei*. Adin handiko lagunen hizkeran gehienbat, maiz entzuten dira honelako adibideak:

biher fan lezakegu zuk esandako lan hoi itia ‘bihar joan gaitezke zuk esandako lan hori egitera’

enfermedade bat etorri lezakek ‘gaixotasun bat etor daitekek’

goien yon lezake ‘goian egon daiteke’

Gainera, hiztun batzuek *lezake* adizkia erabiltzen dute beti, edozein subjektorekin: *ni fan lezake, zu fan lezake...*

Subjuntiboan, era berean, arrotzak dira *nadin, zaitezen, daitezen...* gisakoak. Aditz izenak (-TZEKO, -TZEA) erabiltzen dira horien lekuan: *zu etortzia nahi dot* ‘zu etor zaitezen nahi dut’, *etortzeko esan duet* ‘etor hadila esan diat’.

Aginteran, ordea, ohikoak dira *EDIN-en adizkiak:

***EDIN. AGINTERA**

zaitez
dailela
gaitzan
zaitezai
daitzala

***EDUN**

Burundako euskararen izaera nahasia *EDUN-en orainaldiko erroan ikusten da ondo: *-o-* eta *-au-* eta, pluralean, *-e-* agertzen dira aldi berean. Urdiainen, esate baterako, honako hauek aditzen dira: *dot* ‘dut’, *dok / don* ‘duk / dun’ eta *dau* ‘du’, alde batetik, eta *dezu* ‘duzu’, *dezai* ‘duzue’, bestetik. Pluraleko 1. pertsonan *du* ‘dugu’ esaten da Urdiainen eta, beraz, ez dago argi horren azpian *-e-*, *-o-* ala *-u-* ote dagoen. Iturmendin eta Bakaikun *dau* esaten da.

Iraganaldi singularreko adizkietan *-eu-* → *-e-* gertatu dela ematen du: *neuen* ‘nuen’ → *nen*, *neuela* ‘nuela’ → *nela*, *zeuen* ‘zuen’ → *zen*, *zeuelako(z)* ‘zuelako’ → *zelako(z)*. Emaitza bera dago orainaldi singularreko 3. pertsonan: *dauen* ‘duen’ → *den*, *dauela* ‘duela’ → *dela*, *dauelako(z)* ‘duelako’ → *delako(z)*. Hori dela eta, gisa honetako bikoteak sortzen dira: *fan dala* ‘joan dela’ / *in dela* ‘egin duela’, *fan zan* ‘joan zen’ / *in zen* ‘egin zuen’, *fan zalako* ‘joan zelako’ / *in zelako* ‘egin zuelako’...

Iraganaldi pluraleko NORK-en ezaugarria *-e-* da, gehienbat, Burundan: *genduen*, *zenduen*, *zenduein*. Bakaikun eta Sakanan barrena, ordea, *-i-* dago: *gindu(b)en*, *zindu(b)en*, *zindu(b)ein*. Dena dela, Urdiainen bertan ere *-i-* duten adizkiak erabiltzen dituzte hiztun batzuek. Gertakari hau, jakina, ondoren ikusiko diren pluraleko (*genduzen / ginduzen*) eta baldintzako (*bagendu / bagindu*) adizkietan ere gauzatzen da eta, beraz, ez dut han ere errepikatuko hemen esandakoa.

Honako adizki hauek aditzen dira maizen Urdiainen:

Orainaldia	Iraganaldia
dot	nen
dezu	zenduen
dau	zen
du	genduen
dezai	zenduein
dai	zain

***EDUN. PLURALA**

Pluraleko adizkietan -IT- da ezaugarria. Iraganaldian, ordea, -Z erabiltzen da: *genduzen* ‘genituen’, *zenduzen* ‘zenituen’, *zenduzein* ‘zenituzten’. Ez da uste izan behar -Z duten adizki horiek «bizkaitarrak» direnik. Nafarroan barrena Aezkoaraino heltzen dira *ginduze*, *zinduze*, *zinduzte* tankerako adizkiak (Camino 1997: 184), baina Sakanari dagokionez, Burundan eta Irañetan baizik ez dira erabiltzen. Tarteko herrietan -ZKI- edo -IT- dira pluralgileak: *giñuzkiyen* / *giñütuben*.

Bestalde, orainaldian guztiz galtzen da hasierako *di-*: *ditut* → *tut*. Sakana osokoa da *di-* galtzea, eta baita Euskal Herriko beste hizkera askotakoa ere, baina Sakanan bada hain orokorra ez den gertakaria: EZ partikularekin biltzen denean ere ez da *di-* agertzen. Esate baterako, *eztut* ‘ez ditut’ esaten da.

Hona hemen Urdiainen ohikoenak diren adizkiak:

Orainaldia	Iraganaldia
tut	nituen
tuzu	zenduzen
tu	zituen
tu	genduzen
tuzai	zenduzein
tuei	zitudein

***EDUN. BALDINTZA**

Adizki batzuetako *-au-* erroa da nabarmentzekoa: *banau* ‘banu’, *balau* ‘balu’ eta *lauke* ‘luke’. Jakina denez, *EDUN-en erroko emaitza hori mende-baleko hizkeren ezaugarria da. Baldintza ondorioan, ordea, *nike* ‘nuke’, *like* (eta *lauke*) ‘luke’ eta *likei* ‘lukete’ bereziak erabiltzen dira.

Aurrekoa	Ondorioa
banau	nike
bazendu	zendue
balau	like&lauke
bagendu	genduke
bazenduei	zendukei
balai	likei

Baldintza aurrekoan *-KE* duten adizki batzuk ere entzuten dira: *banike*, *bazenduke*, *bagenduke*, *bazendukei*. Ondorioan, berriz, iraganaldi soileko adizkiak erabiltzen dira maiz: *nen* ‘nuen’, *zen* ‘zuen’, *zain* ‘zuten’...

***EDUN. BALDINTZA. PLURALA**

Aurrekoa	Ondorioa
banitu	nituke
bazenduz(e)	zenduzke
balau	lituke
bagenduz(e)	genduzke
bazenduzei	zenduzkei
balituei	litukei

Baldintza aurrekoan -KE duten adizkiak ere erabiltzen dira, *banituke* gisakoak. Baldintza ondorioan, berriz, iraganaldiko adizki soilak ere badira aukeran, eta batzuetan, gainera, singularrekoak baliatzen dira pluralekoen tokian: *nituen*, *zenduen* (ez *zenduzen*), *zituén*, *genduen* (ez *genduzen*), *zenduein* (ez *zenduzein*), *zitudein*. Singularrekoek pluralekoen lekua hartzea dela eta, esan dezadan baldintza aurrekoan ere *balau* erabiltzen dela; ez *balitu*.

*EZAN

Aditz hau ahaleran eta aginteran baizik ez da erabiltzen; arrotza da subjuntiboa.

*EZAN. AHALERA

Singularrean baizik ez dira honen adizkiak erabiltzen; arrotzak dira *ditzaket*, *ditzakezu*, *ditzake*... gisakoak. Bestalde, hasieran *l-* duten adizkiak erabiltzen dira; ez *d-* dutenak: *lezake* (ez *dezake*). Urdiainen ‘aberatsa, diruduna’ adierazteko ere *lezakena* esaten da; ez *dezakeena*: *familia hoi lezakena da*.

Gorago esan denez, gainera, zenbait hitzunek *lezake* adizkia erabiltzen du pertsona guztiekin: *nik in lezake*, *zuk in lezake*... Dena dela, *EZAN gisako adizkien ordean, bestelako egiturak erabiltzen dira maiz: *ekartzia baidukat*, *ekartzeko modua dukat*, *zengeiti eztoz ekartzen?* tankerakoak.

SINGULARRA
lezaket
lezakezu
lezake
lezakegu
lezakezai
lezakei

***EZAN. AGINTERA**

tazu
tzala
tzun
tazai
tzaila

Badira nabarmentzeko bi gauza. Alde batetik, ‘ekarri’ aditzarekin *ekarne-tazu* ‘ekariezadazu’ esaten da: *ekarnetazu ura iturritik*. Bestalde, *tzala* ‘dezala’ adizkiarekin batera, *tala* ere erabiltzen da aditz nagusiak *-z* edo *-s* bukaera daukanean: *orraztala* ‘orraz dezala’, *ikustala* ‘ikus dezala’, *yakustala* ‘erakuts dezala’...

EGIN. AGINTERA. NOR-NORI-NORK

Ez dira oso ohikoak aginterako adizkiak, baina, erabiltzen direnean, EGIN erroa baliatzen da Burundan; ez *EZAN: *yakusiok / yakusion* ‘erakuts egiok / egion’, *yakusiozu* ‘erakuts egiozu’, *yakusiezu* ‘erakuts egiezu’, *gal-deiok* ‘galde egiok’, *eskatuiozu* ‘eskatu egiozu’... Kandido Izagirrek (1967) ere *autziyozu bakin* ‘utzi egiozu bakean’ (50), *agindu iozuei* ‘agindu egiozue’ (50), *galdaiola berai* ‘galde degiola berari’ (63) jaso zituen Altsasun. Jose Luis Erdoziaren (2001a: 274) esanetan, Sakana osoan daude EGIN erroaren aztarnak gisa horretako adizkietan, baina han *EZAN erroa dutenak ere badira.

NOR-NORI. ORAINALDIA

NOR-NORI saileko orainaldian *zaigu* gisako adizki orokorrak erabiltzen dira Burundan. Sakanako gainerako hizkeretan, ordea, Etxarri Aranaztik ekialdera, adizki bereziak erabiltzen dira; *-KI-* erroa daukatenak. Sakanan baizik ez dira entzuten horrelakoak: *dakit* ‘zait’, *dakizu* ‘zaizu’, *dakio* ‘zaio’,

dakigu ‘zaigu’... Hona hemen, esate baterako, Lizarragako adibidea (Navarro, Navarro eta Andueza 2008: 38):

agintzie asko gustetzen dakiyo ‘agintzea asko gustatzen zaio’

Iraganaldian, ordea, Nafarroan barrena hizkera askotan daude -KI- erro-dunak: *zakiten* / *zekiden* ‘zitzaidan’. Horrelakorik ere ez dago Urdiainen, baina bai Iturmendin eta Bakaikun, eta Olatzagutian ere baziren 80ko hamarkadan (Gaminde 1985-I: 175 eta Irizar 1991). Francisco Ondarrak (2005: 493) Bakaikun bildutakoa da ondorengo adibidea:

trena pasatu zakiten ‘trena pasatu zitzaidan’

Badirudi iraganaldiko -KI- erroa Burunda guztikoa izan dela, eta Al-tasun eta Urdiainen galdu egin dela. Horixe erakusten dute, behinik behin, Damaso Intzak (1922b: 4 eta 10) bildutako adizkiek. Hauexek jaso zituen Urdiainen: *zekidan* ‘zitzaidan’, *zekion* ‘zitzaion’, *zekigun* ‘zitzaigun’, *zeki-zun* ‘zitzaizun’, *zekizain* ‘zitzaizuen’, *zekiain* ‘zitzaien’.

Gaur egun beste lehia bat agertzen da Urdiaingo iraganaldiko adizkie-tan. Adineko hiztunek hasieran ZE- duten adizkiak erabiltzen dituzte: *ze-zaidan*, *zezaizun*, *zezaion*, *zezaigun*, *zezazain*, *zezaien*. Jende gazteak, berriz, orainaldiko adizkiei -N gehituta osatu ohi ditu: *zairan*, *zaizun*, *zaion*...

Nabarmendu dezadan, era berean, -ai- dela erroa. Arrotza da erdialde-ko euskalkiko hizkera askotan —Burunda ondoko Goierri eskualdean, esate baterako— gertatu den -ai- → -a- bilakaera: *zaira* esaten da Burundan; ez *zat*.

NOR-NORI saileko adizkiok direla eta, bada aipatu beharreko beste gertakari bat: izena galdetzeko erabiltzen dira, eta nabarmentzekoa da pluraleko adizkiak baliatzen direla. Egitura horrek bizitasun handia dauka Sakana osoan. Hona hemen Urdiaingo zenbait adibide:

nola zazkizu? ‘nola deitzen zara? / zein da zure izena?’

nola zazkio zure aitai? ‘nola deitzen da zure aita? / zein da zure aitaren izena?’

‘urria’ *zazkio gue herrien irailai* ‘urria esaten zaio gure herrian irailari’

Hona hemen Urdiaingo NOR-NORI saileko adizkirik zabalduenak:

Orainaldia	Iraganaldia
zaira	zairan
zaizu	zaizun
zaio	zaion
zaigu	zaigun
zaizai	zaizain
zaie	zaien

NOR-NORI. PLURALA

-ZKI- da pluralgilea, eta nabarmentzekoa da NOR-NORI sailean pluraleko adizkiak egotea Burundan. Egin dezagun kontu Goierrin, Burundaren ondoan, singularrekoak erabiltzen direla beti: *sagarra gustatzen zat* bezala *sagarrak gustatzen zat*. Deba ibarreko hegoaldean ere halaxe gertatzen da, Bergaran eta Antzuolan hasi eta Aramaio, Leintz Gatzaga eta Oñati bitartean. Gauza bera gertatzen zen Arabako alderdi batean antzina eta, ziuirenera, han sortutako berrikuntza da. Arabatik, dirudienez, ondoko eskualdeetara zabaldu zen, baina ez Burundara.

Bestalde, oraingo honetan ere gorago aipatu den lehia dago iraganaldian: adinekoek ZE- duten adizkiak erabiltzen dituzte (*zezaizkian*) eta -N soila dutenak gazteagoek (*zaizkian*).

Orainaldia	Iraganaldia
zaizkia	zaizkian
zaizkizu	zaizkizun
zaizkio	zaizkion
zaizkiu	zaizkiun
zaizkizai	zaizkizain
zaizkie	zaizkien

NOR-NORI. BALDINTZA

Ondorioan baizik ez dira erabiltzen, eta orainaldiko adizkiei -KE gehituta sortzen dira: *zaioke* ‘litzaioke’, esate baterako.

SINGULARRA
zairake
zaizuke
zaioke
zaiguke
zaizaike
zaieke

Berdin gertatzen da pluralean: *zaizkioke* ‘litzaizkioke’, horren adibide.

PLURALA
zaizkiake
zaizkizuke
zaizkioke
zaizkiuke
zaizkizaike
zaizkieke

NOR-NORI-NORK. ORAINALDIA

NOR-NORI-NORK sailean oso adizki bereziak daude. Gogora dezagun Euskal Herriko erdigunean erroan *-i-* erakusten duten adizkiak erabiltzen direla: *dit*, *didazue*, *digu*, *digute*... Horrelakoak daude, hain zuzen, Gipuzkoako Goierri eta Arbizun hasita ekialdera. Burundan, Etxarri Aranatzen eta Ergoienean, berriz, erroan beste bilakaera bat izan duten adizkiak erabiltzen dira.

Ikus ditzagun NOR-NORI-NORK saileko adizkien gertakaririk nabarmenak. Alde batetik, sail horretako adizki batzuk galdu egin dira eta, bizirik iraun dutenek, balio bikoitza hartu dute. Esate baterako, NORI ‘hari’ eta ‘haiei’ denean, adizki berberak erabiltzen dira: *deat* ‘diot / diet’, *deazu* ‘dizu / diezu’... NORI ‘zuri’ eta ‘zuei’ den kasu batzuetan ere berberak dira adizkiak: *dezai* ‘dizute / diguzue / dizue / dizuete’ edo *du* ‘dizugu / dizuegu’. Adizki horiek, gainera, berez NOR-NORK sailekoak dira: *dezai* ‘duzue’ eta *du* ‘dugu’. Aipatu ditugun gertakariak ohikoak dira NOR-NORI-NORK saileko adizki guztietan, singularrean nola pluralean, orainaldian bezala iraganaldian eta, beraz, kontu hau ez dut berriro aipatuko ondorengo tauletan.

NORI ‘hari’, ‘guri’ eta ‘haiei’ denean, berriz, lehian daude *-e-* eta *-i-*. Orain arte Urdiaingo aditza biltzen aritu direnek (Intza, Gaminde eta Irizar) *-e-* zutenak jaso dituzte, baina Irizarren bilduman (1991-II: 337-338 eta 343-344) *-i-* duten batzuk ere agertzen dira. Gaur egun jende helduak erabiltzen

ditu, gehienbat, *-e*- bokaldunak: *deat* ‘diot / diet’, *deazu* ‘diozu / diezu’, *dea* ‘dio / die’... Gazte jendearen artean *-i-* dutenak entzuten dira: *diat*, *diazu*, *dia*... Gertakari hau NOR-NORI-NORK saileko adizki guztietan gauzatzen da, singularrekoetan eta pluralekoetan, orainaldikoetan eta iraganaldikoetan eta, beraz, ez dut errepikatuko adizki horiek erakusterakoan.

Aipatu beharrekoa da, azkenik, ‘hark-niri’ adizkian bukaerako *-t* ez iza-tea: *dua* ‘dit’ esaten da. NORI ‘guri’ denean ere adizki bereziak erabiltzen dira: *geauzu* ‘diguzu’, *geau* ‘digu’ eta *geauei* ‘digute’. Beharbada, *derauguzu* → *deauguzu* → *deauzu* gertatu da eta, GU hobeto nabarmentzeko, *deauzu* → *geauzu* egin da gero.

Hauexek dira Urdiainen zabalduen dauden adizkiak:

	NIRI	ZURI	HARI	GURI	ZUEI	HAIEI
NIK		dezut	deat&diat		dezait	deat&diat
ZUK	duazu		deazu&diazu	geauzu&giauzu		deazu&diazu
HARK	dua	dezu	dea&dia	geau&giau	dezai	dea&dia
GUK		du	deagu&diagu		du	deagu&diagu
ZUEK	duazai		deazai&diazai	dezai		deazai&diazai
HAIEK	duai	dezai	deai&diai	geauei&giauei	dezai	deai&diai

NOR-NORI-NORK. ORAINALDIA. PLURALA

Euskara batuan -ZKI- pluralgilea erabili ohi da. Burundan ere bada, baina beste aukera batzuekin batera. Dena dela, aldeak daude herri batzuetatik besteetara. Urdiainen, esate baterako, -TZI- eta -ZKI- daude lehian: NORI ‘niri’, ‘hari’ eta ‘haiei’ denean, -TZI- erabiltzen da, eta -ZKI-, ‘zuri’ eta ‘zuei’ denean. Gaur egun NORI ‘guri’ denean ez da pluraleko adizkirik erabiltzen, baina 1920 aldera, -ZKI- zegoen horietan ere (Intza 1922b: 17-18). Iturmendin eta Bakaikun, aldiz, -TZI-ren ordez, -TZA- erabiltzen da, eta Altsasun, azkenik, -ZKI- zen aukera bakarra.

Kasu jakin batzuetan galdu egin dira NOR-NORI-NORK saileko adizkiak eta NOR-NORK sailekoek hartu dute euren lekua. Horren adibide dira hauek: *tu* (< *ditugu*) ‘dizkizugu / dizkizuegu’, *tuzu* (< *dituzu*) ‘dizkiguzu’.

NOR-NORI saileko adizkiak erakusterakoan egin dugun bezala, orain ere Burundan pluraleko adizkiak egotea nabarmendu behar da. Goierrin eta Deba ibarreko hegoaldean ez dago horrelakorik, eta Arabako alderdi batean ere ez zegoen aspaldi: *sagarra eman diot* bezala, *sagarrak eman diot* esaten da, adibidez, Goierrin. Arabako berrikuntza izan daitekeen hori, beraz, ez zen Burundara etorri.

	NIRI	ZURI	HARI	GURI	ZUEI	HAIEI
NIK		dezkizut	deatzit&diatzit		dezkizait	deatzit&diatzit
ZUK	duatzizu		deatzizu&diatzizu	tuzu		deatzizu&diatzizu
HARK	duatzi	dezkizu	deatzi&diatzi	geau&giau	dezkizai	deatzi&diatzi
GUK		tu	deatzigu&diatzigu		tu	deatzigu&diatzigu
ZUEK	duatzizai		deatzizai&diatzizai	dezai		deatzizai&diatzizai
HAIEK	duatziai	dezkizai	deatziai&diatziai	geauei&giauei	dezkizai	deatziai&diatziai

NOR-NORI-NORK. IRAGANALDIA

NOR-NORI-NORK saileko adizki jatorren ordez, NOR-NORK sailekoak erabiltzen dira NORI ‘zuri’ eta ‘guri’ den aldi batzuetan: *genduen* ‘genizun’, *zenduen* ‘zenigun’, *zenduein* ‘zeniguten’. Hiztun batzuek, gainera, *ginduen*, *zinduen* eta *zinduein* esaten dute; *-i-*, beraz, *-e-*-ren ordez. Lehia bera (*-e-* / *-i-*) dago NORI ‘hari / haiei’ denean: hiztun batzuek *gindian* ‘genion / genien’, *zindian* ‘zenion / zenien’, *zindiein* ‘zenioten / zenieten’ esaten dute. Gauza bera gertatzen da honen hurrengo taulan agertzen diren plural-leko adizkietan.

Ikus ditzagun Urdiainen zabalduen dauden adizkiak:

	NIRI	ZURI	HARI	GURI	ZUEI	HAIEI
NIK		nezun	nean&nian		nezain	nean&nian
ZUK	zenduan		zendeain&zendian	zenduen		zendeain&zendian
HARK	zuan	zezun	zean&zian	zeaun&ziaun	zezain	zean&zian
GUK		genduen	gendeain&gendian		gendezain	gendeain&gendian
ZUEK	zenduain		zendeain&zendiain	zenduein		zendeain&zendiain
HAIEK	zuain	zezain	zeain&ziain	zeaein&ziauein	zezain	zeain&ziain

NOR-NORI-NORK. IRAGANALDIA. PLURALA

Gorago esan denez, Urdiaingo pluralgileak -TZI- eta -ZKI- dira. Oraingo honetan ere -TZI- pluralgilea NORI ‘niri’, ‘hari’ eta ‘haiei’ denean erabiltzen da, eta -ZKI-, ‘zuri’ eta ‘zuei’ denean. Hala ere, NORI ‘guri’ denean, pluralgilea -Z da bi adizkitan: *zenduzen* ‘zenizkigun’ eta *zenduzein* ‘zenizkiguten’. Jakina, NOR-NORK sailekoak dira adizki horiek.

	NIRI	ZURI	HARI	GURI	ZUEI	HAIEI
NIK		nezkizun	neatzien& niatzien		nezkizain	neatzien& niatzien
ZUK	zenduatzien		zendeatzien& zendiatzien	zenduzen		zendeatzien& zendiatzien
HARK	zuatzien	zezkizun	zeatzien& ziatzien	zezukiun	zezkizain	zeatzien& ziatzien
GUK		gendez- kizun	gendeatzien& gendiatzien		gendez- kizain	gendeatzien& gendiatzien
ZUEK	zenduatzaiain		zendeatziain& zendiatziain	zenduzein		zendeatziain& zendiatziain
HAIEK	zuatziain	zezkizain	zeatziain& ziatziain	zezukiuein	zezkizain	zeatziain& ziatziain

4. Aditz trinkoak

Burundan erabiltzen diren aditz trinkoak aipatuko ditugu lehenbizi. Hiru dira iragangaitzak: EGON —bertan EON / YON esaten da—, IBILI eta JOAN —bertan FAN. Iragankorrak, berriz, lau dira: EDUKI —bertan IBILI—, EKARRI, EROAN ‘eraman’ —bertan EAN / YAN— eta JAKIN. Altsasun eta Olatzagutian behinik behin, ETORRI-ren adizkiak ere izan dira, baina gainerako lekuetan HELDU erabiltzen da esanahi horrekin: *heldu da* ‘dator’. Dena dela, ETORRI-ren adizki batzuk badira, geroago ikusiko den bezala.

Burundako gaur egungo hizkeran arrotzak dira iragangaitzen NOR-NORI saileko adizkiak: *nagokizu*, *zagozkio*, *nabilkio*, *dabilkio*, *noakio* gisakoak. Iragankorretan, era berean, NOR ‘hari’ eta ‘haiek’ denean erabiltzen dira adiz-

ki trinkoak. Ez da entzuten *nakar*, *naroa* gisakorik, baina bai, ordea, EDUKI-ren adizkiak esapide jakin batzuetan. Urdiainen, adibidez, *okatuik nukak* ‘higuindurik naukak’ (eta *nukazu* ‘naukazu’, *nukai* ‘naukate’...) ohikoak dira. Damaso Intzak (1922b: 16) ere EDUKI-ren adizki horiexek baizik ez zituen bildu: *nuka*, *nukazu*, *nukazai*...

EGON (> EON / YON)

Nabarmentzekoa da EGON-en orainaldiko adizkiak laburtzeko joera. Hori dela eta, singularrekoetan *-o-* gertatu da erroa eta *-e-*, berriz, pluralekoetan: *nago* → *no*, *gaude* → *ge*. Iraganaldian *-eu-* → *-e-* egin da pluraleko adizkietan: *geunden* → *genden*.

Orainaldia	Iraganaldia
no	nengon
ze	zenden
do	zon
ge	genden
zei	zendein
de	zen

EGON. BALDINTZA

Aurrekoa	Ondorioa
banengo	nengoke
bazende	zendeke
balo	loke
bagende	gendeke
bazendei	zendekei
bale	leke

EGON. AGINTERA

zade
dola
gaen
zadei
dela

IBILI

Pluraleko adizkietan gehienbat, *-ai-* / *-ei-* arteko ohiko lehia dago: *zaitza* / *zeitza*, *gaitza* / *geitza*... Berdin iraganaldian: *zailen* / *zeilen*, *gendaitzan* / *gendeitzan*... Lehia bera dago ondoren erakutsiko diren baldintza eta aginterrako adizkietan ere. Erabatekoa da, bestalde, bokal arteko *-b-* galtzea: *dabiltza* → *daitza*.

Orainaldia	Iraganaldia
nail(e)	nendailen
zaitza	zendaitzan
daile	zailen
gaitza	gendaitzan
zaitzai	zendaitzain
daitza	zaitzan

IBILI. BALDINTZA

Baldintza aurreko adizkiak baizik ez dira erabiltzen; arrotzak dira ondorioko *nendailke*, *lailke* gisakoak.

AURREKOA
banendail
bazendaitza
balail
bagendaitza
bazendaitzai
balaitza

IBILI. AGINTERA

nailen
zaitza
dailela
gaitzan
zaitzai
daitzala

JOAN (> FAN)

Euskara giputzean indartu diren adizkiak entzuten dira singularreko 1. eta 3. pertsonetan beste orokorrekin batera: *nua / niyua* ‘noa’, *dua / diyua* ‘doa’, *nenduan / nendiyuan* ‘nindoan’, *zuan / ziyuan* ‘zihoan’. Burundan, ordea, ez dute [x] ahoskera (*dijua*), [j] baizik (*diyua*). Sakana gehienez, Lakuntza bitartean erabiltzen dira horrelako adizkiak, betiere *nue*, *due* orokorrekin batera. Nabarmentzekoa da, bestalde, ekialdeko -ZI dela pluralgilea: *dazi* ‘doaz’.

Orainaldia	Iraganaldia
nua&niyua	nenduan&nendiyuan
zazi	zendazin
dua&diyua	zuan&ziyuan
gazi	gendazin
zazai	zendazain
dazi	zazin

JOAN. BALDINTZA

Baldintza aurrekoa erabiltzen da; arrotzak dira ondorioko *nenduake*, *luake* gisako adizkiak.

AURREKOA
banendua&banendiyua
bazendazi
balua&baliyua
bagendazi
bazendazai
balazi

JOAN. AGINTERA

nuan
zazi
duala&diyuala
gazin
zazai
dazila

ETORRI

Aginteran erabiltzen dira ETORRI-ren adizkiak: *hator*, *atoz* ‘zatoz’ eta *atozai* ‘zatozte’ Urdiainen. Era berean, *datorren urtien* bezalako esapideetan ere erabiltzen da, *heldu dan urtien* gisakoekin batera. Gorago esan denez, Altsasun eta Olatzagutian baziren ETORRI-ren trinkoak, eta nabarmentzekoa da ekialdeko -ZI zela pluralgilea: *datozi* ‘datoz’. Adizki hauek bildu zituen Izaskun Etxeberriak (1986: 130) Altsasun:

nator
zatozi
dator
gatozi
zatozai
datozi

EDUKI (> IBILI)

Dagoeneko aipatu denez, EDUKI-ren ordez, IBILI esaten da Urdiain eta Bakaiku artean, baina aditza jokatzera, EDUKI-ren ohiko adizkiak erabiltzen dira. Bada, dena dela, berezitasun bat: *-u-* gertatu da erroan Burunda gehienez, bai orainaldian eta bai iraganaldian: *dauka* → *duka*, *zeukan* → *zukan*. Iturmendin eta Bakaikun, berriz, *-e-* gertatu da: *dekat* ‘daukat’.

Berezia da erroan gertatu den *-u-* emaitza. Dakidala behintzat, ez dago Burundatik kanpo beste inon. Iturmendiko eta Bakaikuko *-e-*, berriz, ez dago horren bakarti; horixe erabiltzen da, esate baterako, Bizkai gehienez: *dekot*, *dekozu*, *deko*... Sakanan bertan ere *-e-* dago Lakuntzan.

Hona hemen Urdiaingo adizkiak:

Orainaldia	Iraganaldia
dukat	nukan
dukazu	zendukan
duka	zukan
dukau&duku	gendukan
dukazai	zendukain
dukai	zukain

EDUKI. PLURALA

Aditz honek Burundan dauzkan pluralgileak ere bereziak dira: -TZI- dago Urdiainen (*dukatzi*), eta pluralgile horixe egon da Ziordian eta Olagutian ere, Damaso Intzaren (1922b: 15-16) eta Iñaki Gaminderen (1985-II: 281) esanetan. Altsasun, berriz, -ZKI- (*dukazki*) erabili da, eta -TZA- Iturmendin eta Bakaikun (*dekatza*). Hona hemen Urdiaingoa:

Orainaldia	Iraganaldia
dukatzit	nukatzien
dukatzizu	zendukatzien
dukatzi	zukatzien
dukatzigu	gendukatzien
dukatzizai	zendukatziaian
dukatziai	zukatziaian

EDUKI. BALDINTZA

Baldintza aurreko adizkiak baizik ez dira erabiltzen. Arrotzak dira on-dorioko *nukake*, *lukake* gisakoak.

AURREKOA
banuka
bazenduka
baluka
bagenduka
bazendukai
balukai

EDUKI. BALDINTZA. PLURALA

AURREKOA
banukatzi
bazendukatzi
balukatzi
bagendukatzi
bazendukatziai
balukatziai

EKARRI

EKARRI-ren adizkietan bi gauza dira nabarmentzekoak. Alde batetik, -EKA- dago erroan; guztiz galdu da /r/ kontsonantea. Bestetik, -e- agertzen da erroan; orainaldian bezala iraganaldian: *dekat* ‘dakart’ nola *nekan* ‘nekarren’.

Orainaldia	Iraganaldia
dekat	nekan
dekazu	zendekan
deka	zekan
dekagu	gendekan
dekazai	zendekain
dekai	zekain

EKARRI. PLURALA

Urdiainen -TZI- da pluralgilea: *dekatzit* ‘dakartzat’. Honetan ere ez dagoz bat Burundako hizkerak: -TZA- dago Iturmendin eta Bakaikun (*dekatzat*) eta, Iñaki Gaminderen (1985-II: 349) esanetan, -ZKI- Altsasun eta -TZI- Olatzagutian. Ez daukagu Ziordiko berri. Hauexek dira Urdiaingoak:

Orainaldia	Iraganaldia
dekatzit	nekatzien
dekatzizu	zendekatzien
dekatzi	zekatzien
dekatzigu	gendekatzien
dekatzizai	zendekatziain
dekatziain	zekatziain

EKARRI. BALDINTZA

Baldintza aurrekoak baizik ez dira erabiltzen; arrotzak dira ondorioko *nekake*, *lekake* gisakoak.

AURREKOA
baneka
bazendeka
baleka
bagendeka
bazendekai
balekai

EKARRI. BALDINTZA. PLURALA

AURREKOA
banekatzi
bazendekatzi
balekatzi
bagendekatzi
bazendekatzai
balekatzai

EROAN (> EAN / YAN)

Badirudi aditz honen erroan aldeak egon direla hizkera batzuetatik besteetara. Altsasun *-eru-* zen, Izaskun Etxeberriak (1986: 131) bildutakoek erakusten duten bezala: *derut, deruk / derun, deru, deruu, deruzu, deruzai, derubai*. Urdiain eta Bakaiku bitartean, berriz, *-ea-* da: *deat, deazu, dea...* Urdiainen, dena dela, NOR-NORI-NORK saileko adizkietan bezala, oraingo honetan ere belaunaldien arteko aldakuntza ageri da eta gazte jendeak, gehienbat, *-ea-* → *-ia-* bihurtzen du: *diat, diazu, dia...* Hona hemen taula osoa:

Orainaldia	Iraganaldia
deat&diat	nean&nian
deazu&diazu	zendea&zendian
dea&dia	zean&zian
deagu&diagu	gendea&gendian
deazai&diazai	zendeain&zendian
deai&diai	zeain&ziain

EROAN. PLURALA

Urdiainen -TZI- da pluralgilea, ohi bezala, eta Iñaki Gaminderen (1985-II: 315) esanetan, horixe bera zegoen Olatzagutian. Iturmendin eta Bakaikun, berriz, -TZA- erabiltzen da, eta Altsasun, azkenik, badirudi -ZKI- erabili dela orainaldian, eta Burundan ohikoa den -TZI- iraganaldian. Ez daukagu Ziordiko berri.

Orainaldia	Iraganaldia
deatzit&diatzit	neatzien&niatzien
deatzizu&diatzizu	zendeatzien&zendiatzien
deatzi&diatzi	zeatzien&ziatzien
deatzigu&diatzigu	gendeatzien&gendiatzien
deatzizai&diatzizai	zendeatziain&zendiatziain
deatziai&diatziai	zeatziain&ziatziain

EROAN. BALDINTZA

Baldintza aurreko adizkiak baizik ez dira erabiltzen. Arrotzak dira ondorioko *neake*, *leake* gisakoak.

AURREKOA
banea&bania
bazendea&bazendia
balea&balia
bagendea&bagendia
bazendeai&bazendiai
baleai&baliai

EROAN. BALDINTZA. PLURALA

AURREKOA
baneatzi&baniatzi
bazendeatzi&bazendiatzi
baleatzi&baliatzi
bagendeatzi&bagendiatzi
bazendeatziai&bazendiatziai
baleatziai&baliatziai

JAKIN

JAKIN aditza dela eta, ohar bat egin behar da: Sakanan, Hego Euskal Herriko beste alderdi askotan bezala, ohitura adierazteko erabiltzen da. Gaztelania zaharrean ere bazen joera hori eta, ziurrenera, handik zabaldu zen Hego Euskal Herrira. Jose Ignazio Hualde irakasleari esker jakin dut Ameriketako alderdi batzuetan ere bizirik dagoela; Ekuadorren gehienbat (Kany 1970: 248-253).

Hirugarren pertsona baliatzen da horrelakoetan. Hona Urdiaingo lekukotasuna:

maietzien badaki elurra iten ‘maiatzean elurra egin ohi du’

Iruñean bizi dian senidiek badakiai San Pedrotan etortzen ‘Iruñean bizi diren senideak San Pedroetan etorri ohi dira’

Hauxe da Urdiaingo aditz taula:

Orainaldia	Iraganaldia
dakit	nakien&nendakien
dakizu	zendakien
daki	zakien
dakigu	gendakien
dakizai	zendakiein
dakiai	zakiain

Urdiainen gaur egun ez dago pluraleko adizki berezirik; singularreko berberak erabiltzen dira pluralean. Iñaki Gamindek (1985-II: 245) -TZA- pluralgiledunak jaso zituen Olatzagutian, eta horrelakoak erabiltzen dira Iturmendin eta Bakaikun gaur egun: *dakitzat*. Gainerako aditzetan ez bezala, badirudi honetan -TZA- izan dela Burundako pluralgilea, Altsasun ez bestean. Herri horretan ohikoa izan denez, -ZKI- (*dakizkit*) erabili ohi zen, Kandido Izagirrenen (1967) eta Izaskun Etxeberriaren (1986) lekukotasunen arabera.

JAKIN. BALDINTZA

Ohi bezala, baldintza aurreko adizkiak erabiltzen dira; arrotzak dira ondorioko *nakike*, *lakike* gisakoak. Urdiainen, gainera, ez dago objektu pluralekorik.

AURREKOA
banaki
bazendaki
balaki
bagendaki
bazendakiai
balakiai

***IO ‘ESAN’**

Taulan ikusten denez, iraganaldian ez dira denak erabiltzen.

Orainaldia	Iraganaldia
diot	nioen
diozu	
dio	zion
diogu	
diozai	
dioi	zioin

Beste aditz trinko batzuk

Gainerako aditz trinkoak ez dira ohikoak; aztarna gutxi batzuk baizik ez dira gelditzen: *diuri / dirui* ‘dirudi’, *zirudien* eta *daio* ‘dario’. Oso ezaguna da, era berean, EUTSI-ren *otso* ‘tori, har ezak’ adizkia.

HITANO A

1. Ezaugarri orokorrak

Zuketa eta hiketa erabiltzen dira Urdiainen; arrotza da berorika. Hiztunik zaharrenek ere ez dute tratamendu hori sekula erabili. Azkenaldian, Euskal Herriko beste alderdi askotan bezala, Urdiainen ere hitanoak gainbehera egin du. Guztiz ohikoa da 40 bat urtetik gorakoen artean, gehienbat gizonezkoen hizketan, baina gazteek gutxi erabiltzen dute. Gainera, gaur egungo guraso gehienek ez diete seme-alabei erakutsi, nahiz eta eurak —gizonezkoak, behinik behin— lagunartean hiketan aritzen diren.

Badirudi hitanoaren aurkako jarrera egon dela aurreko garaietan. Altsasun, esate baterako, lekukotasun garbiak jaso dira. Pedro Irizarren aginduz, Francisco Ondarra ibili zen herri horretan aditza biltzen eta hauxe esan zioten hitanokoak zirela eta: «Hiketakoa ez omen zen erabiltzen Altsasun, hori Urdingoen gauza omen zen, oso ‘desprestigiatua’ Altsasun». Iritzi bera jaso zuen beste lekuko batengandik: «Hiketazkoak, berak noizean behin esan zituenak ere bai, Urdiaingoak omen dira, bajuak». Eta hirugarren batengandik: «Adibidez, *yiz* eta *yitzan* Urdingoak direla esaten zuen, lotsagarri balitz bezala hoiek erabiltzea» (Irizar 1991-II: 263).

Urdiainen bertan bi iritziak entzun ditut. Batzuendako ‘latza’, ‘ordinarioa’, ‘zakarra’ da hiketa, eta ez dute oso begiko. Beste batzuendako, ordea, gertutasuna eta konfiantza adierazten du eta horixe dute lagun artean erabiltzeko gogoko.

Hiketa erabiltzeko baldintzak beste alderdi batzuetakoen antzekoak dira: ezagunen artean baliatzen da, bai adin berekoen artean eta baita gazteagoekin hitz egiterakoan ere. Gazteek, ordea, zuketan erantzuten diete zaharragoei, euren arteko adin tartea zabal samarra denean. Emakumeen artean eta gizonezkoak emakumeekin ari direnean, maizago erabiltzen da zuketa, baina noketan aritzen direnak ere badira.

Beste alderdi batzuetan bezala, era berean, perpaus nagusian erabiltzen da hitanoa; ez mendekoetan. Beraz, *biher etorko nauk* bai, baina *biher etorko*

naizela esan duet (ez biher etorko naukela). Baldintzan ere ez da hitanoa erabiltzen, ‘hi’-ri dagozkion adizkietan ez bada. Beraz, *korrikan etorko bahitz, izarditan yonko hitzake* esaten da, baina *korrikan etorko banitz, izarditan yonko nitzake*.

Burundako hiketako adizkien egiturari dagokionez, hiru gertakari eduki behar ditugu kontuan:

1.1. NOR-en ezaugarria: *j-*

Mendebaleko euskaran bezala, *j-* da NOR-i dagokion ezaugarria hiketako adizki askotan. Nabarmentzekoa da, gainera, [x] ahoskera daukala, Deba ibarrean eta Bizkaiko Artibai eskualdean bezala. Halaxe gertatzen da *EDUN-en adizkien pluralean: *jituet / jitunat* ‘ditiat / ditinat’, *jituk / jitun* ‘ditik / ditin’... Singularrean, ordea, Euskal Herri gehieneko *d-* erabiltzen da: *diet / dinat, dik / din*... Iraganaldiko adizkietan ere Euskal Herri gehieneko *z-* dago: *ziken / zinen* ‘zian / zinan’.

Trinko iragangaitzen orainaldian ere *j-* dago NOR ‘hura / haiek’ denean: *jok / jon* ‘zagok / zagon’, *jeilek / jeilen* ‘zabilek / zabilen’... Iraganaldian *z-* dago: *zoken / zonen* ‘zegoan / zegonan’.

Trinko iragankorren orainaldiko adizki guztietan ere *j-* dago, ‘hik’ pertsonari dagozkionetan izan ezik: *jukat / jukanat* ‘zaukaat / zaukanat’, *jakiei / jakinai* ‘zakitek / zakiten’... Oraingo honetan ere *z-* dago iraganaldian: *zukaken / zukanen* ‘zeukaan / zeukanan’.

NOR-NORI-NORK sailean, era berean, *j-* dago, ‘hik’, ‘hiri’ eta ‘guri’ agertzen diren adizkietan ez beste guztietan: *jeat / jeanat* ‘zioat / zionat’ eta ‘zieat / zienat’, *juak / juan* ‘zidak / zidan’.

Adizki horiek guztiok EZ partikularekin elkartzen direnean, *ez + *j-* → *etx-* da ondorioa: *ez jok* ‘ez zagok’ → *etxok*, *ez jakik* → *etxakik*, *ez jukat* → *etxukat*.

1.2. *y-* / *ø-* singularreko 2. pertsonan

Euskara nafarraren bereizgarria da ‘hi’-ri dagozkion adizkietan *y-* gartzea. Burundara ere heldu da joera, baina ez da erabatekoa. Urdiainen, esate

baterako, *yen* ‘huen / higon’, *yuan* / *yuanen* ‘hidan’, *yengon* ‘hengoen’, *yendabilen* ‘henbilen’, *yua* ‘hoa’, *yendiyuan* ‘hindoan’, *yukan* ‘heukan’, *yekan* ‘hekarren’, *yea*n ‘heraman’, *yakien* ‘hekien’... esaten da, baina *y-* hori ez da agertzen beste askotan.

1.3. -EI / -AI eta -E- / -I- lehia

Zukako adizkietan bezala, hitanokoetan ere -EI / -AI lehia dago pluraleko 2. eta 3. pertsonetan: *diai* / *diei* ‘ditek’, *juai* / *juei* ‘zidatek’, *duai* / *duei* ‘diate’, *dezki* / *dezkiei* ‘dizkiate’...

NOR-NORI-NORK saileko adizkietan, era berean, -e- eta -i- lehia dira NORI ‘hari’, ‘guri’ eta ‘haiei’ denean, eta zukako adizkiak ikusterakoan esan dugunez, belaunaldien arabera da, gehienbat, aukera. Hitanoan ere -e- erabiltzen dute adinekoek eta -i- gazteagoek: *jeat* / *jeanat* eta *jiat* / *jianat* ‘zioat / zionat’ eta ‘zieat / zienat’, *geauk* / *geaun* eta *giauk* / *giaun* ‘diguk / digun’ eta ‘ziguk / zigan’, esate baterako.

2. Aditz laguntzaileak

Gaur egun Urdiainen erabiltzen diren hitanoko adizkiak ikusiko ditugu jarraian.

IZAN

Hauexek dira nabarmentzeko gertakariak. Alde batetik, ‘hi’-ri dagozkion adizkiak *hai*z orokorra eta Urdiaingo *dai*z berezia dira. ‘Hura’-ri dagozkionak, berriz, *dok* eta *don* ‘duk / dun’ dira eta, ‘haiei’-ri dagozkionetan, hasierako *di-* galtzen da, Burundan ohikoa den bezala: *tuk* / *tun* ‘dituk / ditun’. Iraganaldian, azkenik, Burundako -nd- kontsonante multzoa daukagu ‘gu’-ri dagozkion adizkietan: *gindaken* / *gindanen* ‘gintuan / gintunan’. Bereziak dira iraganaldiko adizkiak, zukakoetatik atera dira: *nitzan* → *nitzaken* / *nitzanen*, *zan* → *zaken* / *zanen*... Inguru guztian ez dut beste inon horrelakorik aditu.

Orainaldia	Iraganaldia
nauk / naun	nitzaken / nitzanen
haiz&daiz	hitzan
dok / don	zaken / zanen
gaituk / gaitun	gindaken / gindanen
tuk / tun	ziaken / zianen

Baldintzan *bahitz* eta *hitzake* erabiltzen dira.

***EDUN**

Orainaldia	Iraganaldia
diet / dinat	niken / ninen
dok / don	yen
dik / din	ziken / zinen
diu / dinu	genduken / gendunen
diei / dinai	zikein / zinein

***EDUN. PLURALA**

Iraganaldian ‘guk’-i dagozkion adizkietan *genduzeken / genduzenen* ‘genitian / genitinan’ adizki jatorren ordeaz, singularrekoak ere erabiltzen dira: *genduken / gendunen*.

Orainaldia	Iraganaldia
jitu ^t et / jitu ⁿ at	nituken / nitunen
tuk / tun	(y)ituen
jitu ^k / jitu ⁿ	zituken / zitunen
jitu / jitu ⁿ u	genduzeken / genduzenen
jitu ^e i / jitu ⁿ ai	zitu ^k ein / zitu ⁿ ein

Baldintzan *bahike / bayau* eta *hike* esaten dira singularrean, eta *bayituke* eta *yituke* pluralean. Ikusten denez, -KE agertzen da (*bahike, bayituke*) baldintza aurrekoetan.

NOR-NORI

Iraganaldian bi aukera ageri dira. Adin handikoek ZE- duten adizkiak erabiltzen dituzte: *zezairaken / zezairanen*. Gaur egungo urdiaindar gehienek, ordea, ZE- hori gabeak baliatzen dituzte.

Orainaldia	Iraganaldia
zairak / zairan	zairaken / zairanen
zaik / zain	zaiken / zainen
zaiok / zaion	zaioken / zaionen
zaiguk / zaigun	zaiguken / zaigunen
zaiek / zaien	zaieken / zaienen

NOR-NORI. PLURALA

Orainaldia	Iraganaldia
zaizkiak / zaizkian	zaizkiaken / zaizkianen
zaizkik / zaizkin	zaizkiken / zaizkinen
zaizkiok / zaizkion	zaizkioken / zaizkionen
zaizkiguk / zaizkigun	zaizkiguken / zaizkigunen
zaizkiek / zaizkien	zaizkieken / zaizkienen

Baldintza aurreko adizkiak baizik ez dira erabiltzen, eta horiek ere ez asko. Singularrean *hiri balitzaike* (ez dut emakumeena jaso) eta, pluralean, *hiri balitzaizkik(e) / balitzaizkin*.

NOR-NORI-NORK. ORAINALDIA

	NIRI	HIRI	HARI	GURI	HAIEI
NIK		duet / dunat	jeat / jeanat & jiat / jianat		jeat / jeanat & jiat / jianat
HIK	duak / duan		deak / dean & diak / dian	geauk / geaun & giauk / giaun	deak / dean & diak / dian
HARK	juak / juan	duk / dun	jeak / jean & jiak / jian	geauk / geaun & giauk / giaun	jeak / jean & jiak / jian
GUK		diu / dinu	jeagu / jeanu & jiagu / jianu		jeagu / jeanu & jiagu / jianu
HAIEK	juai / juanai	duai / dunai	jeai / jeanai & jiai / jianai	geaueik / geauein & giaueik / giauein	jeai / jeanai & jiai / jianai

NOR-NORI-NORK. ORAINALDIA. PLURALA

	NIRI	HIRI	HARI	GURI	HAIEI
NIK		dezkiat / dezkinat	jeatziet / jeatzinat & jiatziet / jiatzinat		jeatziet / jeatzinat & jiatziet / jiatzinat
HIK	duatzik / duatzin		deatzik / deatzin & diatzik / diatzin	gezkiuk / gezkiun	deatzik / deatzin & diatzik / diatzin
HARK	juatzik / juatzin	dezkik / dezkin	jeatzik / jeatzin & jiatzik / jiatzin	gezkiuk / gezkiun	jeatzik / jeatzin & jiatzik / jiatzin
GUK		dezkiu / dezkinu	jeatzigu / jeatzinu & jiatzigu / jiatzinu		jeatzigu / jeatzinu & jiatzigu / jiatzinu
HAIEK	juatziai / juatzinai	dezkiiai / dezkinai	jeatziai / jeatzinai & jiatziai / jiatzinai	gezkiueik / gezkiunai	jeatziai / jeatzinai & jiatziai / jiatzinai

NOR-NORI-NORK. IRAGANALDIA

	NIRI	HIRI	HARI	GURI	HAIEI
NIK		nuken / nunen	neaken / neanen & niaken / nianen		neaken / neanen & niaken / nianen
HIK	yuan / yuanen		yan / yanen	yen	yan / yanen
HARK	zuaken / zuanen	zuken / zunen	zeaken / zeanen & ziaken / zianen	zien&ziken / zinen&zeaunen	zeaken / zeanen & ziaken / zianen
GUK		genduken / gendunen	gendeaken / gendeanen & gendiaken / gendianen		gendeaken / gendeanen & gendiaken / gendianen
HAIEK	zuakein / zuanein	zukein / zunein	zeakein / zeanein & ziakein / zianein	zeaukein / zeaunein	zeakein / zeanein & ziakein / zianein

NOR-NORI-NORK. IRAGANALDIA. PLURALA

	NIRI	HIRI	HARI	GURI	HAIEI
NIK		nezkiken / nezkinen	neatziken / neatzinen & niatziken / niatzinen		neatziken / neatzinen & niatziken / niatzinen
HIK	yuatzien		yatzien / yatzinen	yituen	yatzien / yatzinen
HARK	zuatziken / zuatzinen	zezkiken / zezkinen	zeatziken / zeatzinen & ziatziken / ziatzinen	zezkiuken / zezkiunen	zeatziken / zeatzinen & ziatziken / ziatzinen
GUK		gendezkiken / gendezkinen	gendeatziken / gendeatzinen & gendiatziken / gendiatzinen		gendeatziken / gendeatzinen & gendiatziken / gendiatzinen
HAIEK	zuatzikein / zuatzinein	zezkikein / zezkinen	zeatzikein / zeatzinein & ziatzikein / ziatzinein	zezkiukein / zezkiunein	zeatzikein / zeatzinein & ziatzikein / ziatzinein

3. Aditz trinkoak

EGON (> EON / YON)

Orainaldia	Iraganaldia
nok / non	nengoken / nengonen
hago	yengon
jok / jon	zoken / zonen
gek / gen	gendecken / gendenen
jek / jen	zeken / zenen

Baldintzan *bayengo* eta *yengoke* erabiltzen dira, eta aginteran *hago*.

IBILI

Adizki hauen erroan *-ai-* / *-ei-* lehian daude: *nailek / nailen* eta *neilek / neilen*, esate baterako. Dena dela, *-ei-* iruditu zait zabalduena.

Orainaldia	Iraganaldia
neilek / neilen	nendeileken / nendeilenen
habil	yendabilen
jeilek / jeilen	zeileken / zeilenen
geitzak / geitzan	gendeitzaken / gendeitzanen
jeitzak / jeitzan	zeitzaken / zeitzanen

Baldintza aurrekoa baizik ez da erabiltzen: *bayendabil*. Aginteran *habil*.

JOAN (> FAN)

Singularreko 1. eta 3. pertsonetan Gipuzkoa aldean indartu diren adizkiak eta Euskal Herriko orokorrak daude lehian: *nuek / nuen* eta *niyuek / niyuen*, *juek / juen* eta *jiyuek / jiyuen*. Pluralgilea ekialdeko *-ZI* da: *gazik / gazin*.

Orainaldia	Iraganaldia
nuek / nuen & niyuek / niyuen	nenduaken / nenduanen & nendiyuaken / nendiyuanen
yua	yenduan¥diyuan
juek / juen & jiyuek / jiyuen	zuaken / zuanen & ziyuaken / ziyuanen
gazik / gazin	gendaziken / gendazinen
jazik / jazin	zaziken / zazinen

Baldintza aurrekoa baizik ez da erabiltzen, baina bi aukera daude: *bayendua* eta *bayendiyua*. Aginteran *hua* orokorra eta *ordik / ordin* bereziak erabiltzen dira: *ordik taberna, ta ekartzak tabakua!* ‘hoa tabernara, eta ekar ezak tabakoa!’.

ETORRI

Urdiainen aginterako *hator* baizik ez da erabiltzen. Olatzagutian eta Altsasun, ordea, sail osoa egon da. Izaskun Etxeberriak (1986: 130) hauexek bildu zituen orainaldian Altsasun:

natok / naton
hator
jatok / jaton
gatozik / gatozin
jatozik / jatozin

EDUKI (> IBILI)

Orainaldia	Iraganaldia
jukat / jukanat	nukaken / nukanen
dukak / dukan	yukan
jukak / jukan	zukaken / zukanen
jukagu / jukanu	gendukaken / gendukanen
jukai / jukanai	zukakein / zukanein

EDUKI. PLURALA

Orainaldia	Iraganaldia
jukatziet / jukatzinat	nukatziken / nukatzinen
dukatzik / dukatzin	yukatzien / yukatzinen
jukatzik / jukatzin	zukatziken / zukatzinen
jukatzigu / jukatzinu	gendukatziken / gendukatzinen
jukatziei / jukatzinai	zukatzikein / zukatzinein

Baldintza aurreko adizkiak baizik ez dira erabiltzen: *bayuka* singularran eta *bayukatzi* pluralean.

EKARRI

Orainaldia	Iraganaldia
jekat / jekanat	nekaken / nekanen
dekak / dekan	yekan
jekak / jekan	zekaken / zekanen
jekagu / jekanu	gendekaken / gendekanen
jekai / jekanai	zekakein / zekanein

EKARRI. PLURALA

Orainaldia	Iraganaldia
jekatziet / jekatzinat	nekatziken / nekatzinen
dekatzik / dekatzin	yekatzien / yekatzinen
jekatzik / jekatzin	zekatziken / zekatzinen
jekatzigu / jekatzinu	gendekatziken / gendekatzinen
jekatziei / jekatzinai	zekatzikein / zekatzinein

Baldintza aurreko adizkiak baizik ez dira erabiltzen: *bayeka* singularreran eta *bayekatzi* pluralean.

EROAN (> EAN / YAN)

Orainaldia	Iraganaldia
jeat / jeanat & jiat / jianat	neaken / neanen & niaken / nianen
deak / dean & diak / dian	yean
jeak / jean & jiak / jian	zeaken / zeanen & ziaken / zianen
jeagu / jeanu & jiagu / jianu	gendeaken / gendeanen & gendiaken / gendianen
jeai / jeanai & jiai / jianai	zeakein / zeanein & ziakein / zianein

EROAN. PLURALA

Orainaldia	Iraganaldia
jeatziet / jeatzinat & jiatziet / jiatzinat	neatziken / neatzinen & niatziken / niatzinen
deatzik / deatzin & diatzik / diatzin	yatzien / yatzinen & yendatzien / yendatzinen
jeatzik / jeatzin & jiatzik / jiatzin	zeatziken / zeatzinen & ziatziken / ziatzinen
jeatzigu / jeatzinu & jiatzigu / jiatzinu	gendeatziken / gendeatzinen & gendiatziken / gendiatzinen
jeatziei / jeatzinai & jiatziei / jiatzinai	zeatzikein / zeatzinein & ziatzikein / ziatzinein

Baldintza aurreko adizkiak baizik ez dira erabiltzen: *bayea* singularrean, *bayatzien* eta *bayendatzien* pluralean.

JAKIN

Orainaldia	Iraganaldia
jakiet / jakinat	nakiken / nakinen
dakik / dakin	yakien
jakik / jakin	zakiken / zakinen
jakigu / jakinu	gendakiken / gendakinen
jakiei / jakinai	zakikein / zakinein

Ez dago pluraleko adizki berezirik; singularreko berberak erabiltzen dira: *hizkuntza danak jakik*. Baldintza aurrekoa baizik ez da erabiltzen, baina bi aukera daude: *bayaki* eta *bayendaki*.

***IO ‘ESAN’**

Ez dira erabiltzen 1. pertsonetako adizkiak, ‘nik’-i eta ‘guk’-i dagozkienak.

diok / dion
jiok / jion
jioi / jionai

Beste trinko batzuk

Erakutsi diren adizkiez gainera, IRUDITU-ren bi erabiltzen dira Urdiainen: *jiurik / jiurin* ‘zirudik / zirudin’ eta *jiuriai / jiurina* ‘ziruditek / ziruditen’.

SINTAXIA

Sail honetan Burundako euskararen gertakari bereziak baizik ez dira aipatuko. Alde batera utziko dira Euskal Herri osoan eta euskalki guztietan erabiltzen direnak. Esate baterako, erlatibo perpausetako ‘adizkia + -EN’ (*heldu dan neskia ezta urdindarra*), edo perpaus osagarrietako -ELA (*laister helduko dala uste dot*). Ondorengo hauxe da, beraz, Urdiainen bildutako lanabesetan nabarmentzekoa iruditu zaidana.

1. Perpaus hautakariak

1.1. Sakanan arrotza da NAHIZ juntagailu hautakaria; gazteen hizkeran baizik ez da aditzen. Ez da esaten *beltza nahiz zuria berdin dit* gisakorik. Horrelakoetan BAI... BAI..., NOLA... NOLA..., -ELA... -ELA egiturak erabiltzen dira eta, batez ere, EDO (> o). Hona hemen Urdiaingoa adibide bana:

bai gizakiek bai emakumiek egurra txikitzen ibiltzen dia ‘bai gizon-
nezkoak bai emakumeak egurra txikitzen ibiltzen dira’

nola astegunetan nola jaiegunetan arropa zaharrakin ibiltzen da ‘nola
astegunetan nola jaiegunetan arropa zaharrekin ibiltzen da’

Olentzero dala, KORRIKA dala, inguatzen da jendia ‘Olentzero dela,
KORRIKA dela, inguratzen da jendea’

beltza o txuria, zein nahi dezu? ‘beltza edo zuria, zein nahi duzu?’

1.2. Arrotza da, era berean, ALA juntagailua; EDO erabiltzen da beti:

zer nahi dok, sarra o udaria? ‘zer nahi duk, sagarra edo udarea?’

2. Aurkaritza

Sakanan arrotza da BAIZIK. Eskualde horretan BAIA/BEA ‘baina’ eta ORDIA ‘ordea’ erabiltzen dira. Adibide hauek jaso ditut Urdiainen:

ezaira haragia gustatzen, bea bai arraia ‘ez zait haragia gustatzen,
baina bai arraina’

Mikel zalakuen, Aitor zan ordia ‘Mikel zelakoan, Aitor zen ordea’

Jakina, inolako juntagailurik eta lokailurik gabe ere adierazten da:

ezan zaldia; bihorra zan ‘ez zen zaldia; behorra zen’

3. EZ EZE... ERE emendiozkoa

EZ EZE... ERE erabiltzen da Sakanan, beste alderdi batzuetako EZ EZIK... ERE egituraren ordeiz:

gue mutila ez eze, be lagun guztiek e han zian ‘gure mutila ez eze,
bere lagun guztiak ere han ziren’

aterpetxia ez eze, jatetxia e zabalduko dai Urdinen ‘aterpetxea ez
eze, jatetxea ere zabalduko dute Urdiainen’

4. EZPA ‘izan ezik’

Urdiainen EZPA (<EZ BADA) erabiltzen da ‘izan ezik’ esanahiarekin. Asko entzuten da eguneroko jardunean. Hona hemen zenbait adibide:

BERRIA ezpa, gainiako periodiku guztiek yosten jituei ‘BERRIA izan
ezik, gainerako egunkari guztiak erosten ditiztek’

hi ezpa, beste guztiek agertu tuk ‘hi izan ezik, beste guztiak agertu
dituk’

bukaera ezpa, perfekto yon zan ‘bukaera izan ezik, perfekto egon
zen’

5. Kausazko perpausak

Kausazko perpausetan ondorengo gertakariok nabarmenduko ditut:

5.1. ‘NOLABAIT + aditza + -en’. Asko erabiltzen da Sakana osoan azalpenak emateko orduan. Hona hemen Urdiaingo zenbait adibide:

Urdingo basuen, nolabait ointo asko atatzten dan, egunio etortzen dia Probintzitik ‘Urdiaingo basoan, nolabait onddo asko ateratzen den, egunero etortzen dira Gipuzkoatik’

Alsun, nolabait taberna gahio don, hautza faten ga asteburutan ‘Altsasun, nolabait taberna gehiago dagoen, hara joaten gara asteburuetan’

nolabait andragaia Iruñakua dukan, bertan yosi dai etxia ‘nolabait andregaia Iruñekoa daukan, bertan erosi dute etxea’

5.2. Burundan arrotza da BAIT-. Eskualde honetan, beraz, ez da erabiltzen *autoz joango gara, urruti baitago* tankerako esapiderik. Aldiz, ohikoa da Etxarri Aranaztik ekialdera.

5.3. Burundan BAIT- horren ordeaz, ‘aditza + ETA’ eta ‘aditza + -ELA ETA’ egiturak erabiltzen dira maiz. Hona hemen Urdiaingo adibideak:

astelehen hortan in zen egualdi kaxkarra zala ta, hurrengo eguniarate autzi ber izan zain ‘astelehen horretan egin zuen eguraldi kaxkarra zela eta, hurrengo egunera arte utzi behar izan zuten’

usuek ekar tueila ta, afaia inko du Tintiniturrin ‘usoak ekarri dituztela eta, afaria egingo dugu Tintiniturrin («Tintiniturri», Urdiaingo elkarte baten izena)’

heldu’an lanbatien Alsua fanko gaituk, feiek tuk eta ‘heldu den larunbatean Altsasura joango gaituk, feriak dituk eta’

Egitura hauek Sakana osoan erabiltzen dira.

5.4. Burundan -ELAKO erabiltzen da gehienetan, baina adineko hiztunek -ELAKOZ ere maiz baliatzen dute. Hauexek entzun ditut, besteak beste, Urdiainen:

pistinak, guk in tugulakoz, guria[k] tia ‘igerilekuak, guk egin ditugulakoz, gureak dira’

ez ne aita zalakoz, bea oso ondo zukan burua ‘ez nire aita zelakoz, baina oso ondo zeukan burua’

Sakanako gainerako alderdietan ere erabiltzen da, baina -ELAKOS ahoskerarekin Etxarri Aranaztik ekialdera.

5.5. ‘ZENGAITI(K) + aditza + -EN’. Maiz erabiltzen da Sakana osoan:

zengeiti indiaba asko jaso tugun, pozik ge ‘zerengatik indaba asko jaso ditugun, pozik gaude’

5.6. ‘ZENGAITI(K) + aditza + ETA’. Ez da asko erabiltzen:

basurdiak hil tuei, zengeiti asko de ta ‘basurdeak hil dituzte, zerengatik asko daude eta’

5.7. ‘ZENGAITI(K) + adizki hutsa’. Maiz entzuten da:

gaztiak Altsura faten dia, zengeiti herrien taberna bakarra do ‘gazteak Altsasura joaten dira, zerengatik herrian taberna bakarra dago’

5.8. -TEAGAITI(K) (> -TIAITI(K) / -TIEITI(K)). Hau ere maiz erabiltzen da:

Piriniota faten dia, Turra ikustiaitak ‘Pirinioetara joaten dira, Tourra ikusteagatik’

6. Kontzesio perpausak

Kontzesio perpausen sailean ondorengo gertakariok nabarmenduko ditugu:

6.1. ‘(BALDIN) BA + aditza + ERE’. Hauxe iruditu zait egiturarik ugariena Sakanan. Hona Urdiaingo lekukotasuna:

diru asko baldin badauka ere, ezta iyoire ematen ‘diru asko baldin badauka ere, ez dio inori ere ematen’

6.2. ‘Partizipioa + -TA ERE’. Ugaria da. Urdiaingoak dira adibideak:

antejuek jantzita’re eztik piperrik ikusten ‘betaurrekoak jantzita ere ez dik piperrik ikusten’

onduta yonda’re guaiako frutiek etxukak gustoik ‘helduta egonda ere oraingo fruituak ez zaukat gusturik’

Nabarmentzekoa da honelakoetan ez dela ‘Partizipioa + -RIK’ erabiltzen.

6.3. Perpaus nagusia ezezkoa denean, -GAITI(K) ere maiz erabiltzen da Sakanan:

gasti izatiati ezta hobio ‘garesti izateagatik ez da hobeago’

6.4. BAINA perpaus menderatuaren bukaeran erabiltzen da maiz Burundan:

Eskolia oso zaharra duku, guai konpondu in ber dai bea ‘eskola oso zaharra daukagu, orain konpondu egin behar dute baina’

pistinata jende asko faten da, urak hotzak yoten dia bea ‘igerilekue-tara jende asko joaten da, urak hotzak egoten dira baina’

Sakanan barrena ere ezaguna izan da egitura hori, baina gaur egun ez da askorik erabiltzen. Hona hemen Lizarragan bildutako adibide bat (Navarro, Navarro eta Andueza 2008: 111):

inko ot, gogo aundiik ez dakat beia ‘egingo dut, gogo handirik ez daukat baina’

6.5. Gazteen hizketan ‘NAHIZ ETA + partizipioa’ aditu izan dut, baina ez adinekoenean:

nahiz eta geizki yon, lania fan da ‘nahiz eta gaizki egon, lanera joan da’

Nabarmentzekoa da, hala ere, partizipioa erabiltzen dela beti (*yon* ‘egon’); ez aditz jokatua (*yon den* ‘egon den’).

7. Perpaus osagarriak

Perpaus osagarriak direla eta, Sakana osoko bi gertakari nabarmendu behar dira. Alde batetik, perpaus osagarrietako aditz nagusia ezezkakoa denean, menderatuak -ENIK morfema har dezake:

eztot uste Herrientxia karga au artzeko pres donik ‘ez dut uste Udaletxea erantzukizun hau hartzeko prest dagoenik’

eztot uste holakoik pasatuko danik gahio ‘ez dut uste horrelakorik pasatuko denik gehiago’

Bestalde, arrotza da -EN menderagailua. Ez da esaten *uste dut laster helduko den* gisakorik.

8. Denborazko perpausak

Denborazko perpausetan ondorengo gertakariok nabarmenduko ditugu:

8.1. ‘Aditza + -ELA’ egitura erabiltzen da Sakanan; arrotza da -ELARIK. Hona hemen Urdiaingo bi adibide:

hileta funtziotan gendela, izugarrizko elurra bota zen ‘hileta elizki-zunetan geundela, izugarrizko elurra bota zuen’

Etxarritik heldu gindala, kontrolien gelditu ziauein ‘Etxarri Aranaztik gentozela, kontrolean gelditu ziguten [gintuzten]’

8.2. ‘Aditza + -ENEAN’ egitura oso ohikoa da Sakanan. Hona Urdiaingo le-kukotasuna:

Urbasa ailatatu gindanien, lainu itxia sartu zaigun ‘Urbasara heldu ginenean, laino itxia sartu zitzaigun’

San Pedroko ermitia konpondu zainien, txokolatia jan genduken
‘San Pedroko ermita konpondu zutenean, txokolatea jan ge-nian’

8.3. ‘HARIK ETA + aditza + ARTE / ARTEAN / -RAINO’. Oso emankorra da:

haik eta gosaldtu arte enen yaten ardoik ‘harik eta gosaldtu arte ez nuen edaten ardorik’

indar haundia in ber zan, haik eta kargia dominatu arte ‘indar handia egin behar zen, harik eta zama menderatu arte’

haik eta gerria despeitu artien eon gindaken alkarrekin ‘harik eta gerra bukatu artean egon gintuan elkarrekin’

Denbora balioarekin ez eze, lekua adierazteko ere erabiltzen da. Bakaikun jaso dut ondorengo adibidea:

Teidera fan gindan ta haik eta goraindo iyo nitzan ‘Teidera joan ginen eta harik eta goraino igo nintzen’

Sakanan barrena ere maiz aditzen dira horrelako adibideak.

8.4. ‘Partizipioa + ORDUKO’. Oso ohikoa da, baina esan behar da ‘orduko’ horren esanahia ‘baino lehen’ dela Burundan. Etxarri Aranatzen hasita ekial-

dera, ordea, ‘bezain laster’ balioarekin entzun dut. Iturmendikoak dira ondorengo adibideak:

argitu orduko fan zan ‘eguna argitu baino lehen joan zen’

yakusiok honi leitzen da eskribitzen soldau fan orduko ‘erakutsi ez zaiok honi irakurtzen eta idazten soldadu joan baino lehen’

9. Moduzko perpausak

Sakana osoko bi gertakari aipatuko ditugu:

9.1. ‘Aditza + AHALA’. Urdiaingoak dira adibideak:

txuletak ekarri ahala jan genduzen ‘txuletak ekarri ahala jan gientuen’

dirua kobratu ahala gastatzen zen ‘dirua kobratu ahala gastatzen zuen’

gastatu ahala, zakuak patu ‘bukatu ahala, zakuak jarri’

9.2. BEHARREAN (> BERRIEN). Hona hemen Urdiaingo lekukotasuna:

kendu berrien, gorde in ber diet ‘kendu beharrean, gorde egin behar diat’

ebeik ikasi berrien, danok erdez iten du ‘eurak [euskara] ikasi beharrean, denok erdaraz egiten dugu’

10. Baldintza perpausak

Hiru egitura erakutsi nahi ditut sail honetan:

10.1. -TEKOTAN. Besteak beste, hauxe bildu dut Urdiainen:

industria-lekua itekotan, hobe naurrikua inko balai ‘industria-lekua egitekotan, hobe neurrikoa egingo balute’

10.2. ‘Partizipioa + EZKERO’. Urdiaingoak dira ondorengo biak:

ber dan bekela ibili ezkeru, ezain esaten ezere ‘behar den bezala ibiliz gero, ez zuten esaten ezer ere’

zinea fan ezkeru, hiru dantza bakarrik harrapatzen zenduzen ‘zine-
ra joanez gero, hiru dantza bakarrik harrapatzen zenituen’

10.3. -TEAZ (> -TIAZ). Berezia da hau. Sakana osoan erabiltzen da, baina Burundan ez da oso ohikoa. Oihane Zufiaurrek (2001) Urdiainen bildutakoak dira ondorengo adibideak:

ez fatiaz, hots inko du ‘ez joateaz, deitu egingo dugu’

fatiaz, fanko ga biandu ‘joateaz, joango gara berandu’

yostiaz, yostak gastiena ‘erosteaz, eros ezak garestiena’

Beraz, *fatiaz = joatekotan, yostiaz = erostekotan*.

11. Konparazio perpausak

Sakana osokoak dira ondorengo gertakariak:

11.1. -AGO orokorrarekin batera, -AGOKO ere maiz erabiltzen da. Hona hemen Urdiaingo lekukotasuna:

garai bateko diotetan giro hobiokua yoten zaken ‘garai bateko
inauterietan giro hobeagokoa egoten zuan’

Aitziber Alkartien jende jarriokua ibiltzen dok ‘Aitziber Elkartean
jende nagusiagokoa ibiltzen duk [«Aitziber», Urdiaingo
Elkarte baten izena]’

Iruña herri txiki bat baido hotzokua da ‘Iruña herri txiki bat bai-
no hotzagokoa da’

11.2. ‘ZENBAT ETA... -AGO, ORDUAN ETA... -AGO’

Nabarmentzekoa da ORDUAN ETA erabiltzen dela Sakanan bigarren osagaiaren hasieran; ez HAINBAT ETA. Dena dela, ezer gabe ere maiz aditzen da. Urdiainen jaso dut hurrengoa:

*arbolak zenbat eta gahio sufritzen dain, orduen eta frutu gahio
ematen dai* ‘zuhaitzek zenbat eta gehiago sufritzen duten, or-
duan eta fruitu gehiago ematen dute’

11.3. ‘Adjektiboa + BAINO + adjektiboa + -AGO’. Maiz baliatzen da egitura hau, Urdiaingo adibide hauetan bezala:

Kanarietatik bueltan, beltza baino beltzokua etor zan ‘Kanarietatik itzultzerakoan, beltza baino beltzagokoa etorri zen’

haurra!, gaur gaiztua baino gaiztuo ze ‘haurra!, gaur gaiztoa baino gaiztoago zaude’

12. Galdera perpausak

Sakanan arrotza da AL partikula galdera perpausetan. Ez da esaten *joango al gara?* gisakorik. Inguruko beste hizkera batzuetan, aldiz, ohikoa da; Gipuzkoako Goierri eta Nafarroako Araitz-Betelu eta Larraun ibarretan, esate baterako.

13. BI zenbatzailea

Euskal Herri gehiengan bezala, izenaren aurrean ezartzen da BI zenbatzailea, baina badira izenaren ondoren agertzen den egitura bereziak: *ordubiak* eta *erdibitu* esaten da Sakana osoan. Urdiainen, gainera, *dan biek* esaten da ezkilak bi aldiz jotzen duenean: *dan bakarra, dan biek*. Kandido Izagirrek Altsasun egindako grabazioetan BI izenaren ondoren agertzen den beste adibide bat agertzen da (1967: 51):

guk, aizpa biyok, bagendekien éskuez ‘guk, ahizpa biok, bagenekien euskaraz’

Etxarri Aranazko toponimian, era berean, *Urbijotzendentzuie* leku-izena jaso da (Karasatorre, Erdozia eta Ulaiar 1991). Garbi dago horren jatorria: ‘ur bik jotzen du(t)en zubia’.

Dena dela, adibide horiek antzinako egoeraren aztarnak dira, BI zenbatzailea izenaren ondoren jartzeko aukera zegoenekoak.

14. EGIN indartzailea

Arauzkoa da Sakana osoan EGIN erabiltzea aditzaren indartzaile. Urdiainen entzundakoak dira ondorengo bikoteak, eta erraz ikusten da EGIN erabiltzearen eta ez erabiltzearen artean dagoen aldea:

Herrientxiek eztuka diruik, bea kaliek konpondu in tui ‘Udale-
txeak ez dauka dirurik, baina kaleak konpondu egin dituzte’

(a)

San Juango ermitia konpondu dai ‘San Juango ermita konpondu
dute’

Gobernuek galazita duka, bea ikurriña patu in dai ‘Gobernuak
galarazita dauka, baina ikurrina jarri egin dute’

(b)

Etxeko ataien argia patu dot ‘etxeko atean argia jarri dut’

DIALEKTOLOGIA

1. Burunda, euskalkien bilgunea

Berezia da Burundako hizkera, Euskal Herri osoan ezagutu dudan bereziena. Erraza da horren arrazoa ulertzea. Nafarroako bazter batean dago, Araba eta Gipuzkoa ondoan dituela, eta administrazioak eraikitako mugak gorabehera, elizak ezarritako egiturak gorabehera, iraganeko gerrak eta liskarrak gorabehera, burundarrek arabarrek eta gipuzkoarrek eduki dute hartu-eman. Hizkuntzan, behinik behin, argiro agertzen da horren oihartzuna: Burundako hizkerak asko hartu du Arabatik eta Gipuzkoatik.

Burundaren kokagune berezia dela eta, hango hizkera aztertzeak interes handia dauka eta euskalkien jatorria argitzeko ere lagungarri gerta daiteke-elakoan nago. Zer azalpen dauka, esate baterako, mendebalean egindako berrikuntzak Burundan egoteak? Orain arte mendebaleko euskararen ardatza Bizkaia zela uste izan da, baina zaila gertatzen da Bizkaitik Burundara berrikuntza horiek etortzea. Mendebaleko euskararen ardatza Gasteiz izan zela pentsatzen bada, ordea, zailtasunak desagertu egiten dira. Gogora dezagun, gainera, Burundan ez eze, Ameskoa eta Lana ibar nafarretan ere badirela mendebaleko euskararen berrikuntzak, eta baita Gipuzkoako Goierri eskualdean ere. Mendebaleko ezaugarrien zabalera horrek, hain zuzen, Gasteizen aldeko aukera sendotzen du.

Gaur egun, uste izatekoa denez, atzeraka eta indarra galduz doaz mendebalek Burundara etorritako ezaugarriak. Aspaldi erdaldunduta dago Araba eta erabat etenda dago burundarrek mendebaleko euskararekin zuten lotura. Une honetan, hain zuzen, mendebaleko euskara da denetan arrotzena egiten zaiena. Urdiaingo bizilagun bati baino gehiagori entzun izan diot Ipar Euskal Herrikoekin elkartu direnean, ondo samar ulertu diotela elkarri eta, aldiz, oso nekez moldatu direla bizkaitarrekin.

Joan den aspaldian, bestalde, Gipuzkoako euskara gertatu da burundarren eredu. XVIII. mende hasierakoa da Gipuzkoako euskararen gorakada eta haren ospea eta izen ona Euskal Herri osora zabaldu ziren; inguruko eskual-

deetara batez ere. Ez dakigu zehatz-mehatz eragin hori noiz eta nola heldu zen Burundara, baina XIX. mendearen erdialdean, Louis-Lucien Bonaparte printzeak kristau ikasbide bat Urdiaingo hizkerara itzultzeko agindu zue-
nean, euskara giputzean egin zioten; zehatzago esateko, Beterriko hizkeran. Dirudenez, apaizen bat izan zen itzultzailea eta, ziurrenera, Eliza izan zen hizkera hori Burundan sarrarazi zuena, beste alderdi batzuetan gertatu zen bezala.

Gaur egun ere bizi-bizi dago Gipuzkoako euskararen aldeko lilura adin jakin batetik gorako urdiaindarraren barrenean: Tolosako hizkera da euren iritzian ona. Gazte jendearen artean galtuta dago lilura hori, baina orain euskara batuak betetzen du Tolosaren lekua. Euskara batua da, behinik behin, euren hizkeran behin eta berriz sartzen eta nahasten dena, eta ez dezagun ahaztu «euskara giputza» egon ohi dela askotan euskara batua-
ren azpian.

Arabarrak eta gipuzkoarrak aipatu dira orain artean, baina beste auzo batzuk ere badituzte burundarrek gertuan: Etxarri Aranatzan hasita ekialdera bizi diren sakandarrek. Berdintasun handia dago burundarren eta gainerako sakandar horien hizkeretan, baina desberdintasun nabarmenak ere badira, eta gertakari horrek erakusten du bi auzoen arteko hartu-emanak ez dela izan oso estua. Harritzekoa ere bada, hain zuzen, Bakaikuko hizkeratik Etxarri Aranazkora dagoen aldea. Eta harritzekoa da aldea, kontuan hartzen bada Bakaiku eta Etxarri Aranatzan artean ez dagoela inolako oztoporik: ez mendi garairik, ez ibai zabalik, ez baso itxirik, ez batetik besterako kilometro askoko tarterik. Alderantziz, Etxarri Aranatz eta Bakaiku bata bestearen ondo-ondoan daude. Ziurrenera, XIX. mendearen erdialdea arte —1841 arte (Karasatorre 1993: 135), zehatzago esateko— Burundak egitura administra-
tibo beregaina eduki izana da horren arrazoia.

Gauza da Nafarroan edo Sakanan bertan sortu diren gertakari zenbait ez direla zabaldu Burundara: Etxarri Aranatzerraino heldu dira, baina ez dira Bakaikutik aurrera hedatu. Aurkakoa gertatu da beste batzuetan: mendebalean, Gipuzkoan edo Burundan bertan berrikuntzak sortu eta ez dute Etxarri Aranatz zeharkatu. Gertakari horrek, jakina, burundarren arteko batasuna eta gainerako sakandarrekiko haustura erakusten du.

Egoera hori, ordea, erabat aldatzen ari da azken urteotan; sakandar guttien arteko batasuna sendotzen ari da. Inguruko beste auzoekiko loturak eten ez badira ere, Sakana bera da hartu-emanen esparru nagusia une honetan.

Gertakari horien guztien inguruan jardungo dut atal honetan. Hasteko, Burunda barruko aldeez eta bertako bereizgarriez hitz egingo dut. Ondoren, mendebaleko euskararekin, giputzarekin eta nafarrarekin dauzkan kidetasunak aurkeztuko ditut. Eta bukatzeko, Burundak Sakanako gainerako herriekin dituen berdintasunak eta desberdintasunak erakutsiko ditut. Dena dela, eta ezertan hasi baino lehen, orain arte Burundako euskara aztertu dutenek esandakoa gogora ekarri nahi dut.

2. Burundako euskara ikertzaileen begietan

Euskal Herriko beste hizkera askorekin gertatu den bezala, Burundakoaren lehenbiziko albisteak ere Louis-Lucien Bonaparteri esker jakin ditugu. Hura izan zen Euskal Herri osoko hizkerak aztertzen lehena eta, gainera, egonaldi labur bat egin zuen Burundan bertan. Bonapartek (1881) aitortu zuenez, 1857ko urriaren 21ean egon omen zen une batez Bakaikun eta hango sei bizilaguni egin omen zizkien zenbait galdera; gehienbat IZAN-en adizkiak, *EDUN-enak, eta hitz hasieran *j-* ala *y-* ahoskatzen ote zuten galdetu omen zien.

Dena dela, galdera-erantzun horiek baino gehiago, Urdiaingo eta Etxarri Aranazko hizkeretara itzularazitako kristau ikasbideak baliatu zituen Bonapartek, eta haiek ikusita erabaki zuen Burundan, Etxarri Aranatzan eta Ergoienean euskara giputza egiten zela. Esan berri dugu Urdiaingo itzulpena Beterriko euskara giputzean egin zela, eta berdin jokatu zen Etxarri Aranazkoan (zenbait argibide: Erdozia 2001b). Itzultzaileek, nonbait, ez zuten ulertu Bonaparteren asmoa: herri hizkerak, ziren bezala, ezagutu eta aztertu nahi zituen Bonapartek, eta garai hartako «euskara ofiziala», onentzat eta dotoreentzat zeukatena, erakutsi zioten itzultzaileek.

Urdiaingo itzulpenean, hain zuzen, *zera*, *gera* (eta *gara*), *det* (eta *dot*), *degu*, *dizut*, *dizkizut*, *dirazu* ‘didazu’, *ziran* ‘zidan’, *diyot*, *dizkiyot*, *diyo*, *dizkiyo*, *diyogu*, *dizkiyozu*, *digu*, *dizkigu*, *dizkiguzu*, *zigun*... gisako adizkiak agertzen ziren, eta ordu arte Bonapartek Burundako hizkera bizkaieraren zatitako bazeukan ere, gipuzkerari erantsi zion harrezkero. Hauxe esan zuen hitzez hitz (Bonaparte 1881: 148): «El verbo burundés de Urdiain es mucho más guipuzcoano que vizcaino (...); lo mismo sucede con el vocabulario». Baina, jakina, Bonaparteri erakutsi zizkieten aditz horietatik ia bat bera ere ez da Burundakoa.

Bonaparteren ondoren inolako aurrerakuntzarik egin gabe joan ziren hainbat urte, harik eta 1920 aldera, Damaso Intzak Nafarroa osoko aditz laguntzailea biltzea erabaki zuen arte. Aztergai dugun alderdira etorrita, berehala azaldu zuen Bonaparterekin zeukan desadostasuna. Alde batetik, bi hizkera multzo bereizi zituen: Burundakoa, batetik, eta Etxarri Aranatz eta Ergoienekoa, bestetik, eta hauxe esan zuen (Intza 1922a: 65):

Bonapartek «gipuzkoerazko euskalkia» izena eman zion Burunda, Etxarri Aranatz eta Ergun (Ergoyena) guzian itzegitten den euskalkiari. Baño irudi zait ez dittezkela euskalki bat bezala artu, ikusiko degun añeko berdineza ta berextasuna duten euskerak.

Arrazoi osoa zeukan Intzak horretan, Burundako eta Ergoieneko hizkerak desberdinak direlako, eta oso berdinak, berriz, Ergoienekoa eta Etxarri Aranazkoa. Ziurrenera, bai Burundan eta bai Ergoienean *dot* eta *dok / don* adizkiak erabiltzen zirelako sartu zituen Bonapartek multzo berean.

Baina horretan ez eze, Damaso Intzak Burundako hizkera guztiz berezia eta beregaina zela esatean ere arrazoa zeukan. Hauexek haren hitzak (1922a: 65-66):

Euskalki au [Burundakoa] lenengo begiraldian eta geroxeago ere Bizkaiko euskalkitako artu nuan. Baño garbi ezagutzen dut ez dela. [Aditza] oso-osorik guzia edo al guzia bildu ondoan, ezagutzen dut, bere-be-rezko euskera dela Burunda guzikoa.

Hain zuzen, Burundako hizkeraren nortasunaz jabetuta, hizkera hori sakonago aztertzea erabaki zuen eta, gainera, ondoko hizkera gipuzkoarrekin alderatu zuen, Segura eta Idiazabalkoekin. Handik lasterrera, «Burundako euskalkia» izeneko saioa osatu eta argitaratu zuen, eta hauxe idatzi zuen bertan (Intza 1922b: 3):

Burundako euskalki orain argitaratzera goazena ez da Gipuzkoakoa, ezta orren aide urbill-urbilla ere. Gipuzkoakoa izatekotan orko urbillengo errietatik sartua izango zala igarririk, Otzaurten egon nintzan, baita Segurako auzo Urtsuaran¹ deitzen duten Naparroko mugatik urbillenekoan. Bi alderdi auetan euskalki berdin xamarrak upatu dittut, baño Burundakotik oso bestelakoak.

¹ Esan dezadan, gaur egun behinik behin, Urtsuaran Idiazabalgo auzoa dela, ez Segurakoa.

Zuzena zen Intzaren ikuspegia, baina hark esandakoak ez zuen oihartzunik izan, gehienbat bere ondorioak ez zituelako frogekin hornitu eta egoiki aurkeztu. Ziurrenera, horretarako gaitasunik ere ez zuen, euskaltzaina izan arren, hizkuntza gaietan aditua ez zelako.

Beste urte mordoxka bat joan zen, harik eta 1961ean Koldo Mitxelena *Fonética Histórica Vasca* argitaratu zuen arte. Hau bazen hizkuntzalari, eta Bonapartek esandakoa bere horretan onartu zuen: Burunda, Ergoiena eta Etxarri Aranazko hizkerak, beraz, euskalki giputzean utzi zituen (Mitxelena 1961 [1977]: 41). Ez zuen horretarako arrazoirik eman eta, ziurrenera, ez zuen hizkera horien zuzeneko berririk ere izan, baina Mitxelena esate hutsak indar handia zeukan. Horrexegatik, beharbada, Pedro Irizar ere ez zen ezer aldatzera ausartu. Burundako aditza bildu zuenean (1981 eta 1991), haren izaera bereziaz ohartu zen, baina zuzenketa bakarra egin zuen. Damaso Intzak bezala, Sakanako hizkera «giputzak» bi multzotan banatu zituen: Burundakoa jarri zuen batean, eta Etxarri Aranazkoa eta Ergoienekoa, bestean.

Zuzena zen, dena dela, Burundako hizkeraren gainean zeukan ikuspegia. Hauxe idatzi zuen (Irizar 1973 [1981-1]: 217):

El vascuence de la Burunda tiene, cremos, algo no sólo de guipuzcoano y de vizcaíno e incluso de alto-navarro, sino también peculiaridades propias. Es por ello de clasificación incierta.

Nik neuk 1990 aldera aditu eta aztertu nituen Sakanako hizkerak eta beste ikuspegi bat aurkeztu nuen. Etxarri Aranazkoa eta Ergoienekoa euskara nafarrean sartzea erabaki nuen, bi herri horietako hizkerak eta nafartako jo izan diren Arbizukoa, Lakuntzakoa eta Arruazukoa oso antzekoak direlako. Burundakoa, ordea, «tarteko hizkeratako» hartu nuen, mendebalekoaren, giputzaren eta nafarraren tarteko. Urteak igarota, lehengo iritzitari eusten diot eta, gainera, Burundako eta Sakanako euskara hobeto aztertuta, ikuspegi horren aldeko frogak sendoagoak erakusteko moduan nago.

3. Burundako euskararen batasuna

Burundako sei herrietako hizkera bat eta bera ote den jakitea da lehenbiziko galdera. Damaso Intzak (1922a: 65) bi multzo egin zituen: Ziordia eta Olatzagutia jarri zituen batean, eta gainerako lau herriak bestean. Pedro

Irizarrek, berriz, lau multzo osatu zituen: a) Ziordia eta Olatzagutia, b) Altsasu, c) Urdiain, eta d) Iturmendi eta Bakaiku. Dena dela, Intzak (1922a: 68) arrazoi bakarra aipatu zuen Burundako hizkerak sailkatzeko, eta arrazoi bakar berean oinarritu zen Irizar ere (1991-2: 210): NOR-NORI-NORK saileko ‘dio’ adizkia lau modutara esaten zela Burundan. Hauexek ziren lau aukerak:

- a) Ziordian eta Olatzagutian *dero*.
- b) Altsasun *dua*.
- c) Urdiainen *dea*.
- d) Iturmendin eta Bakaikun *da*.

Arrazoi bakarra ez da helduleku ziurra, baina bakar hori ere, gainera, ez da batere egokia. Hizkera mintzatuan, eta aditzak esaterakoan gehienbat, ohikoak dira kontrakzioak eta, hizkerak sailkatzeko orduan, hobe da gisa horretako txikikeriak alde batera uztea.

Gaur egun, dena dela, Ziordia eta Olatzagutiko hizkerak erabat galduta daudenez, eta galbidean Altsasukoa eta Iturmendikoa, ezin zaio erabateko erantzuna eman galderari, baina entzun ditudan grabazioetan oinarrituta, hauxe esango dut beste ezer baino lehen: sei herri horietako hizkerak bazuela batasuna, bazela «Burundako hizkera» bat.

Batasunaren barruan, jakina, aldeak ere izan dira. Ertzetako herrietan gehienbat, auzoetako hizkeren eragina ikusten da. Egin dezagun kontu Arabaren mugan dagoela Ziordia, Etxegaraten barrena Gipuzkoara doan bide nagusiaren ondoan Altsasu, eta Etxarri Aranatzeko aldamenen Bakaiku. Ziordiko hizkera dela eta, hain zuzen, Jose Mari Satrustegik (1999: 65) aipatutako lekukotasuna ekarri nahi dut gogora: «Bertako aitona-amonen esantetan, Arabako [herriekin] hartu-eman gehiago zuten euron gazte denboran Burundakoekin baino». Beharbada hori gehiegi esatea izan daiteke, baina gaur egun bertan ere ziordiarrek badute Arabarako joera.

Burunda barruko aldeak zehazten hasita, bat da bereziki nabarmendu beharrekoa: aditzen pluralgilea. NOR-NORI-NORK saileko adizkietan -TZI- pluralgilea —eta -ZKI- zenbait adizkitan— aukeratu da Burundako mendebalean, Ziordian, Olatzagutian eta Urdiainen: *duatzizu* ‘dizkidazu’, esate baterako. Ekialdean, Iturmendin eta Bakaikun, -TZA- aukeratu da: *datzazu*. Euskara giputzaren eraginez, ziurrenera, -ZKI- nagusitu zen erabat Altsasun: *duazkizu*.

Jokabide berbera daukagu aditz trinko iragankorretan. EDUKI-ren pluralgilea, esate baterako, -TZI- berezia da Burundako alderdi batean: *dukatzi* ‘dauzka’. Iturmendin eta Bakaikun -TZA- daukagu berriro (*dekatza*), eta -ZKI- Altsasun (*dukazki*). Antzera gertatzen da EKARRI eta EROAN aditzetan.

Hitz bereziak ere badira, jakina. Urdiainen, esate baterako, *atxitaporru* esaten zaio zapaburuari, eta aldameneko Altsasun, berriz, *txapiskol*. Aldaeretan, era berean, herri batetik bestera izaten dira gorabeherak. Altsasu eta Olatzagutikoa da *dermau* ‘dermia, alorra’ —baina Ameskoan eta Lanan ere bazen antzina—, eta Urdiangoak *apiki* ‘apika, nonbait’ eta *baretz* ‘baietz’. Hitzunak berehala ohartzen dira gertakari horietaz, baina hizkuntzaren egiturari begiratuta, lexikoa eta aldaerak oso balio txikikoak dira, azaleko gertakariak dira.

Aditzen pluralgileez gainera, dena dela, beste desberdintasun hauek aurkitu ditut Burundan:

3.1. Ziordiko bereizgarriak

xx. mende hasiera aldera, Damaso Intzak (1922b: 6) -EN morfema jaso zuen geroaldiko adizkietan Burunda gehienez: *eginen*. Mendebaleko erztean, Arabaren mugan dagoen Ziordia zen salbuespena: -GO (*egingo*) erabiltzen omen zen han.

3.2. Altsasuko bereizgarriak

Altsasun egiten zen hizkera ondo samar azalduta dago. Kandido Izagirrek (1967) argibide ugari eta ziurrak bildu zituen bertan eta, saio honen hasieran aipatu dudanez, beste grabazio batzuk ere egin dira harezkerok. Horietan oinarrituta, jarraian datozen hiru bereizgarriok nabarmenduko ditut:

(1) Altsasun oso indartsua izan da artikularen asimilazioa: *soroan* → *soruan* → *soruen* → *sorun*, *etxean* → *etxian* → *etxien* → *etxin*. Goierrin ere bada gertakari hori eta, ziurrenera, harekin dago lotuta Altsasu. Aipatu beharrekoa da, dena dela, Altsasun NOR kasu singularrean ere gauzatzen zela asimilazioa, hitza -a, -e eta -o bukaerakoa zenean: *alaba* + *a* → *alabea* →

alabia → *alabi*, *hamarretakoa* → *hamarretakua* → *hamarretaku*, *asteartea* → *astiartia* → *astiarti*.

Gertakari hori oso nabarmena egiten zitzaien inguruko bizilagunei. Bati baino gehiagori entzun izan diot Altsasun *-i* bokalez bukatzen zirela hitz asko. Garbi dago horren arrazoa: *-a* batez bukatzen ziren hitzak artikularekin biltzen zirenean, *-a + a* → *-ea* → *-ia* → *-i* egiten zela ikusi dugu; *alaba + a* → *alabea* → *alabia* → *alabi*. Era berean, *-e* batez bukatzen ziren hitzek, artikularekin biltzen zirenean, ibilbide bera egiten zuten: *semea* → *sema* → *semi*.

Patxi Gonzalezek, Ziordiko euskalkia egiten zuen azken hiztunak, esaera hauxe aipatu zuen altsasuarren hizkera hizpide hartuta (Rafa Blancok egindako grabazioan): *Altsasun dana zulu ta dana koski* ‘Altsasun dena zuloa eta dena koska’. Argiro azaltzen da esaera horretan Altsasuko hizkerako araua: *zuloa* → *zulua* → *zulu* eta *koskea* → *koskia* → *koski*.

(2) *u* eta *i* bokalen eraginez *a* → *e* egitea Burundako gainerako herrietan baino askozaz indartsuagoa izan da: *bizkar* → *bizker*, *oilasko* → *oilesko*, *sukalde* → *sukelde*... aldatu ohi ziren Altsasun.

(3) Altsasun *-ATU* eta *-AU* aldaeren arteko lehia zegoen partizipioetan: *ailatu* / *ailau*, *bilatu* / *bilau*, *eskatu* / *eskau*, *harrapatu* / *harrapau*, *hasarratu* / *hasarrau*, *jorratu* / *jorrau*, *moldatu* / *moldau*... (Izagirre 1967). Halaxe da Goierrin ere eta, ziurrenera, handik heldu zen Altsasura. Burundako gainerako herrietan *-ATU* erabiltzen da.

3.3. Iturmendiko eta Bakaikuko bereizgarriak

Iturmendi eta, batez ere, Bakaiku gainerakoetatik bereizi agertzen dira zenbait gauzatan. Lau aipatuko ditugu. Gertakari txikiak dira, dena dela; lehenbizikoa denetan esanguratsuen:

(1) EDUKI-ren erroan *-u-* berezia gertatu da Burunda gehienez: *duka* ‘dauka’, *zukan* ‘zeukan’. Iturmendin eta Bakaikun, ordea, *-e-* dago erroan: *deka*, *zekan*.

(2) *EDUN-en iraganaldi pluralean *-e-* da NORK-en ezaugarria Burunda gehienez eta *-i-*, berriz, Bakaikun eta Sakanan barrena: *genduen* / *ginduen* ‘genuen’, *zenduen* / *zinduen* ‘zenuen’, *zenduein* / *zinduein* ‘zenuten’. Dena

dela, Urdiainen bertan ere *-i-* ez da arrotza; horixe erabiltzen dute zenbait hiztunek.

(3) Pedro Irizarrek aipatu eta gorago erakutsi den gertakaria zehazte aldera, esan dezadan Iturmendin eta Bakaikun bokal asimilazioak gertatu direla NOR-NORI-NORK saileko adizkietan, NORI ‘niri’, ‘hari’ eta ‘haiei’ de-
nean. Esate baterako, Urdiaingo *dua* ‘dit’, *duazu* ‘didazu’, *duazai* ‘dida-
zue’ eta *duai* ‘didate’ adizkiak, *dat*, *dazu*, *dazai* eta *dai* dira beste bi herrie-
tan. Era berean, Urdiaingo *deat* ‘diot / diet’, *dea* ‘dio / die’, *deagu* ‘diogu
/ diegu’ eta *deazu* ‘diozu / diezu’, beste bi herrietan *dat*, *da*, *dau* eta *dazu*
dira.

(4) Bakaikuko aldaera batzuek ere Burundako euskararen batasuna hausten dute eta, ziurrenera, Etxarri Aranatzen gertutasuna da horren arra-
zoia. Honako aldaera hauek erabiltzen dira Bakaikun: *artio* ‘arte’, *belar*
(ez *bear*), *dena* (eta *dana*) ‘guztia’, *forratu* ‘jorratu’, *larru* (ez *narru*),
laurri ‘neurri’ (ez *naurri*), *lurrin* (ez *lurrin*), *luzin* ‘lizun’, *tipula* (ez *kipu-
la*) eta *ubalaiza* ‘igela’ (ez *ubaxa* / *uberaxa*). Aldaera horietako batzuk
Iturmendin ere izango ziren beharbada, baina gaur egun han gelditzen
diren hiztun bakanen hizkera oso «kutsatuta» dago, eta ezin da ondorio
ziurrik atera.

Lexikoan, azkenik, Bakaikuko bi hitz hauek nabarmenduko ditut: *bo-
taketan* (ez *errendaketan*) ‘botaka’ eta *irastor* (> *iyostor*) (ez *ira*).

3.4. Altsasuko eta Urdiaingo bereizgarriak

NOR-NORI saileko iraganaldian *-ZA-* erroa nagusitu da bi herri horietan:
zezaion (gaur egun *zaion*), esate baterako, Urdiainen. 1920 aldera *-KI-* erroa
zegoen Burunda guztian (*zakion*), eta horixe erabiltzen da oraindik ere
Iturmendin eta Bakaikun. Ziurrenera, Gipuzkoatik sartu zen *-ZA-* hori Al-
tsasura eta Urdiainera.

4. Burundako hizkeraren bereizgarriak

Hizkera baten nortasuna neurtzeko, batez ere bertan sortutako berrikun-
tzak hartu behar dira kontuan eta, Burundaren txikitasuna gorabehera,

berrikuntza multzo hazia sortu da bertan. Gogoan hartzekoa da, gainera, berrikuntza horiek —gehienetan, behintzat— ez direla Burundatik kanpora zabaldu. Bi gertakari horiek Burundaren nortasuna eta bere izaera beregaina erakusten dute. Hona hemen berrikuntzok zein diren:

(1) *-n-* → *-nd-* egin da hitz jakin batzuetan. Halaxe gertatzen da *IZAN*-en adizkietan (*gindan* ‘ginen’, *zindan* ‘zinen’, *zindain* ‘zineten’), *baindo* ‘baino’ aldaeran, eta erabatekoa da deklinabideko *-RAINDO* ‘-raino’ atzizkian (*etxiaindo* ‘etxeraino’).

(2) *NORI* kasu pluralean *-EIRI* / *-AIRI* aldaerak sortu dira, eta *-OIRI* plural hurbilean: *umieiri* / *umiairi* ‘umeei’ eta *umioiri* ‘umeoi’. *NOREN* kasu pluralean, era berean, *-EIN* / *-AIN* aldaerak erabiltzen dira, eta *-OIN* plural hurbilean: *umiein* / *umiain* ‘umeen’ eta *umioin* ‘umeon’. Adizkien pluraleko 2. eta 3. pertsonetan ere *-EI* / *-AI* aldaerak erabiltzen dira: *zai* ‘zarete’, *zain* / *zein* ‘zuten’. Burunda ez dago oraingo honetan erabat bakarti. Mendiez bestaldean, antzeko egoera daukagu Oñatin (Zuazo 2006: 161).

(3) Nabarmentzekoa da **EDUN*-en adizkien erroan gertatu diren emaitzak: *-o-*, *-au-* / *-eu-* eta *-e-* ageri dira, denak aldi berean. Hauexek dauzkagu Burundan: *dot* ‘dut’, *dok* / *don* ‘duk / dun’, *dau* ‘du’, *dezu* ‘duzu’, *dezai* ‘duzue’, *neuen* (> *nen*) ‘nuen’, *heuen* (> *yen*) ‘huen’, *deuen* (> *den*) ‘duen’, *zeuen* (> *zen*) ‘zuen’, *banau* ‘banu’, *balau* ‘balu’, *lauke* ‘luke’.

Ergoienean ere *dot*, *dok* / *don*, *dezu* eta *dezai* esaten da. Etxarri Aranatzen, berriz, *-e-* nagusitu da orainaldian (*det*, *dek* / *den*, *degu*, *dezu*, *dezubie*), baina *-au-* / *-eu-* duten adizkiak ere badira: *dau* ‘du’, *neen* ‘nuen’, *zeen* ‘zuen’, *banau* ‘banu’, *nauke* ‘nuke’, *bayau* ‘bahu’, *yauke* ‘huke’, *balau* ‘balu’, *lauke* ‘luke’. Arbizutik ekialdera *-u-* nagusitu da erabat.

(4) Bilakaera berezia egin da *EDUKI*-ren erroan: *-u-* gertatu da Burunda gehienean (*duka* ‘dauka’) eta *-e-* (*deka*) Iturmendin eta Bakaikun.

(5) Aditzen pluralak osatzeko *-TZI-* morfemari eman zaio lehentasuna Burundako alderdi batean. *NOR-NORI-NORK* sailean eta *EDUKI*, *EKARRI* eta *EROAN*-en adizkietan erabiltzen da: *deatzizu* ‘dizkiozu’, *dukatzi* ‘dauzka’, *dekatzi* ‘dakartza’, *deatzi* ‘daramatza’. Iturmendin eta Bakaikun *-TZA-* aukeratu da, eta *-ZKI-* Altsasun.

Lexikoan ere badira Burundan sortuak diruditen zenbait hitz: *antuxa* ‘usina, doministikua’, *gerba* ‘amildegi txikia’, *mutiki* eta *nesaki* ‘mutikoa

/ neskatoa', *mutxikan* 'jolasean', *txitxigarro* 'kilkerra', *zinzirrin* 'belarri-takoa'... Urdiain eta Bakaiku artean, gainera, *ibili* aditzak 'eduki' esanahia bereganatu du: *autua garajien ibili dot* 'automobila garajejan eduki dut'.


Beste bi hitz ere aipatu nahi ditut. Hauek, ziurrenera, ez dira Burundan sortu, baina ibar horretan eta inguruko hizkera gutxi batzuetan erabiltzen dira. Alde batetik, *mentzagi* (< *berantzagi*) 'orantza, legamia' erabiltzen da Burundan. Ezaguna da haren ondoko hizkeretan ere, *bentzagi* itxurapean: Etxarri Aranatzen, Ergoienean eta Burundatik gertuko Goierriko herri gutxi batzuetan. Bestalde, *jarein* (< *jaregin*) 'askatu / narratsa' esaten da Burundan. Deba ibarreko hegoaldean eta Goierriko herri batzuetan erabiltzen da hitz hori.

Burundakoak diruditen aldaerak ere badira: *ailubi* / *aulubi* 'marrubia', *itain* 'izain', *tapilo* 'korapilo' (Etxarri Aranatzen ere *topillo*).

Gauza berriak sortzearekin batera, gauza zahar asko gorde dira Burundan eta, niri neuri, harrigarri samarra iruditzen zait hori gertatzea. Gehienbat, leku urrunetan eta bakartuetan iraun ohi dute gauza zaharrek eta Burunda ez da batere horrelakoa. Oso komunikabide esanguratsuek zeharkatzen dute, Euskal Herrian dauden esanguratsuenetakoek, eta komunikabide horiek, gainera, aspaldikoak dira.

Dena dela, Burundaren izaera gordetzaila dela eta, horretan ez dagoela beti bakarti aitortu behar da. Sakana osoa eta mendebaleko euskalkia ere gordetzaille gertatu dira. Ematen du Aizkorri eta Aralar mendiak benetako hesiak izan direla batzuetan, mendi horiek eragotzi dutela Euskal Herriko erdigunean egindako zenbait berrikuntza aipatutako alderdietara zabaltzea. Ikus dezagun Burundan gordetako ezaugarri horiek zein diren:

(1) Oraintsu arte ez da egon asimilazio bustidurarik Burundan: *il*, *in*, *it* gisako taldeek bere horretan iraun dute, *ill*, *iñ* eta *itt* egin gabe, eta nabarmentzekoa da Sakanako gainerako herrietan, Etxarri Aranatzen bertan hasita ekialdera, eta iparraldeko Goierri eskualdean, oso indartsua dela kontsonante horiek bustitzeko joera. Burundan, gainera, gaztelaniatik hartutako hitzetan ere hots bustiak saihesteko joera egon da: gaztelaniaz *cuchillo* → Burundan *kutxilo*.



(2) Hitzak biltzerakoan, *l*, *n* eta *r* ondoren ez da $z \rightarrow tz$ aldatu. Esate baterako, *fan zaigu* ‘joan zaigu’ esaten da; ez *fantzaigu*. Honetan ez dago Burunda bakarti; gauza bera gertatzen da Sakanan eta mendebaleko euskaran.


(3) EZ partikula eta hasieran *z*- duten adizkiak elkartzen direnean, hortik ez da *tz* sortzen: *eza* ‘ez zara’ esaten da; ez *etza*. Gertakari hori ere ohikoa da Sakana osoan.

(4) Indartsu daude plural hurbileko artikulua: *semiok* ‘semeok’, *semioiri* ‘semeoi’, *semioindako* ‘semeondako’, *semioin baitan* ‘semeon baitan’... Atzera berriro ere Sakana eta mendebaleko euskara agertzen dira eremu gordetzailean.


(5) Orain gutxi arte -TI eta -GANDI atzizki zaharrak erabili dira NONDIK kasuan, eta -GAITI, berriz, ZERGATIK kasuan. Oraintsu sartutakoak dira -TIK, -GANDIK eta -GAIK. Bestalde, -TIKAN, -GANDIKAN, -GAIKAN, -RIKAN eta -(e)NIKAN (*ez dut uste etorriko denikan*) arrotzak dira Burundan. Arlo honetan

Sakana guztia izan da gordetzailera, eta baita Gipuzkoako Goierri eskualdea eta mendebaleko euskalkia ere. Burundatik ekialdera, dena dela, -RIKAN (> -RIKEN) bada partitibo eta partizipioetan: *etxeiken* 'etxerik', *hartuiken* 'harturik' (Erdozia 2001a: 206 eta 243).

(6) NOR-NORI-NORK saileko adizkien erroan ez da erdiguneko *-i-* bilakae-ra heldu. Oso adizki bereziak erabiltzen dira Burundan: *duazai* esaten da, adibidez, Urdiainen; ez *didazue*. Etxarri Aranatzan eta Ergoienean erabiltzen direnek ere antzeko bilakaera erakusten dute. Arbizutik ekialdera aditzen dira erroan *-i-* daukatenak.



(7) Aditzen pluraleko 2. eta 3. pertsonetan ez da Euskal Herriko erdiguneko -TE morfema Burundara heldu: *zai* (ez *zarete*), *dai* (ez *dute*), *dezai* (ez *duzute*) esaten da. Halaxe da Sakana gehiengan, Irañeta bitartean. Baita mendebaleko euskaran ere.



(8) -GI morfema dago zenbait partizipiotan: *ebagi* (> *ebai*) ‘ebaki’, *jagi* ‘jaiki’, *irazegi* (> *yazi*) ‘irazeki, piztu’. Urdiain eta Bakaiku bitartean gaur egun arrotzak badira ere, Burundako gainerako herrietan *iregi* (> *irei / iri*) ‘ireki’, *isegi* ‘eseki’ eta *edugi* (> *urei*) ‘eduki’ esan izan da. Sakana osoan eta mendebaleko euskaran dago -GI morfema zahar hori.

Lexikoari dagokionez, Sakana osoan esaten dira *arkakuso*, *irazegi* (> *yazi / izei / ixein / ixin*) ‘piztu’ eta *tu* (ez *txistu*, *listu*). Burundan beste hauek ere badira: *errendaketan* ‘botaka’, *muxinkuen* ‘borrokan’ eta *orri* ‘hostoa’.


Aldaera zahar zenbait ere gorde dira Burundan: *baia / bea* ‘baina’ (Sakanako beste hizkera batzuetan ere bada), *bekela* ‘bezala’ (Ergoienean ere bada), *ereitzi* (> *yaitzi*) ‘iritzi, ustea’, *eutzi* (> *autzi*) ‘utzi’ (Etxarri Aranatzan eta Ergoienean ere bada), *hamaika* (ez *hameka*) (Sakana guztian), *hareitz* (> *haraitz*) ‘haritz’ (Ergoienean ere bada), *kipula* ‘tipula’, *musti* ‘busti’, *sagona* ‘xaboia’.... Sakana gehienez, Irañeta bitartean, -r- (> -d-) duten *irar* ‘ilar’, *irargi* ‘ilargi’ eta *zidar* ‘zilar’ gorde dira, eta *bear* ‘belar’ ere bai Burunda gehienez.

Horretaz gainera, hitz hasieran herskari ahostuna gorde duten aldaera batzuk aditzen dira Burundan: *bake* (*pake* / *fake* Sakanan barrena), *barre* (*farra* eta, hizkera batzuetan, *irri* Sakanan), *geinu* (> *gainu*) ‘keinu’ eta *galte* ‘kalte’.

5. Mendebaleko ezaugarriak Burundan


Gorago esan denez, Burunda Arabarekin mugan egoteak hango ezaugarriak hartzea ekarri du. Nabarmentzekoa da ezaugarri horietako gehienak Burundara baizik ez direla heldu; arrotzak dira Etxarri Aranaztik ekialdera. Hona hemen zein diren:

(1) *-a* batez bukatzen diren hitzak artikuluarekin biltzerakoan *-a + a* → *-ea* → *-ia* egitea: *neska + a* → *neskea* → *neskia*. Bilakaera hori gertatu izanaren ondorioz, *-e* bukaerako zenbait hitz *-a* bukaeratako hartu dira: *andra* esaten da Burundan; ez *andre*.



(2) -RIK morfema erabiltzen da *herririk herri* gisako esapideetan.

(3) Hitanoko adizki askotan J- da NOR-i dagokion ezaugarria: *jituk / jitun* ‘ditik / ditin’, *jok / jon* ‘zagok / zagon’, *jeilek / jeilen* ‘zabilek / zabilen’, *jukat / jukanat* ‘zaukaat / zaukanat’... Gainera, adizki horiek EZ partikularekin bil-tzen direnean, *etx-* gertatzen da, mendebalean bezala: *ez jok* → *etxok* ‘ez zagok’, *ez jakik* → *etxakik* ‘ez zakik’, *ez jukak* → *etxukak* ‘ez zaukak’.



(4) Mendebalean erabat nagusitu den EGIN erroa Sakanan ere bada, baina han NOR-NORI-NORK saileko aginteran baizik ez da erabiltzen: *eskatuiozu* ‘eskatu egiozu [eska iezaiozu]’.

(5) Kontzesio perpausak osatzeko, BAINA erabil daiteke menderatuaren ondoren jarrita: *zaharra da, guai konpondu in ber dai bea* ‘zaharra da, orain konpondu egin behar dute baina’.

Burundako lexikoan ere badira mendebaleko zenbait hitz: *ahalegindu* (> *ahalaindu*) ‘saiatu’, *domeka* ‘igandea’, *eroan* (> *ean / yan*) ‘eramán’, *indiaba* (eta *babarruna*), *ira* ‘iratzea’, *izara* ‘maindirea’, *jostai* ‘ostotsa, trumoa’, *okela* (eta *haragia*), *ortu* (eta *baratza*), *papar* ‘bularraldea’, *pernil* ‘urdaiazpikoa’, *pits* (eta *aparra*), *ubaraxa* (> *ubaxa*) ‘igela’. Bestalde, Sakana gehienez *zil* ‘zilborra, zilkoa’ erabiltzen da. Sakana osokoa da *okaran* ere (gaztelaniaz ‘ciruela’), baina hitz horren eremua oso zabala izan da Nafarroako hego-mendebalean.

Olatzagutian eta Altsasun, gainera, *esegi* (> *isegi*) ‘zintzilikatu’ esan izan da eta, gaur egun oso galduta badago ere, *izeko* ‘izeba’ erabili da Ziordia eta Urdiain bitarteko hizkeretan. Galbidean dago, era berean, mendebaleko *lapiko* ‘eltzea’. Burundako toponimian *madura* ‘zingira’ agertzen da, baina gaur egun *sirats* (> *siets*) esaten da.

Mendebalean hainbesteko indarra daukan *gura* ‘nahi’ hitza Burundan ere ohikoa da hitz elkartuetan: *azkura*, *barregura*, *botagura*, *logura* eta *ñeargura* esaten dira. Burundan, gainera, bada *gura* hori daukan hitz berezi bat: *onguramina* ‘apeta’. Lizarragan bertan ere *azkura*, *irrigura* (maizago *irrinei*) eta *negargura* (eta *negarnei*) erabiltzen omen dira (Navarro, Navarro eta Andueza 2008). Baita *jolasgura* ere, baina hori Sakana osoan eta askozaz ekialderago ere ezaguna da. GURA horrekin zerikusia eduki dezake *pixakur* —Burundan *txixakur*— ‘pixagale’ eta *kakakur* ‘kakagale’ hitzetako *-kur* osagaiak. Sakana osoan erabiltzen da eta Nicolao Landucci italiarrak XVI. mendearen erdialdera Gasteiz inguruan bildu zuen hiztegian ere ageri da.

Badira, hain zuzen, Arabako hiztegi horretan eta Sakana aldean agertzen diren hitzak: *amarratz* ‘armiarma’ (Ziordian eta Olatzagutian erabiltzen zen), *garranga* ‘izotz burruntzia’ (Ziordia eta Altsasu bitartean), *ilondo* ‘il-behera’ (Sakana osoan), *zapo* ‘zomorro’ esanahiarekin (Sakana osoan). Tximeletaren izena ere antzekoa da Araban eta Sakanan: *atxitamatxia* da Landucciren hiztegian, eta *atxitamuxita* / *atxitamuxitari* / *atxitamustaia* Burundan, *matxita* Etxarri Aranatzen, *atxiamatxi* Arbizun, *atximitxiya* Arruazun... Landucciren hiztegian *itzego* ‘cabalgar’, *itzegaitabere* ‘cabalgadura’, *itzegozko* ‘caballero’ agertzen dira, eta *itzo* ‘igo’ esaten da Sakanako erdigunean, baina *iyo* Burundan, Gipuzkoan bezala.


Mendebaleko aldaera batzuk ere badira Burundan: *bultzurrin* ‘giltzurrin’ (Lizarragan *bultzurrin*), *eskutur* ‘eskumutur’ (Sakanako beste hizkera batzuetan ere bada), *gaztai* ‘gazta’, *kaixa* ‘gerezia’, *narru* ‘larru’, *okotz* ‘kokots’

(Sakanan barrena ere bada) eta *txixa* ‘pixa’. Mendebalean bezala, azkenik, *-un* bukaera dago ondorengo lau hitzotan: *asun*, *bi(g)un*, *lurrun* eta *mun*.


6. Gipuzkoako ezaugarriak

Mendebaleko berrikuntza asko Burundaraino heldu direla esan dugu; ez direla Etxarri Aranaztik ekialdera zabaldu. Ezaugarri giputzak direla eta, ezin da gauza bera esan. Sakanako beste alderdi batzuetara ere hedatu dira; gehienbat Gipuzkoa ondoan dauden herrietara: Etxarri Aranatz, Ergoiena eta Arbizura. Ikus dezagun ezaugarri horiek zein diren.

(1) Hitz hasierako [x] ahoskera: *jan*, *jakin*, *jo*, *josi*... esaten da Sakana osoan; ez *yan*, *yakin*, *yo*, *yosi*. Ahoskeraren eremua kontuan hartuta, ezin da ziurtatu Gipuzkoan sortu zela, baina Sakanara, beharbada, handik zabaldu zen.



(2) JOAN aditzean *niyua*, *diyua*, *nendiyuan*, *ziyuan* gisako adizkiak erabiltzen dira. Ikusten denez, singularreko 1. eta 3. pertsonetan baizik ez dira baliatzen eta, gainera, adizki giputzekin batera, *nua*, *dua*, *nenduan* eta *zuan* ere badira. Burundan, Etxarri Aranatzen, Ergoienean eta Arbizun erabiltzen dira.



(3) Euskara giputzeko hizkera askotan bezala —aldameneko Goierrin, esate baterako—, EGON-en *genden* ‘geunden’, *zenden* ‘zeunden’ eta *zendein* ‘zeundetean’ adizkiak erabiltzen dira Burundan. Etxarri Aranatzen ere antzekoak baliatzen dira: *gaunden*, *zaunden*, *zaundien*. Sakanako gainerako hizkeretan, ordea, ekialdekoen egiturakoak aukeratu dira: *giñorien* / *giñouden*, *ziñoin* / *ziñouden*, *ziñorien* / *ziñoudien* (Erdozia 2001a: 277).

(4) ‘Aditz nominalizatua + EDUKI / EGON’ egitura erabiltzen da Burundan ahatera adierazteko: *taberna hontan erretzia bajok* ‘taberna honetan erretzea

bazagok'; *pilota partidua telebisiuen ikustia baduku* 'pilota jokoa telebistan ikustea badaukagu'.

Lexikoari dagokionez, Sakana osoan erabiltzen dira erdialdeko hitz hauek: *behatz* (> *bihatx*) 'hatza', *beta* 'aukera, astia', *esnatu* (> *esenatu*) (baina *itzarri* Ergoienean eta Arruazutik ekialdera), *hots egin* 'deitu', *ilbeltz* 'urtarrila', *jator*, *kattagorri* (ekialdean (*b*)*urtxintxa*), *triku* (ekialdean *sagarroi*) eta *txukun* 'apaina'. Baita *attuna* 'aitona' ere, baina Burundan gaur egun *abuelo* zabaldu da. Burundan, gainera, *babarrun* (eta *indiaba*) eta *korrikan* 'lasterka' erabiltzen dira.

Aldaeren artean, berriz, honako hauek erabiltzen dira Sakana osoan: *bezela* (eta *bekela* zaharra Burundan eta Ergoienean) 'bezala', *eskubi* 'eskuin', *txindurri* / *txingurri* 'inurri' eta *tximu* 'tximino'. Burundan, gainera, beste hauek ere badira: *apaiz* (> *apiz*) (ekialdeko *apez* Sakanan barrena), *bixki* (eta *biki*, *biboro*) (Lizarragan ere bada), eta *igo* (> *iyo*) (ez *igon* / *igan*).

Gogora dezagun, azkenik, dardarkari azkarraren aurrean $e \rightarrow a$ egiten dela Burundan zenbait hitzetan: *izardi* 'izerdi', *iztar* 'izter', *pitxar* 'pitxer', *uzkar* 'puzker'...

7. Mendebaleko eta erdialdeko ezaugarriak Sakanan

Badira Euskal Herria bi zatitan banatzen duten zenbait gertakari (argibideak, Zuazo 2008: 207-218). Gehienbat, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa daude alde batean, eta Nafarroa eta Ipar Euskal Herria, bestean. Jakina, muga hori ez da guztiz zehatza eta badira bien tartean azaltzen diren eskualdeak. Sakana da horietako bat. Ondoren, beraz, Burundan eta Sakanan barrena dauden mendebaleko eta erdialdeko ezaugarriak aurkeztuko ditugu. Asko dira, eta esanguratsuak, eta horrek erakusten du Gipuzkoaren gertutasunak zein eragin handia izan duen Sakana gertian:

(1) NONDIK kasuko mugagabeen eta pluralean -ETATI(K) aldaera erabiltzen da Sakanan, ez ekialdean gorde den -ETARIK zaharra: *etxeetati(k)*; ez *etxeetarik*. Izen bizidunetan, era berean, -GANDI(K) erabiltzen da Sakanan; ez ekialdean gorde den -GANIK zaharra: *semiengandi(k)*; ez *semearenganik*.



(2) Burundan gehienbat, BATEN BAT egiturako izenordainak erabiltzen dira.

(3) Zenbakiekin -NA atzizkia erabiltzen da Sakanan beti; sekula ere ez ekialdeko -RA: *seina, zazpina, zortzina*; ez *seira, zazpira, zortzira*.

(4) IZAN-en singularreko 3. pertsonaren erroan -a- dago Burundan; ez ekialdeko -e-: *dan, dala, dalako(z), zan, zala* eta *zalako(z)* erabiltzen dira; ez *den, zen, zela* gisakoak. Etxarri Aranatzan eta Ergoienean ere -a- dago, baina -e- 3. pertsona horretatik datorren *dena* ‘guztia’ zenbatzailean. Burundan —Bakaikun ez erabat— -a- dago zenbatzailean ere: *dana, danok*.

(5) Aditza -N batez bukatzen zenean, -EN zen geroaldiko morfema Burunda gehienean, Ziordian ez bestean, ekialdeko alderdian bezala: *eginen* (> *inen*), *emanen* (> *emain*). Morfema hori bizirik dago oraindik adin handiko hiztunen jardunean, baina gazteek -KO edo -GO baliatzen dituzte, mendebalean eta erdialdean bezala: *inko / ingo, emanko / emango*. Sakana guztian zabaldu da -KO / -GO.

(6) Burundan eta Sakanan barrena oso bizirik dago partizipioei -RIK morfema zaharra gehitzeko joera: *aluzinatuik, inplikatuik, moskeatuik...* gi-

sakoak aditzen dira Burundan. Dena dela, mendebalean eta erdialdean nagusitu den -TA ere ohikoa da: *jarrita, josita*.

(7) *EDUN aditza erabiltzea urritu eta EDUKI nagusitu da Sakanan: *arrazoi dukazu* (ez *arrazoi duzu*), *launak banukatzien* (ez *lagunak banituen*) esaten da Urdiainen.

(8) Kausazko perpausetan ‘aditza + ETA’ eta ‘aditza + -ELA ETA’ egiturak guztiz ohikoak dira Sakanan. Urdiaingo esaldi hau jarriko dut adibide: *Alsua fanko gaituk, feiek tuk eta* ‘Altsasura joango gaituk, feriak dituk eta’.

(9) Perpaus osagarrietan, aditz nagusia ezezkoa denean, -ENIK morfema baliatzeko aukera dago Sakanan. Urdiaingoa da lekukotasuna: *eztot uste holakoik pasatuko danik gahio* ‘ez dut uste horrelakorik pasatuko denik gehiago’.

Esan dezadan, honen harira, ekialdeko eremuan -EN morfema erabili ohi dela aditz jakin batzuekin: *uste dut laster helduko den*. Aukera hori arrotza da Sakanan.

(10) Denbora eta moduzko perpausetan -ELA morfema erabiltzen da Sakanan; ez ekialdeko -ELARIK. Urdiaingoa da ondorengo adibidea: *Etxarritik heldu gindala, kontrolien gelditu ziauein* ‘Etxarri Aranaztik gentozela, kontrollean gelditu ziguten’.

(11) -KO, -TEKO eta -ELAKO aldaerak nagusitzen ari dira Sakanan: *betiko, iteko* ‘egiteko’, *in delako* ‘egin duelako’. Adin batetik gorako hiztunen jardunean, dena dela, -ELAKOZ ere entzuten da (-ELAKOS Burundatik ekialdera).

(12) Ohikoa da EGIN aditz indartzailea Sakanan. Hona hemen Urdiaingo lekukotasuna: *Gobernuek galazita duka, bea ikurriña patu in dai* ‘Gobernuak galazarazita dauka, baina ikurrina jarri egin dute’.

Lexikoan ere badira mendebaleko eta erdialdeko hitzak. Sakana osoan esaten dira hauek: *agindu* (ez da ohikoa *manatu*), *ahaztu* (ez *atzendu*), *asko* (ez *anitz*), *atze* eta *aurre* (ez *gibel* / *aitzin*), *aukeratu* (ez *hautatu*), *baso* (ez *oihan*), *bertan* (eta *bertako*, *bertatik*...; ez dira ohikoak *berean*, *bereko*, *bere-tik*), *bi* beti (ez *bi* eta *biga*), *bidaldu* (> *bialdu* / *bieldu*) (ez *igorri*), *eskerrik asko* (ez da ohikoa *esker mila*), *eskuare* (> *eskuera*) (ez *arrastelu*), *ezer* (ez *deus*, *ja*), *ganadu* (eta *azienda*), *gogoratu* eta *akordatu* (ez *oroitu*), *gora* eta *behera* (ez dira ohikoak *goiti* / *beheiti*), *hirurogei* eta *laurogei* (Uhartetik ekialdera *hiruetan hoge* / *lauetan hoge*), *iyortzi* ‘igurtzi’, *jaso*, *koipe*

(Uhartetik ekialdera *urin*), *makal*, *nahikoa* (eta *aski* Sakanako ekialdean), *oso* (ez *arrunt*, *hagitz*), *ostu* (ez *ebatsi*), *ugari*, *zintzo* (> *txintxo*)... Sakana osoan esaten dira, gainera, *honutza*, *horrutza* eta *harutza* aditzondoak.

Burundakoak dira ondorengoak, bat edo beste Etxarri Aranatzan eta Ergoienean ere erabiltzen diren arren: *barru* (ez *barne*), *bigun* (eta Nafarroako *beratz*), *eskerrak!* (ez *beharrik!*), *gabonak* (ez *eguberriak*), *iritzi* (> *yaitzi*) ‘uste’, *kale* (ez *karrika*), *kare* (ez *galtzin*), *konturatu* (ez *ohartu*), *ondo* eta *hobeto* (eta *ongi* eta *hobekiago*). Burundan, gainera, *edozer* eta *zeozer* (eta *zerbait*) izenordainak erabiltzen dira.

Aldaeren artean, azkenik, Sakana osoan erabiltzen dira mendebaleko eta erdialdeko hauek: *belarri* (ez *beharri*, *begarri*), *bildur* (ez *beldur*), *burruka* (ez *borroka*), *esan* (ez *erran*), *gutxi* (ez *guti*, *gutti*), *ikutu* (ez *ukitu*), *itxi* (Uhartetik ekialdera *hertsi*), *izu* (ez *izi*), *jantzi* eta *eantzi* / *yantzi* (ez *jauntzi* / *erauntzi*). Sakana gehienez erabiltzen da *negar* (> *ñear* Urdiainen); ez ekialdeko *nigar*. Era berean, Sakana gehienez, Uharte bitartean, *-st-* konsonante multzoa duten *beste*, *bost*, *heste*, *ostegun* eta *ostiral* aldaerak erabiltzen dira; ez *bertze*, *bortz* gisakoak.

Burundan beste hauek ere badira: *aitatu* (ez *aipatu*), *aitxur* (ez *aitzur*), *girten* (ez *gider* / *kider*). Baita *alkar* (ez *elkar*) eta *erruki* (ez *urriki*) ere, baina horiek Etxarri Aranatzan eta Ergoienean ere erabiltzen dira.

8. Ekialdeko ezaugarriak Burundan

Mendebalean eta erdialdean egindako berrikuntzak eta aukera bereziak erakutsi dira aurreko sailean, baina ekialdetik ere hartu du Sakanak. Burundaraino heldu direnak aipatuko ditut jarraian. Urdiangoak dira adibideak:

(1) Goranzko diptongoak maiztasun handiz egiten dira: *e.txjá* ‘etxea / etxera’.

(2) Izen bizidunen deklinabidean *-EN BAITAN* erabiltzen da; ez *-ENGAN*: *bajukagu konfiantzia gaztiein baitan* ‘bazaukaagu konfiantza gazteen baitan’.

(3) *-TAKO* atzizkia erabiltzen da prolatiboan; ez *-TZAT*: *eskualdunetako duku giaure bua* ‘euskalduntako daukagu geure burua’.

(4) Adberbioak NOR kasu singularrean erabili ohi dira gehienbat: *ixil-ixila ibiltzen da*. Dena dela, mugagabea eta partitiboa ere ez dira arrotzak: *geldi-geldi, isil-isilik*.

(5) EMAN aditzarekin doan aditz izena ZERTARA kasuan erabili ohi da: *eman giauei ondo jatia eta yatia* ‘eman digute ondo jatera eta edatera’ (ez *jaten eta edaten*).

(6) -ZI da Burundan JOAN aditzaren pluralgilea: *gazi* ‘goaz’, *dazi* ‘doaz’. Olatzagutian eta Altsasun behinik behin, ETORRI-ren adizkiak erabiltzen ziren, eta haietan ere -ZI zen pluralgilea: *gatozi* ‘gatoz’, *datozi* ‘datoz’.

Lexikoan ere badira ekialdeko hitzak: *arotz* ‘errementari’ esanahiarekin, *aztal* (eta Burundan *berna*), *barratu* ‘barreiatu, sakabanatu’, *beare* ‘bederen’, *espartin* ‘apreta, abarketa’, *ezkila* ‘kanpaia’, *gaztanbera* ‘mamia, gatzatua’, *heldu da* ‘dator’ (baina ETORRI-ren adizkiak ere izan dira, eta oraindik ere aztarnak badira), *idortu* eta *txukatu* (eta mendebaleko eta erdialdeko *lehortu*), *gisu* (> *kisu*) ‘igeltsoa’, *lantxurda* ‘intzigarra’, *saldo* ‘taldea’... Mendebaleko eta erdialdeko *saguzar* hitza arrotza da Sakanan, baina horren ordaina ez da bat eta bera eskualde horretan. Burundan, esate baterako, *gauinara* erabiltzen da, ekialdean bezala.

Aldaeren artean, azkenik, ondorengoak nabarmenduko ditut: *guai* (bukaerako -n gabe) ‘orain’, *iguzki* (Urdiainen *yuzki*) ‘eguzki’, *iretsi* (> *ietsi*) ‘irentsi’, eta Nafarroan, Lapurdin eta Nafarroa Beherean zabaldu den *kafia* ‘habia’.

9. Nafarroako ezaugarriak Burundan

Burunda ibarra Nafarroako ertz batean dagoenez, herrialde horretan sortutako zenbait berrikuntza ez dira heldu hara. Nabarmentzekoa da, hain zuzen, berrikuntza horietako batzuk Etxarri Aranatzerraino zabaldu direla, baina ez Burundara. Hauxe da Burundan aurkitu ditudan ezaugarri nafarren zerrenda.

(1) Erdal -ÓN eta -IÓN bukaerak -ONA eta -IONA egin dira: *montona, abiona*.

(2) Adizkien singularreko 2. pertsonan Y- ezartzen da maiz: *yen* ‘huen’, *yua* ‘hoa’, *yengon* ‘hengoen’, *yendabilen* ‘henbilen’...

Lexikoan ondorengo hitzok aipatu behar dira: *atari* ‘ate’ esanahiarekin, *barride* ‘auzoa’, *bota* ‘erori’ esanahiarekin, *beratz* (eta *bigun*), *dermio* / *dermau* ‘arloa’, *jangoikoaren gerrikoa* ‘ostadarra’, *maki* ‘herrena’, *nekazari*, *ozpingarri* ‘oinaztura’, *sor* ‘gor’ esanahiarekin eta *zata* ‘abarka [oinetako mota]’. Antzina *amina* ‘amona’ ere bazen, baina gaur egun *abuela* esaten da. Ondorengo hilabeteen izenok ere Nafarroa aldekoak dira: *urri* ‘irail’ esanahiarekin eta *lastail* ‘urri’ esanahiarekin.

Aldaeren artean, azkenik, ondorengo biok nabarmenduko ditut: *bulkatu* ‘bultzatu’ eta *esene* ‘esne’ (eta *esenatu* ‘esnatu’).

10. Burundaren nortasuna Sakana barruan

Orain artekoan ere ikusi da Burundako hizkerak Sakana barruan daukan nortasuna: bertan sortutako ezaugarriak badirela esan da, eta mendebaletik eta Gipuzkoatik heldutako berrikuntza batzuek ere Burundan izan dute muga, ez dira Etxarri Aranaztik ekialdera iragan. Burunda eta Sakanako gainerako hizkerak banatzen dituzten ezaugarri gehiago erakutsiko ditut sail honetan, baina bi multzotan bereiziko ditut: a) Sakanako erdiguneko gertakariak, eta b) gainerako ezaugarriak.

10.1. Sakanako erdiguneko gertakariak

Sakanako erdiguneko gertakari zenbait arrotzak dira Burundan. Ez dira asko, baina esanguratsutako daukat hiruretan lehena:

(1) NOR-NORI saileko orainaldian -KI- erroa erabiltzen da Sakana gehiean: *dakit* ‘zait’, *dakizu* ‘zaizu’, *dakio* ‘zaio’... Arrotza da hori Burundan.

(2) Mendebalean bezala, Nafarroako eremu zabalean ere -Z da *EDUN aditzaren pluralgilea. Burundan, esate baterako, *genduzen* ‘genituen’, *zenduzen* ‘zenituen’ eta *zenduzein* ‘zenituzten’ erabiltzen dira, eta gisa berekoak daude Irañetan ere. Burunda eta Irañetaren artean, ordea, -IT- edo -ZKI- erabiltzen dira: *giñuzkiyen* / *giñittuben*, *ziñuzkiyen* / *ziñittuben*, *ziñuzkibien* / *ziñittubien* (Gaminde 1985-I: 341-342, Erdozia 2001a: 264 eta Navarro, Navarro eta Andueza 2008: 608).

(3) Gauza txikiak dira ondoren aipatuko ditudanak, aldaerak soilak. Hauexek aurkitu ditut Sakanako erdigunean: *laurri* ‘neurri’ (Bakaikun ere bada), *luzin* ‘lizun’ (Bakaikun ere bada), eta hain ahoskera berezia —euskaraz ezohikoa— duen *udx / utx* ‘ura’.

10.2. Gainerako ezaugarriak

Era askotako ezaugarriak bildu ditut multzo honetan, baina gehienetan Burunda eta Etxarri Aranatzen artean dago euren muga. Batzuk, gainera, esanguratsuak dira:

(1) *u* eta *i* bokalen eraginez, *a* → *e* egitea indartsua da Sakanan eta oso makala, berriz, Burundan. Lizarragako (Ergoiena) aldaera hauek, esate baterako, arrotzak dira Burundan: *inder* ‘indar’, *dezune* ‘duzuna’, *ziñekile* ‘zenekiela’, *putzu bet* ‘putzu bat’, *aldi betzuten* ‘aldi batzuetan’, *gutes* ‘gutaz’, *arbizuer* ‘arbizuar’, *argitesun* ‘argitasun’, *fundementu* ‘fundamentu’, *amistadie* ‘amistadea’, *aseguretu* ‘aseguratu’, *debutetu* ‘debutatu’... (Navarro, Navarro eta Andueza 2008).

(2) ZERTAZ / NOLA kasuan -s erabiltzen da euskara nafarrean: *burus*, *eskus*, *oines*... Etxarri Aranatzeraino heldu da berrikuntza hori, baina -z orokorra dago Burundan.

(3) Zuberoan eta Nafarroako eremu zabalean -KI aldaera dago NOREKIN kasuan: *lagunaki*. Etxarri Aranatzeraino heltzen da horren eremua. Burundan -KIN dago: *lagunakin*.


(4) ÑEAU / NIAU saileko izenordain indartuak erabiltzen dira Burundan, eta NERONEK gisakoak, berriz, handik ekialdera. Dena dela, sail horretako hiru ale ere maiz aditzen dira Burundan: *neronek*, *herorrek* eta *zerorrek*.

(5) Nafarroako alderdi zabalean -IT- da NOR-NORI-NORK saileko pluralgilea: *ditiot* ‘dizkiot’, *nitio* ‘nizkion’. Arbizuraino heldu da berrikuntza hori; handik kanpo gelditu dira Burunda, Etxarri Aranatz eta Ergoiena.

(6) Euskal Herriko erdigunean -TU eransteko joera dago zenbait aditzetan. Sakanan ere badira horrelakoak, baina Etxarri Aranatz bitartean. Hauexek erabiltzen dira Sakanako erdigunean: *bizitu*, *edugitu* (> *uraittu*) ‘eduki’, *egondu*, *eroritu*, *gordetu*, *izandu*, *jakindu*. Tankera horretako aditz bakarra erabiltzen da Urdiainen: *etzindu* ‘etzan’.

(7) Erlatibo perpausak egiteko mendebalean eta erdialdean nagusitu den ‘partizipioa + -TAKO’ egitura erabiltzen da Burundan, baina, horretaz gainera, ‘partizipioa + -RIKAKO’ ere bada Etxarri Aranaztik ekialdera. Hona hemen Urdiaingo adibidea: *hik yositako autua txikiaia dok* ‘hik erositako autoa txikiegia duk’. Ondorengo, berriz, Jose Luis Erdoziak (2001a: 295) Etxarri Aranatzen jaso zuenetako bat da: *hik esanikekuek aungi asko aittu zittubau* ‘hik esanikakoak ongi asko aditu ditiagu’.

(8) Kausazko perpausetako BAIT- aurrizkiak ezartzen du beste muga bat: ohikoa da Etxarri Aranaztik ekialdera eta arrotza Burundan.



Hona hemen lexikoan aurkitu ditudan aldeak. Burundako ondorengo hitzok arrotzak dira Etxarri Aranaztik ekialdera: *galtzarpe* (Sakanan *besape*), *garagarril* ‘ekaina’ (Sakanan *garagarzaro*), *ibai* (Etxarri Aranatzen ere bada, baina *ugalde* nafarra Sakanan barrena), *konturatu* (Sakanan *quartu* gehienbat), *kutxilo* (Sakanan *labana*), *odolki* (Sakanan *tripota*), *ohe* (Sakanan *goatze* nafarra), *oker* (Sakanan *begibakar* gehienbat), *okolu* ‘ukuilua’ (Sakanan *estrabi* / *estarbi* nafarrak).

Aldaeren sailean, azkenik, hauexek dira aldeak. Burundakoak dira ondorengoak: *berriz* (Sakanan *beix*), *kendu* (Sakanan *gendu* / *jendu* nafarrak), *pago* (Sakanan *fago*). Ondorengo bi atzizkiotan ere aldaera desberdinak erabiltzen dira gaur egun: Burundan *-di* (*intxordi* ‘intxaurdi’) / Sakanan *-di* eta *-degi* (> *-dei*) (*intxordei*), Burundan *-tzaile* (*saltzaille*) / Sakanan *-tzale* (*saltzale*).

11. Sakanako hizkeren batasuna

Burundaren nortasuna nabarmendu eta gero, Sakanako gainerako hizkerekin daukan batasuna ere nahitaez erakutsi behar da. Gorago esandakoa errepikatuko dut berriro: gaur egun Sakana dela burundarren hartu-eman esparru nagusia. Uste izatekoa da, beraz, hartu-emanak hizkuntzan ere izango duela eragina. Hauexek dira Sakana osoko ezaugarriak:

(1) Euskal Herriko beste alderdi askotan bezala, partizipioetan *-i* galtezko joera dago: *ibili da* → *ibil da*.

(2) /e + a, e, o/ → *i* eta /o + a, e, o/ → *u* bilakaerak oso indartsuak dira: *biandu* ‘berandu’, *gainia* ‘gainera’, *basua* ‘basora’, *nuaindo* ‘noraino’ gisakoak entzuten dira Burundan. Nabarmentzekoak dira, era berean, *yan* ‘edan’, *yon* ‘egon’ gisako bilakaerak. Jose Luis Erdoziaren (2001a: 406) esanetan, Etxarri Aranatzen, Lizarragan, Unanun eta Lakuntzan ere gertatzen dira. Aldeak alde, inguruko beste hizkera batzuetan ere badira: Imotzen, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun (Apalauza 2008: 77-78).

(3) Sakana osoan gertatzen dira *-ai-* → *-ei-* eta *-ei-* → *-ai-* bilakaerak. Dena dela, badira aldeak: Sakanako erdigunean Burundan baino askozaz indartsuagoa da *-ai-* → *-ei-* (*bei* ‘bai’) eta, aldiz, Burundan Sakanako gainerrako herrietan baino indartsuagoa da *-ei-* → *-ai-* (*gahio* ‘gehiago’).

(4) Sakana osoan dago *-eu-* → *-au-* egiteko joera: *neurri* → *aurri* / *laurri*.

(5) Sakana osoan dago *-KA* atzizkia *-KAN* egiteko joera: *bulkakan* ‘bultzaka’. Inguruko hizkeretan ere bada: Imotzen, Basaburuan eta Larraunen (Apalauza 2008: 86).

(6) Sakanako bereizgarria da kausazko perpausetako ‘NOLABAIT + aditza + -eN’ egitura. Urdiango adibide honetan daukagu lekukotasuna: *nolabait*

andragaia Iruñakua dukan, bertan yosi dai etxia ‘andregaiia Iruñekoa daukanez, bertan erosi dute etxea’.

(7) Sakanako bereizgarria da baldintza perpausetako -TEAZ (> -TIAZ) atzizkia: *ez fatiaz, hots inko du* ‘ez joateaz, deituko dugu’.

Lexikoan bi hitz nabarmenduko ditut: *inbuluzkan* ‘itzulipurdika’ eta *momoxarro / mamuxarro* ‘inauteriak / inauterietan mozorroz jantzita makila batekin jotzen ibiltzen dena’. Ondorengo hauek Sakanatik kanpo ere badira: *kunkun* ‘apoa’ (Basaburuan ere bada), *sobrare* (> *sobre*) ‘nonbait’ (Goierriin ere bada), *zakar* ‘itsusi’ esanahiarekin (Nafarroako mendebaleko beste hizkera batzuetan ere bada).

Sakana osoko edo gehieneko aldaerak dira hauek: *biliskorri* ‘biluzgorri’, *irruiti* ‘urruiti’, *jaski* ‘saski’, *jaunka* ‘zaunka’, *lazka* ‘nazka’ (> *lazkarri* Urdiainen) eta *zui* ‘zubi’. Ondorengo hauek Sakanatik kanpo ere badira: *arrantza / arruntza* ‘arrantza’, *be* ‘gabe’ (eta *beiko / baiko* ‘gabeko’), *erde* ‘lerde’, *esene* ‘esne’ (eta *esenatu* ‘esnatu’), *fan* ‘joan’, *fare / fara* ‘joare’ eta *txindila* ‘dilista’.

12. Sakanako euskararen kokagunea

Lau azpieuskalki agertzen dira gaur egun euskara nafarrean:

- a) Ipar-sartaldekoa. Bortzirietan, Malerrekan, Bertizaranan eta inguruko beste herri hauetan egiten da: Goizueta, Saldias, Beintza-Labaien eta Oronoz-Mugairi.
- b) Hego-sartaldekoa. Sakana gehienez egiten da.
- c) Erdialdekoa. Ultzaman, Lantzen, Atetzen, Anuen, Odietan eta Imotz ibarreko Muskitz herrian egiten da.
- d) Sortaldekoa. Esteribarko eta Erroibarko herri gutxi batzuetan iraun du.

Bereziak dira Aezkoa ibarrekoa, Baztan-Urdazubi-Zugarramurdi eskualdekoa eta Burundakoa. Inguruko euskalkiekin egiten dute lotura: «tarte-ko hizkerak» dira.

Sakanako azpieuskalkiari dagokionez, bi gertakari nabarmenduko ditut. Alde batetik, Nafarroako eta Euskal Herriko erdiguneko berrikuntza batzuk ez dira hara heldu eta, bestetik, Gipuzkoako euskararen eragin bizia izan du.



BIBLIOGRAFIA

Argibide bibliografikoak

- ALTZOLA, NIKOLAS [«Valentín Berriochoa»] (arg.). 1962. «El vocabulario inédito de Zubigar». *Euskera* 7: 43-54.
- APALAUZA, AMAIA. 2008. «Nafarroako ipar-mendebaleko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu». *Fontes Linguae Vasconum* 40, 107. zenb., 63-104.
- BONAPARTE, LOUIS-LUCIEN. 1862. *Langue basque et langues finnoises*. Londres.
- (Phon). *Phonologie de la langue basque dans tous ses dialectes*. 1868 inguruko txosten argitaragabea.
- 1869. *Le verbe basque en tableaux*. Berrargitaratua: [J. A. Arana Martija, arg.], *Opera omnia vasconice* (I): 175-442. Bilbo: Euskaltzaindia, 1991.
- 1881. «Observaciones sobre el vascuence de algunos pueblos del valle de la Burunda». *Euskal-erria* 2: 145-151.
- CAMINO, IÑAKI. 1997. *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- ERDOZIA, JOSE LUIS. 2001a. *Sakana erdialdeko euskara*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- 2001b. «Etxarri Aranzako dotrina. Sakana ekialdearekiko alderaketa». *Fontes Linguae Vasconum* 33, 86. zenb., 87-110.
- 2004. *Sakanako hiztegi dialektologikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernu eta Euskaltzaindia.
- ETXAIDE, ANA M. (arg.). 1984. *Erizkizundi irukoitza. Iker-3* (2 ale). Bilbo: Euskaltzaindia.

- ETXEBERRIA, IZASKUN. 1986. *Altsasuko euskeraren azterketa linguistikoa*. Donostiako Irakasle Eskolako lan argitaragabea.
- GAMINDE, IÑAKI. 1985. *Aditza ipar goi nafarreraz* (3 ale). Iruñea: Udako Euskal Unibertsitatea.
- GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, ÁNGEL. 1985. *Demografía y sociedad de la Barranca de Navarra (1760-1860)*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- HUALDE, JOSE IGNAZIO. 1991. *Basque Phonology*. London & New York: Routledge.
- 1996. «Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarri». *Uztaro*, 18. zenb., 49-60.
- INTZA, DAMASO. 1922a. «Naparroko aditz-laguntzalea zuketazko esakeran». *Euskera* 3-2: 65-92.
- 1922b. «Burundako euskalkia». *Euskera* 3-3: 3-42.
- IÑIGO, PATXI, PATXI SALABERRI ZARATIEGI eta JUAN JOXE ZUBIRI. 1995. «-ki aditz atzikiaren gainean». *Fontes Linguae Vasconum* 27, 69. zenb., 243-295.
- IRIZAR, PEDRO. 1973. «Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Estudio lingüístico-demográfico». *Berrargitaratua: Irizar* 1981-1: 173-237.
- 1981. *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (2 ale). Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- 1991. *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano* (2 ale). Donostia: Kutxa eta Euskaltzaindia.
- IZAGIRRE, KANDIDO. 1967. «Altsasuko euskeraren gai batzuk». *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»* 1: 45-97.
- KANY, CHARLES. 1970. *Sintaxis hispanoamericana*. Madrid: Gredos.
- KARASATORRE, RAFAEL. 1993. *Barranca-Burunda*. Iruñea: Gráficas Pamplona.
- KARASATORRE, RAFAEL, JOSE LUIS ERDOZIA eta EUGENIO ULAIAR. 1991. *Etxarri Aranatzko Euskera eta Arañaz Elkarteko Hiztegia*. Tafalla: Altaffaylla Kultur Elkartea.
- LANDUCCI, NICOLAO. 1562. *Dictionarium Linguae Cantabrigae*. Berrargitaratua [H. Knörr eta K. Zuazo, arg.], *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*: 201-334. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1998.

- MITXELENA, KOLDO. 1961. *Fonética Histórica Vasca*. 2. arg., osatua, ASJUren gehigarriak-4. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1977.
- 1962. «Apostillas de un renteriano». *Euskera* 7: 54-58.
- NAVARRO, JAVI, JOSE NAVARRO eta MARI LURDES ANDUEZA. 2008. *Lizarraga Ergoieneko euskara*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- ONDARRA, FRANCISCO. 1965. «Voces vascas de Bacaicoa». *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* 21: 386-412.
- 2005. «Bakaikuko euskal hitzak, esaerak, etab.». *Fontes Linguae Vasconum* 37, 100. zenb., 481-523.
- RIJK, RUDOLF P. G. DE. 1992. «Nunc vasconice.» *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»* 26-3: 695-724.
- SALABERRI ZARATIEGI, PATXI. 1998. «Arabako mugako nafar hizkeren inguruan». [I. Camino, arg.], *Nafarroako hizkerak*: 49-87. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- SATRUSTEGI, JOSE MARI. 1999. *Sakanerri barrena*. Iruñea eta Urdiain: Nafarroako Gobernua eta *Bierrik!* Elkartea.
- ZUAZO, KOLDO. 1994. «Burundako hizkera». *Euskal Dialektologiako Kongresua*. ASJUren gehigarriak-28: 297-364. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- 2006. *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta Tokiko batua*. Eibar: *Badihardugu* Euskara Elkartea.
- 2008. *Euskalkiak, euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.
- ZUFIAURRE, OIHANE. 2001. *Urdingo euskeria*. Euskal Herriko Unibertsitateko lan argitaragabea.

Bibliografia osagarria

- ARANTZADI ZIENTZIA ELKARTEA. 1983-1990. *Euskalerriko Atlas Etnolingüistikoa* (2 ale). Donostia.
- ARBIZU, NICOLÁS. 1990. «Toponimiade Iturmendi». *Fontes Linguae Vasconum* 22, 56. zenb., 261-275.

- CARO BAROJA, JULIO. 1973. «Un pueblo de encrucijada (Urdiain)». *Estudios Vascos*: 225-255. Donostia: Txertoa.
- ERDOZIA, JOSE LUIS. 2002a. «Bakaikuko hizkera». *Fontes Linguae Vasconum* 34, 90. zenb., 269-306.
- 2002b. «Bakaikuko leku-izenak». *Fontes Linguae Vasconum* 34, 91. zenb., 517-541.
- 2004. «Irañetako euskara». *Fontes Linguae Vasconum* 36, 97. zenb., 487-517.
- 2006. *Altsasuko euskara*. Altsasu: Altsasuko Udala eta Sakanako Mankomunitatea.
- 2007. *Sakanako hizkeren araberako idazkera batua*. Lakuntza: Sakanako Mankomunitatea.
- 2008. «Burundako hizkera, Arabako ekialdekoaren hondar euskalkia». [X. Artiagoitia eta J. A. Lakarra, arg.], *Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren omenez. ASJUren gehigarriak* 51: 225-235. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ERDOZIA, JOSE LUIS eta PATXI FLORES. 2004. «Lizarragabengoko hizkera». *Fontes Linguae Vasconum* 36, 95. zenb., 53-88.
- ETXAIDE, ANA M. 1989. *El euskera en Navarra: Encuestas Lingüísticas (1965-1967)*. Eusko Ikaskuntza, *Hizkuntza eta Literatura*, 8. zenb.
- EUSKALERRIA IRRATIA eta MATIAS MUJICA. 1990-1993. *Nafarroako euskaldunen mintzoak* (2 liburu eta 5 kasete). Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- EUSKALTZAINDIA. 1985-. *Euskal Gramatika. Lehen urratsak* (6 ale). Bilbo.
- FLORES, MARIA. 2003. *Basogintza Sakanan*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- HUALDE, JOSE IGNAZIO. 1991. «Sincronía y diacronía de las vocales geminadas en vasco». *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum. ASJUren gehigarriak*-14: 615-624. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- IBARRA, ORREAGA. 1994. *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- JIMENO JURIO, JOSE M. (zuz.). 1992. *Nafarroako toponimia eta mapagintza* (VIII, IX eta X aleak). Iruñea: Nafarroako Gobernu.

- KIMA EUSKARA TALDEA. 2006. *Jose Iriarte Zufiaurre «Ttotto» bertsolaria eta bere garaiko Altsasu*. Altsasu.
- MAIZ, ENEKA eta IÑAKI MUNDIÑANO. 1998. *Etxarrieratik Sakanerara*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- MITXELENA, KOLDO. 1987-2005. *Orotariko euskal hiztegia* (16 ale). Bilbo: Euskaltzaindia.
- OÑEDERRA, M. LOURDES. 1990. *Euskal fonologia: palatalizazioa*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- SOLIS, GREGORIA. 1993. «Lizarragako euskararen azterketa». *Fontes Linguae Vasconum* 25, 62. zenb., 95-123.

